



Aitor Mendizabal
pilotariari
elkarriketa

Datuen
segurtasunari
giltza jartzen

EUSKARAREN TRANSMISIOA KANTUEN BITARTEZ

Alaia abesbatzako kideek, eguneko zentroko
egoiliarrek eta ikasleek elkarrekin abestu dute
Aramaion Euskararen Egunean / 2

Ur Agirre eta Ana Arriolabengoa iloba-amamak, martitzenean, Euskararen Egunean, Aramaion. Atzean, eskolako neska-mutikoak eta Alaia abesbatzakoak kantatzeko gertu. XABIER URZELAI

**5,3 milioi euro
bideratuko ditu
Arrasateko Udalak
inbertsioetarako
datorren urtean** / 12

SINADURAK



XABIER
MUGARZA / 8



ITSASO
ERRETOLATZA / 13



IONE
ARDAIZ / 10



AGURTE
BARRUSO / 48

2mó/
graduatu, erreflexuen
aurkako lenteekin **99€**

*Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira*



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE
Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticasgipuzkoa.com



Xabier Amurizak hitzaldia eskaini du Olanan. IMANOL BELOKI



Aramaio euskararen arnas-guneetako bat bezala aurkeztu dute. IBAI ZABALA



Leizarra musika eskolako dantza taldearen emanaldia. MIRARI ALTUBE



2020ko Euskaraldian parte hartuko duten entitateak aurkeztu dituzte Arrasaten. E.A.



Bergaran, Seminarixoa aurkeztu dute bigarren Euskaraldia. MAIDER ARREGI



Euskararen gainean hausnartu dute Elgetan, mahai-inguru batean. LARRAITZ ZEBERIO

Euskarari, behar duen bultzada

Euskararen Nazioarteko Eguna izan da martitzenean, abenduaren 3an, eta bailarako herri guztietan egin dituzte horren bueltako ekintzak; horrez gain, bigarren Euskaraldia aurkeztu dute aste honetan Bilbon, 2020ko udazkenean egingo dutena

Eneko Azurmendi ARRASATE

Askotarikoak izan dira Euskararen Nazioarteko Egunaren harira Debagoieneko herri guztietan egin dituzten ekintzak, pasa den astetik hasita.

Antzuolan, esaterako, Xabier Amuriza bertsolari eta idazleak bakarrik kantatu bat egin zuen martitzenean bertan, berak idatzitako *Neska bat leku inpo-*

siblean eleberrian oinarrituta, eta Olan etxeko aretoa jendez bete zen bere hitzak entzuteko.

Aramaion, euskararen aldeko herri lasterketa batekin hasi zituzten ospakizunak, domekan. Martitzenean, *Kantuz bizi* ekimena egin zuten, eta herriko kaleetan hainbat euskal kantu abestu zituzten San Martin eskolako ikasleek, Alaiak abesba-

tzako kideek eta eguneko zentroko egoiliarrek. Horrez gain, euskararen arnasgune ere izendatu dute (ikus zatidura).

Aretxabaletan, auzoetatik abiatu zuten kalejira, plazan bukatu zena, eta ondoren, ekitaldi nagusia egin zuten. Euskarategiko bi ikasle adierazpen bat irakurri ostean, Leizarra musika eskolako dantza taldeak ema-

naldia eskaini zuen, eta ondoren talde argazkia atera zuten, Euskaraldiarekin bat egiteko.

Arrasaten ere martitzenean bertan egin zituzten ekintza guztiak, Biteri plazan. Lehenik, arratsaldean, umeendako jolas eta tailerrak egin zituzten, ludotekek antolatuta, eta ostean etorri zen ekitaldi nagusia. Euskaralez Topaguneak kalera-tutako manifestuan oinarrituta, euskararen historiari errepasoa egin zioten, eta ostean, aurrera begira jarri ziren, euskarak dituen erronkei begira.

Bergaran, Euskaraldiarekin bat egiteko ekitaldia egin zuten lehenik, domekan, Seminarixoa, Jone Olabarria kazetariak aurkeztuta eta Imanol Ituño magoak giroa, magiaren eta euskararen arteko zubia eraikiz. Martitzenean, berriz, Berexerka taldearen antzerkia eta hainbat esketxen emanaldia egin zuten, hori ere Seminarixoa.

Eskoriatzari dagokionez, aseturuan egin zituzten ekintza

guztiak. Egubakoitzean, karparen irekiera egin zuten, kontzertu akustiko batekin. Irati Etxebarrietak eta Julene Rosadok osatutako bikoteak eta Andoni Bengoak egin zuten kantuan, besteak beste. Zapatuan, berriz, 130 bat lagun elkartu ziren paela jateko, eta, bazkalostean, kantuz lagunduta egin zioten ongiatorria Euskaraldiari.

Elgetan, Jon Basagurenen kontzertuaz gozatzeko aukera izan zuten egubakoitzean eta martitzenean, berriz, hizkuntza ohituren bilakaeraren inguruko mahai-ingurua egin zuten. Aurretik, baina, txokolate-jana eta umeendako jolasak egon ziren herriko plazan.

Gatzagan, *Arnasa gara* ekimena aurkeztu zuten pasa den egunean (ikus zatidura).

Oñatin, azkenik, *Kaffka* antzezlanaz gozatu zuten batxilergoko ikasleek Santa Anan, martitzenean. Horrez gain, euskal kantuak abestu zituzten, eta, azkenik, Euskaraldiarekin bat egin zuten, herriko plazan boroilean jarrita, performance baten bitartez.

Ariguneak, elementu berriak

Astelehenean aurkeztu zuten Euskaraldiaren bigarren edizioa, 2020ko udazkenean egingo dutena. Itsasmuseum Bilbo itsas museoa. Euskararen biziberritzearentzat oso garrantzitsuak diren eremuetan euskararen erabilera bultzatzeko neurri praktikoak bultzatzea du xede Euskaraldiaren bigarren edizioak –besteak beste, aisialdian, alor sozioekonomikoan eta administrazioan–. *Ahobizi* eta *belarri-prest*-ek hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa egiteaz gain, taldeko harremanetan ere eragin gura dute antolatzaileek, eta, beraz, entitateek ere hartuko dute protagonismoa. Ariguneak izango dira bigarren Euskaraldiko elementu berria: entitateek euren ardurapean identifikatutako euskaraz aritzeko gune babestuak, hain zuzen.

Dagoeneko aurkeztu dituzte ariguneak antolatzeko baldintzak dituzten aztertze, gune horiek

**ARIGUNEETAN
OINARRITUKO DA
2020KO EUSKARALDIA
ETA BI ARIGUNE MOTA
SORTUKO DITUZTE**



Asteburu osoko jaiarekin aurkeztu dute bigarren Euskaraldia Eskoriatzan. I.S.



Aramaioarekin batera, Leintz Gatzaga ere euskararen arnasmune izendatu dute. A.G.



Performance batekin egin diote ongietorria 2020ko Euskaraldiari Oñatin. O.E.

identifikatzeko eta bultzatzeko konpromisoa hartu duten entitate batzuk, izaera, tamaina, jatorri eta sektore askotarikoak. Hauek dira: Oreka IT aholkularitza-taldea, Deustuko SGEL liburu-denda, GKN Zumaia, Iruñeko Duguna dantza taldea, Kutxabank, Athletic Fundazioa, Musikene goi-mailako musika ikastegia, Erika Fundazioa, Eus-

kal Herriko, Laborantza Ganbara, Bilgune Feminista, Laneki lanbide heziketarako ikasmaterialen argitaletxea, Artepan okindegiak, Sokoa altzari ekoizlea, Euskal Herriko Meatzarrien Museoa eta UVESCO taldea.

Hurrengo hilabeteetan "entitate horietan ariguneak sortu, bultzatu, identifikatu eta babes-teko prozesua martxan jarriko

da, Euskaraldian zehar arigune modura aritzeko prest egon daitezela", antolatzaileen esanetan.

Arrasateko entitateak, prest

Debagoienean ere hasi dira lehen arigune horiek sortzeko konpromisoa hartu duten entitateak azaleratzen. Izan ere, Arrasaten aurkeztu dute zerrenda dagoeneko: Arrasate Trikitixa Eskola, Ttakun Txalaparta Elkartea, Abian Fisioterapia Zentroa, Fagor, Mondragon Taldea, EPA-HHI helduen eskola, Ardatz formakuntza eta ikasketa zentroa, Ibai-arte, Taxka taberna, kiroldegia, Udaltzaingoa, Besaide Mendizale Elkartea, Arrasate Dragoi Gimnasia Taldea, Mundukide eta Leintze elkarte gastronomikoa.

Bi arigune mota

Arigunea osatzen duten kide guztiek euskara ulertzeaz gain, euskaraz hitz egin nahi duteneko aldeotasuna adieraziko dute. Horregatik, euskarazko harremanek zilegitasuna eta babesa izango dute eta errazagoa izango da hauetan euskaraz aritzea. Bi motatako ariguneak egongo dira: erakunde hauen barne funtzionamenduan euskararen erabilera babesteko sortutako barne-ariguneak, eta herritarrekiko harremerako edo kanpo harremanetarako dituzten kanpo-ariguneak.

Irekita dago ariguneak inskribatzeko epea, *Euskaraldia.eus* webgunean, eta horretarako aukera egongo da uztailera arte. Izena eman ahal izateko, ariguneak non dituen identifikatu beharko du entitateak, eta ki-deekin adostasuna hitzartu.

Azaroaren 20tik abenduaren 3ra arte egingo dute Euskaraldiaren bigarren edizioa.



Ttap aldizkariako hainbat kide, Andoaingo Bastero kulturunean. IBAN GARATE

Bide berri bat eraikitzeaz gain, berau indartzen ari da 'Ttap'

2019ko Rikardo Arregi Kazetaritza Sariako Komunikazio Saria irabazi berri du aldizkari digital multimediak

E.A. ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak eta Andoaingo Udalak antolatutako Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak berrikuntza bat izan du aurtentzen: Komunikazio Saria. Horixe bera da, hain zuzen, besteak beste Goiena sustatzaileen eta egileen artean duen *Ttap* aldizkari digital multimediak irabazi duena. "Oso pozik jarri ginen finalistak izango ginela jakin genuenean, baina irabazita, are gehiago. Oxigeno-injekzio handia izango da guretzat sari hau aurrera begira", azaldu du Monika Belastegik, aldizkari zuzendariak. Multimedia arloan apustu sendoa izan da aldizkari hori, euskarazko bakarria, eta hori ere izan da gakoetako bat sari-tua izan dadin. "Oso pozik gaude bide berri bat ireki dugulako eta bide hori indartzen dabile-lako", dio Belastegik.

Haziz doan proiektua

2018ko irailaren 21ean kaleratu zuen lehen zenbakia gaur egungo kontsumo eredura egokitzen den euskarazko aldizkari digital multimediak, eta ordutik etengabe hazten joan da. Horren adibide da, esaterako, esku artean duten fikziozko websail berria.

Bihar, egubakoitza, 56. zenbakia kaleratuko du *Ttap* aldizkariak, eta, biharkoak kontuan izanda, 115 elkarrikketa egin dituzte urtebete baino gehiagoko ibilbidean. Edizio bateratuak ere kaleratu dituzte: Durangoko Azoka 2018 eta 2019, Martxoaren 8a, Korrika, sanferminak eta Humanity At Music, baita bi zenbaki berezi ere: Bagara eta Baleikeren 25. urtemuga. 65 bat

kolaboratzailearen lanarekin osatzen dute asteroko zenbakia.

Gazteentzako ere bai

Zut aldizkari digital multimedia ere nabarmentzekoa da. Duela bi aste aurkeztu zuten, eta gazte zein nerabeei zuzenduta dago websail bat ere badu: *Ixa*. Bertikalean bakarrik kontsumitu daiteke, IOS eta Android gailuetan. Gaur, eguna, kaleratuko dute bigarren zenbakia. Durangoko Azokan bi aldizkariaren gaineko informazioa egongo da.

Elkarlanaren fruitua

Aldizkari Digital Multimediak SL enpresa da *Ttap* argitaratzeaz arduratzen dena, eta honako hauek dira bazkideak: Durangaldeko Anboto, Goiena, Zumaiako Baleike, Iruñerriko Euskalerrria Irratia, euskarazko tokiko hedabideak batzen dituen Tokikom bateragunea eta Kataluniako Esguard –azken hau hartu dute erreferentzia modura *Ttap* aldizkaria sortzeko–.

Aramaio eta Gatzaga, arnasmune

Irailan, *Arnasa gara* ekimena aurkeztu zuten Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak eta Arabako Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek.

Euskararentzat arnasmuneak diren udalerriak zein bertako herritarrak ahalduntzea eta dagokien aitortza egitea dira

egitasmoaren oinarri nagusiak, eta euskararen arnasmune horien artean Debagoieneko bi herri daude, Aramaio eta Leintz Gatzaga, eta dagoeneko egin dituzte aurkezpen ekitaldiak bi udalerri horietan.

Leintz Gatzagak pasa den egunean aurkeztu zuen, kultura etxean. Lehenik eta behin, EITBK eta Hiru Damatzok ekoiztutako *Kartzela* sail digitalaren

aurre-estreinaldia egin zuten, eta ondoren, solasaldia.

Aramaion, egubakoitzean egin zuten aurkezpen ekitaldia. Hainbat herritarrek hartu zuten hitza euskararekin duten harremana azaltzeko eta hemen ere *Kartzela* websailaren lehen bi kapituluak ikusteko aukera izan zuten primizian. Gainera, aktoreetako bi gerturatu ziren euren bizipenak partekatzerako, Iratxe Urkiaga lekeitiarra eta Juanen Saralegi lesakarra.

Deskargatu 'Ttap' eta 'Zut'

Aldizkariak eskuratzeko, bi aplikazioak deskargatu behar dira, doan, Apple Store eta Google Play bidez. Eguenero eta barikuro, zenbaki berriak eskuragarri izango dituzu. Biek dituzte Instagram kontuak. *Ttap*-ek, Twitter eta Facebooken ere bai.



Debagoieneko Euskal Eskola Publikoetako ordezkariak, astean egindako agerraldian. M.S.

Jardunaldi pedagogikoak antolatu ditu Goieskolak

Datorren eguaztenean, abenduaren 11n, egingo dute lehen jardunaldia; Cesar Bona irakasleak 'Escuchar para educar' hitzaldia eskainiko du Arrasateko Amaia antzokian. Gainontzeko jardunaldiak urtarilean izango dira, eta hitzaldiak izango dira gehienak

Maialen Santos DEBAGOIENA

Goieskolak, Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa osatzen duen elkarteak, jardunaldi pedagogikoak antolatu ditu abendurako eta urtarrilerako. Horietako gehienak urtarilean izango diren arren, abenduaren 11n egingo dute lehena; 17:30ean, Cesar Bona irakasleak Arrasateko Amaia Antzokian *Escuchar*

para educar hitzaldia eskainiko du. Kurtzebarri Eskolako Lehen Hezkuntzako zuzendari Mikel Uribarrenek adierazi duenez, Debagoieneko Euskal Eskola Publiko guztiek duten ezaugarria da ikaslea eta haren familia jartzen dituztela "erdigunean". "Uste dugu Cesar Bonak bere hitzaldi eta liburuetan ondo ordezkatzeko duela filosofia hori,

berak ere ikasleengan jartzen baitu fokua", argitu du. Gaineratu duenez, hizlaria munduko irakasle "onenetako bat" izan da, eta, beraz, hizketaldia interesgarria izango dela uste du.

Urtarrilaren 15etik 25era arte Gainontzeko jardunaldiak urtarilean egingo dituzte, eta gehienak gurasoei zuzendutakoak

izango dira –ipu-in-kontalaria izan ezik, gainontzekoak–.

Jardunaldiei dagokienez, urtarrilaren 15ean *Berdinen arteko gatazken kudeaketa* izeneko hitzaldia izango da Aretxabaletan, Arkupen, 18:00etan hasita. Herri berean egingo duten beste jardunaldia hilaren 21ean izango da, Kurtzebarri Eskolako liburategian, *Nafarroa, euskal estatua* izenarekin.

Arrasaten, doluari buruzko hitzaldia emango dute Kulturartan, urtarrilaren 16an, 17:30ean hasita. Bestalde, Arrasate Institutuan *Aniztasunetik sortuz arte* erakusketa egingo dute urtarrilaren 20tik 24ra bitarte.

Elgetan, bestalde, etxerako lanei buruzko hitzaldia eskainiko du Jose Amiamak. Hilaren 22an izango da, 16:15ean.

Horretaz gain, Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolako aretoan bina jardunaldi eskainiko dituzte. *La importancia de los límites en la familia* hitzaldia 21ean izango da, 17:30ean. *Zeure barneko sorgin-ipuina piztu nahi* ipuin-kontalaria, aldiz, 15ean izango da, 17:00etan hasita –haurrei zuzendutakoak–.

Bergaran ere hitzaldia antolatu dute, *Eskolako kanpo espazioa haurren garapenerako eta ikaskuntzarako baliabidea* izenarekin. San Martin Agirre eskolan izango da Iñaki Larrea, urtarrilaren 21ean, 18:00etan. Egun eta ordu berean, gainera, Ipintzan bideo-jokoei buruz hizketan arituko dira.

Oñatin ere egingo dute jardunaldia, *Tira In Euskeriari* lelopean euskarari buruzko mahai-ingurua. Halere, lekua eta ordua zehazteke daude oraindik.

Azkenik, Aramaion eta Angiozarren ere egingo dituzte jardunaldiak, baina horien antola-

kuntzan lanean ari dira oraindik. Zehaztu gabekoak argitzeko informazioa "aurrerago" emango dutela argitu du Goieskolako koordinatzaile Lukene Igartuak. Halere, guztiak "irekiak" izango direla aurreratu du, hezkuntza publikoa diren heinean debagoienar guztiekiko "erantzukizuna" dutela esanda.

'Aniztasuna' ezaugarritzat

Iaz, Debagoieneko Eskola Publikoaren Jaia antolatu zuen Goieskolak, eta, "lortutako emaitza" ikusirik, aurtengo jardunaldiak elkarlanean antolatzeko erabakia hartu dutela aitortu du Goieskolako koordinatzaileak. Askotariko gaiak landuko dituzte, eta horien bitartez lortu gura diren helburuak asko izango dira; besteak beste, guztientzako hezkuntza guztien artean egitea, ikasle bakoitzaren nortasuna eta pentsaera errespetatzea, eskolaz bestelako erakundeekin elkarlana bultzatzea eta aniztasuna balio positibotzat berreskuratzea. Hain justu, *aniztasuna* hitzean jarri nahi izan dute azpimarra, Goieskolaren "ezaugarri nagusia" aniztasuna dela argitu baitu Igartuak.

Horretaz gain, jardunaldiei buruzko xehetasunak emateko egindako agerraldia aprobetxatu dute Debagoieneko Euskal Eskola Publikoetako ordezkariak, astean Gasteizen hasi duten Euskal Eskola Publikoaz Harro kanpainarekin bat egin eta babes osoa helarazteko.

ANIZTASUNA ARDATZ IZANIK, ASKOTARIKO GAIK JORRATUKO DITUZTE HAINBAT JARDUNALDITAN

Beste herrietako kirol zerbitzuez gozatzeko, 'Mugiment' txartela

Urtariletik aurrera erabilgarri egotea aurreikusten dute. Txartel birtuala izango da; mugikorrerako 'app' bat

M.S. DEBAGOIENA

2020rekin batera iritsiko da *Mugiment* txartel birtuala Debagoienara. Proiektua sendotze lanetan dabilta oraindik, eta txartelaren gaineko asko zehazteke dauden arren, "ziur aski"

urtarrilean iritsiko dela azaldu du Oskar Carrascalek, Oñatiko Udaleko Kirol teknikariak.

Herri bakoitzeko abonatuak bailarako beste herrietako kirol zerbitzuez "gozatu" ahal izateko ari dira sortzen txartel birtuala,

mugikorrerako *app*-a. Halere, txartela "mugatua" izango dela azaldu du Carrascalek: "Kirol azpiegiturretan erabiltzaile gutxi dauden uneak aprobetxatu nahi ditugu, kanpokoek zerbitzuei probetxua atera ahal izateko". Hala ere, herri bakoitzak zehaztu beharko du zein ordu tartetan jasoko dituen beste herrietatik etorritako erabiltzaileak, baita zehazki zein kirol zerbitzu erabili ahal izango dituzten ere –zerbitzuak "efizienteagoak" izan daitezken–.

Bailarako herri guztiak ari dira proiektuan lanean, eta, oraindik onarpen ofizialik ez duen arren, "printzipioz" herri guztietako abonatuak izango dute *Mugiment* erabiltzeko aukera. Ordaindu beharreko abonu kuota, bestalde, norberaren herriari dagokiona izango da.

Bilbon ere erabilgarri

Bergarako Agorrosin kirol zerbitzuko ordezkari Jon Larrañagak azaldu duenez, txartela dagoeneko erabilgarri dago

beste toki batzuetan: Bilbon, esate baterako. Hain zuzen, bertako "eredua jarraituta" gura izan dute proiektua Debagoienan ezarri. "Bilbon, Ezkerraldean dihardute erabiltzaileek *Mugiment app*-a erabiltzen, eta ideia gurrera ekarri nahi izan dugu". Arrazoi horregatik, behin bailaran txartela funtzionamenduan jarrita, Bilboko kirol azpiegiturretan ere erabili ahal izango da. Are gehiago, "oso posible" da epe luzean *Mugiment* erkidego osoan erabili ahal izatea.

Ekintza ugari, bailara sakonago ezagutzeko

Abenduaren 6tik 8ra askotariko ekintzak egiteko aukera egongo da Debagoienean. Eskaintza gastronomikoaren baitan, pintxo-ibilbidea egingo dute. Natura eta kultur ondarea ezagutzeko, bestalde, ohikoez gain bisita gidatu bereziak egingo dituzte

Maialen Santos DEBAGOIENA

Debagoieneko natura zein kultur ondarea ezagutzeko bisita-gidatuak urte osoan zehar egiten diren arren, abenduaren 6tik 8ra bitartean egitekoen eskaintza zabala antolatu dute Debagoieneko Mankomunitateak eta herrietako turismo bulegoek; bailarako gastronomia, natura eta kultura ezagutzera bideratuko dituzte hiru egunetan zehar egiteko antolatu dituzten horiek.

Pintxo-ibilbidea, berrikuntza

Eskaintza gastronomikoari dagokionez, pintxo-ibilbidea antolatu dute, hirugarrenez. Herrietako zenbait tabernatan kalitatezko produktuekin osatutako pintxo bereziak egingo dituzte egubakoitzetik domekara bitarte. Debagoieneko Mankomunitateko Turismo arduradun Ana Erizek azaldu duenez, pintxo-ibilbidea izango da ekintza gastronomikoen artean "berrikuntza" nagusia. Aurreko urteetan "arrakasta" izan dute pintxoek, eta bide beretik jarraitu gura dute.

Horretaz gain, Debagoienean dauden hiru gaztandegik euren ateak zabalduko dituzte –horretarako aurrez izena emanda–. Oñatiko Gomiztegik, Antzuolako Ama Txok eta Eskoriatzako Atxalde hartuko dituzte bisitak.

Txokolatearen inguruan gehiago jakiteko, Oñatiko Txokolateixia –txokolatearen interpretazio zentroa– ezagutzeko aukera egongo da, txokolatea hizpide hartuta bisitak egingo baitituzte egubakoitzean, eta asteburuan.

Azkenik, domekan emango zaie 33. jardunaldi gastronomikoei amaiera. Ordura arte, zenbait jatetxetan izango da bertako produktuekin egindako platerak dastatzeko aukera.

Ezkutuko altxorretara, lau bisita
Ezkutuko altxorrek ekimenaren baitan bailaran zehar "ezkutuan" dauden "altxorretara" bisitak



Oñatiko Turismo Bulegoko arduraduna herritar bati azalpenak ematen. M.S.

KULTURAN, ONDAREAN ETA GASTRONOMIAN JARRIKO DUTE FOKUA, ASKOTARIKO EKINTZAK EGITEKO ASMOZ

egin dituzte urte hasieratik, zenbait alditan. Eta Erizek azaldu duenez, datozen egunetan ere izango da bisita "ezohiko" hauek egiteko aukera.

Hain justu, Antzuolan egingo dute bisita "berezi", abenduaren 7an 12:00etan herriko erdigunea eta Antiguako ermitan herriko historiako gakoak emango baitituzte ezagutzera. Bertara joan nahi duenak aurrez eman beharko du izena, turismo@debagoiena.eus helbidean.

Bestalde, Leintz Gatzagako Gatz Museora ere bisitak egingo dituzte; izen-ematea, turismo@bergara.eus helbidera idatzita.

Azkenik, Oñatin bisitatu ahal izango dira gainontzeko altxor ezkutukoak. *Giltzapeko altxorrek* izeneko bisitan, Sancti Spiritus unibertsitatea eta San Migel Parrokiako altxorrek ezagutzeko aukera izango da. *Ignaziotar*

lurraldean ilunabarrean bisitan, bestalde, Oñatiko monumentuak gauez ikusi ahal izango dira. Azken bisita hau bihar, egubakoitza, egingo dute, 18:00etan. Oñatiko Turismo Bulegoko Nahia Garetxanak azaldu duenez, "bisita benetan berezia izango da, gauez herriko txokoek xarma berezia izaten baitute".

Ezkutuko altxorren ekimenetik kanpo, Debagoieneko ondare gehiago ezagutu ahal izango da egunotan. Zapatuan Bergarako gune monumentalera bisita egingo dute, baita Laboratorium museora ere. Azkenik, Arantzazuko Santutegira ere bisitatu ahal izango da.

Inguru naturalak bisitagai

Naturari lotutako eskaintza ere izango da datozen egunetan. Oñatiko Arrikutz Kobetara bisitak egingo dituzte 6tik 8ra. Domekan, gainera, *Espeleotxiki* ekintza eramango dute aurrera. Bisitak egin zein ekintza horretan parte hartzeko, arrikutz@onati.eus helbidean eman behar da izena. Bestalde, Arantzazuko Parketxeak ere hartuko ditu bisitak; horretarako, 943 78 28 94 telefonora deitu behar da.

Gabonetarako jostailu berriak biltzeko laguntza eskatu dute

Gurutze Gorriak dihardu kanpaina aurrera eramaten, jostailuak eskura ez dituzten haurrak laguntzea helburu

M.S. DEBAGOIENA

Gabonak iristear direla eta, Debagoieneko Gurutze Gorria hasia da dagoeneko *Jostailu hezitzaileak* izeneko kanpaina aurrera eramaten. Jostailuak "eskura" ez dituzten haurrei laguntza emateko asmoz, jostailu berrien bilketa egiten ari dira egunotan, eta horretarako herriarren eta bestelako erakundeen laguntza behar dutela azaldu du Gurutze Gorriak. "Jostailua haurren garapenerako beharrezkoa den elementu bat izan arren, gaur egun, tamalez, eskubide hau ez dago haur guztien esku".

Hurrengo bilketa, etzi

Orain arte jostailuak biltzen aritu diren arren, gehiago biltzen jarraitu gura dute datozen egunetan, jendea oraindik ez delako "mugitzen" hasi, Gabonetako erosketak egiten hasteko "goiz" delako. Arrazoi horregatik, datozen egunetan jostailuak biltzen jarraitzea espero dute. Hain zuzen, etzi, zapatua, izango dute debagoiendarrek bilketa horretan parte hartzeko hurrengo aukera, Arrasateko Eroskin izango baitira Gurutze Gorrikoak, eurek azaldu moduan: "Debagoieneko gizarte bazterkeria arriskuan aurkitu daitezkeen 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzat arituko gara jostailuak jasotzen". Bete beharreko baldintza bakarra jostailuak berriak izan daitezen da. Etzi ez ezik, datorren zapatuan ere

leku berean izango dira, bilketarekin jarraitzea helburu. Kanpainak iraun bitartean, hiru modutara lagundu ahal izango da, gainera, jostailu berriak erosi eta emateaz gain, jostailu-txekeak erosteko aukera ere badago eta. Hala, modu horretako laguntza eman nahi duenak 5, 10 edo 20 euroko txekeak erosi ditzake Eroskin bertan jarriko duten postutxoan, eta ondoren, Gurutze Gorria arduratuko da bildutako diru kopuruarekin "beharrezkoak" diren opariak erostez. Azkenik, ekonomikoki laguntzeko beste bide bat ere ahalbidetu dute. Laboral Kutxako ES22 3035 0001 51 0010018156 zenbakian norberak nahi duen diru kopurua sar dezake; horretarako, kontzeptuan *JOSTAILUA 2019* jarrita.

250 haurrentzako laguntza

Gurutze Gorriak jakinarazi dutenez, aurten Debagoieneko 250 haurrek eskatu dute jostailu berri bat. "Gizarte Zerbitzuek ematen digute informazioa, berriek baitira familien eskerak jasotzearen arduradunak".

Iaz egindako jostailu berrien bilketak arrakasta handia izan zuen. "Debagoieneko 199 haurren ametsak betetzeko nahiko jostailu batu genituen", diote.

Gabonetan haurrik jostailurik gabe gera ez dadin, proiektuan parte hartzera animatu nahi dute jendea. Diotenez, guztion "eskuzabaltasuna" beharrezkoa dute eskubideen aldeko borrokan.

Bailarako langabezia tasa mantendu egin da azken hilabeteen

Gorabehera handirik ez da izan azaroan Debagoienean langabe kopuruari dagokionez: 2.388 langabe zeuden erregistratuta –urrian baino 21 gutxiago– eta langabezia tasa %7,66an kokatu da. Antzerako tasa izan da azken hilabeteetan ere, uda hasierakoak salbuetsita: ekainean, adibidez, %7,22ra jaitsi zen eta horixe izan da, hain justu, 2019an erre-

gistratutako daturik onena, urtea amaitzeko hilabeteren faltan. Aurreko bi urteetako zifrekin alderatuta, aurtengo azaroko datuek egoera hobetzen ari dela erakusten dute.

Urtez urteko bilakaera positiboa ari da izaten Hego Euskal Herrian. Aurten, halere, azken hilabeteak, azaroak, ez du aparteko aldaketarik ekarri: urrian baino mila langabe gutxiago zenbatu dira; zehazki, langabe kopurua 146.193 langabetan kokatu da Hego Euskal Herrian.



Arrasateko erdigunearen ikuspegi orokorra, Ferixalekuko igogailuetatik, herriko etxe-orratzak nabarmentzen direla. IMANOL SORIANO

Jokin Etxebarria ARRASATE

Orain gutxi amaitu ditu ULMAk Eguzki dorrea izenez ezaguna denaren berritze lanak. 1971n eraiki zen oraindik ere Arrasateko eta bailarako dorre garaiena dena. Bere 20. solairutik eguzkia ia ukitzeko gaitasuna senti daitekeelako jarriko zioten izen hori. Baina 50 urte izatetik gertu egoteak operazio-gelatik pasa behar izatera eroan du. Txapa eta pinturaren ondoren –egiari zor, dezente gauza gehiago egin dizkiote; fatxada aireztatu-sistema berri bat jartzea, adibidez–, berriz ere harro erakuts dezake bere handitasuna.

Urte batzuk gehiago ditu Izarra dorreak –Unibertsitate edo Eskola Profesionalaren ondoan dagoenak– eta bertan egiten ari diren obrak ere amaitzeaz daude. Bestelako lan batzuk egin dituzte San Andres auzoko Arrasate, Udalaiz eta Txindoki dorreetan ere. Eraikin hauetako gehienak 50 urteren bueltan dabilta, eta, autoari IAT pasatzen zaion moduan, dorreei IT pasa behar zaie.

1960ko hamarkadako 'boom'-a

1950ean, ozta-ozta pasatzen zizuten Debagoieneko bi herrik 10.000 biztanleen langa. Arrasatek 10.014 zituen eta 300 gehiago zeuzkan Bergarak. Hala ere, industriak hazten zebiltzan eta horrek lana zekarren; eta lanak jendea dakar berekin. 1980ko hamarkadan, Arrasate 26.000 biztanle baino gehiago eduki-

Etxe-orratzak: moda ala beharra?

Arrasatek sei dorre handi ditu; Bergaran ezagunena Zabalotegikoa da; Eskoriatza sarreran ere badaude pare bat. Garai bateko herrien arkitektura markatu zuten, eta horien fisionomia aldaketaren ikur bilakatu ziren

tza iritsi zen, Bergara ia 16.000 eta Aretxabaletak ere bere kopurua bikoiztu zuen. Guztiak, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan jasotako jende uholdearengatik. "Villanueva de la Serena (Extremadura) autobus bat bidaltzen zuen enpresa batek bi edo hiru pertsonaren bila eta autobusa beteta etortzen zen bueltan", dio Alvaro Arregi arrasatearrak. Eta jende kopuru

"DENA AZKAR EGIN ZEN ETA KONTURATU ORDUKO MANHATTAN JARRI ZIGUTEN! PAREZ PARE"

horri guztiorri, lana emateaz gain, etxebizitza bat ere eskaini behar zitzaion.

Jesus Laskurain aparejadore bergararrak argi dauka: "Bergaran 1960ko hamarkadan jende andana jaso genuen; batez ere, Extremadura, Galizia eta Andaluziatik. Orduan, herrian labe garaia zeuden, 14 edo 15 ehungintza fabrika... jende askorentzat lana; hori ikusita, herriaren bi mugetan, Labegaraieta eta Madura-San Lorentzo auzoak sortu ziren. Testuinguru horretan egin zen Zabalotegiko dorrea ere, Bergarako etxe-orratza. Egia da 18 pisu dituela, garai bateko eran, hormigoï pila batekin eta diru irabazi handirik gabeko

eraikuntza motarekin eraikia izan zela, oso kritikatu; baina, era berean, garapenaren sinbolo ere bihurtu genuena herrian, gure etxe-orratza baita".

900 etxebizitza San Andresen

"Nik gogoan daukat gure etxe ondoan jarri zuten kartela: *Próxima construcción de 900 viviendas en San Andrés*", dio Arregik. Arrasateko Udaleko Hirigintza-

"ZABALOTEGIKO DORREA GARAPENAREN SINBOLO BIHURTU GENUEN HERRIAN"

ko zinegotzi eta gerora alkate izan aurretik bizi izan zuen lehen eskutik San Andres auzoaren bilakaera. "Aurrena Arrasateko saihezbidea egin zuten. Lehen, Donostiatik Gasteizerako errepidea Portaloitik pasatzen zen, handik Zarugalde kalera egiten zuen eta gero Takolora. Bide berria kuartelaren ondotik pasarazi zuten, honi garrantzia eman nahian edo. Errekaren norabidea ere aldatu zuten guztiz eta konturatu ginenerako hiru dorre erraldi agertu ziren, lehen diseinuan ageri ez zirenak. Jendea sutan jarri zen, euren etxeei eguzkia eta argia kentzen zietelako. Kontua da Udalak aldaketa batzuk egin zituela isilean. Jendaurreko esposizioan jarri zituen, baina, jendeak horrelako gauzei kasu gutxi egiten dienez gero, dena modu legalean aurrera joan zen. Manhattan parez pare jarri ziguten!".

Arrasaten eta Bergaran, herrien zabalgunek bilatzeko orduan, bi ezaugarri agertzen dira komunean: jende berri asko hartu behar herrian eta etxeak eraikitzeke esparru handirik ez edukitzea, batetik; eta Xabier Unzurrunzaga arkitekto zarauztarra, bestetik. Unzurrunzaga izan zen bi herrien antolamendu plana burutu zuena.

Lehen etxe-orratzak

Erdi Aroan, dorreak boterearekin lotzen ziren zuzenki. Dorreetan erregea, elizgizonak eta jauntxoak bizi ziren. Akaso, lehen



Bergarako erdigunea, herriko bi dorre garaienak nabarmentzen direla: San Pedro eliza eta Zabalotegiko etxe-orratza. ENEKO AZKARATE

etxe-orratzak egiten hasi zirenean boterea erakutsi nahi izatearen ideia ez zen oso urrun ibiliko. Horiek 1884 eta 1939 artean eraiki ziren, Ameriketako Estatu Batuetan. Gerra zibilaren amaierak ekarri zuen garapen ekonomikoak eta eraikitzeko lur faltak eraman zituen arkitektoak dorreetan pentsatzen jartzera. II. Mundu Gerraren amaieran hasi ziren agertzen Manhattanen gaur egun guztiontzat ezagun diren etxe-orratzak.

Modan zeudela iritsi ziren lehen etxe-orratzak ere bailara eta askok pentsatu dezake moda kontua izan zela hemen hauek agertu izana. Beharraren aldeko jarrera hartzen dute, hala ere, Jesus Laskurainek eta Olaia Etxenausia arkitekto teknikoei. "Dorreak egin ziren etorritako jende andanari erantzun bat emateko, gure herrietan ez baitzegoen eraikitzeko lur-eremu handirik", dio lehenak. "Kontutan hartu behar da lur hiritarra finitua dela eta populazio hazkunde hori egon izanagatik, orekari gehiegizko garrantzirik eman gabe, horrelako eraikuntzak egitera eraman zituen. Gaur egun, bestelako pentsaera bat dago", dio bigarrenak.

"HERRITARREI AHALIK ETA HERRIGUNE EROSO ETA IRISGARRIENA EGITEA DA HELBURUA"

Oreka eta bizi kalitatea

Xabier Unzuurrungak aspalditik esaten duen gauza da hiri erdiguneak bizirik mantentzeak izan behar duela helburu, eta horretarako hiritarrarengan pentsatu behar dela, haiek izan behar dutela erdigune.

Azken urteetako joerek horretara garamatzatela dirudi. Fabrika eremuak herri kanpoaldera eramaten hasi ziren; geroa, autoak erdiguneetatik desagertzen joan dira, eta herritarra eroso egon dadin espazioak sortzen saiatzen dira.

Olaia Etxenausia Arrasateko Udaleko Hirigintza Saileko lantaldean ari den arkitekto tekniko aretxabaletarrak "oreka" aipatzen du: "Gaur egun, ez dago jende uholderik, gaudenak gaudeta eta daukagun lur eremua daukagu. Orain, lur eremu hori hobetzen saiatzea da gure helburua. Oinezkoa, herritarra, eroso bizi dadin inguru ahalik eta jasagarri, irisgarri eta erosoena egin behar dugu. Espaloiak behar diren moduan jarri, plaza gogorak izan direnak biziberritu eta dena oreka baten barruan garatu behar da. Horregatik, gauza txikiak egiten dira, normalean, gutxika-gutxika oinezko eta hiritarrarendako espazioak irabaziz".

Ez dirudi, hortaz, hurrengo urteetan etxe-orratz edo dorre berririk ikusiko dugunik, baina batek daki, tendentziak eta uneen uneko joerak ere aldatuz doaz eta etengabe.



Kontzeizino ingurua (1981). FOTOS LASO / ARRASATEKO U.A.



Arrasateko Eguzki dorrea 1972an. FOTOS LASO / ARRASATEKO UDAL ARTXIBOA

Oñatiko erdialdea, homogenea

Oñatik ere jende asko jaso zuen 1960ko hamarkadan: 2.200 lagunetik gora hamar urtean. 10.500 biztanleak lehenengoz pasa zuen 1970an. Baina, herriak zabaltzeko aukera gutxi izanagatik edota plan orokor aurreratuago batengatik, herriaren erdiguneari oso homogeen eustea lortu zuen. "Oñatiko plan orokorra 1959an onartu zen eta bertan ezarri zen erdiguneko etxeek ezingo zutela eduki hiru pisuko altuera baino gehiago", kontatu du Xabier Zelaia, urteetan Oñatiko Udalean aparejadore lanetan jardun duenak. "Oñatik, berez, bere irteera naturala gaur egun Bidebarrieta aldera izango litzatekeena zeukan, baina,

gestio zailtasunak egongo zirela ikusita, hazi normetan pentsatuta ez zegoen aldera hazten amaitu zuen", jarraitu du Zelaia. Erdigunearen izaera mantendu nahian, honi itsatsita zeuden etxeen altuerak gehienez lau pisukoak izango zirela erabaki zen: "Agian, Oñatik hartu zuen jende kopuruari irteera emateko lurzoru arazorik egon ez izanak erabaki hori hartu ahal izatera eraman zituen ordukoak, baina horrela egin ziren Etxaluze eta gaur egun Abenida izena ezagutzen dena —Euskadiko etorbidea—. Bitxia da, gainera, izaera zaintze kontu hori: erdiguneari itsatsien dauden Etxaluzeko bi eraikinak hiru

pitakoak dira eta gainontzekoak, berriz, laukoak".

Bi solairuko etxeak

1988an ere erabaki garrantzitsu bat hartu zuen Oñatiko Udalak: "Ikusita hiru solairuko etxeak egitea ahalbidetzen zuela plan orokorrak, erdigunean zeuden bi solairuko etxeak bota eta hirukoak eraikitzen ez hasteko, edo bi etxe batera egiten ez hasteko, araua ezarri zuen, jendeak kontra egin arren, horrelakorik ezin egin ahal izateko. Jendearen haserrearen eragin zuen, egia da, baina herri barruaren izaera mantentzea lortu zuen".

Erabaki gogorrak, lurzoru zabala... baina Oñatiko erdialdeak homogenea izaten jarraitzen du.



ZABALIK

XABIER MUGARZA

Noranzko aldaketa?

Black friday deritzon egunean idazten ari naiz. Oraintxe irakurri berri dut Gipuzkoan bakarrik 200.000 banaketa inguru izango direla; beraz, ekintzaren eta diskurtsoaren arteko tartea txikitzen ari denik ezin esan.

Duela aste gutxi, Euskadiko aztarna ekologikoa 2,65ekoa dela zioen txostena atera zuen Eusko Jaurlaritzak; hau da, euskaldunok gure beharrak asetzeko Lurra bezalako 2,65 planeta beharko genituzkeela esan nahi du horrek. 2001etik hona aztarna hau txikitu dugula egia den arren, irakurritako horrek bide okerrean goazela adierazten dit.

Erosotasuna beste edozein faktoreren aurretik jartzen dugun honetan, politikoki zuzena den diskurtsotik oso urrun kokatzen gara gure egunerokotasunean.

Horrenbeste kritikatzin dugun sistema kapitalista elikatu besterik ez dugu egiten, sortzen dizkiguten hainbat behar

MUGIKORRAK-ETA GURE SEME-ALABEI ADINEAN GERO ETA LEHENAGO EMATEN DIZKIEGU

Eta gure seme-alabekin ere ez dakit zuzen ari garen; mugikorrak –telefonoz hitz egiteko ez, beste edozertarako–, smartwatchak eta bestelakoak, adinean gero eta lehenago ematen dizkiegu, benetan beharrezkoak diren beraiekin eztabaidatu ordez, behar berri horiei men eginaz.

Honi guztiari gizarte honen Jainko berria bihurtu den *berehalako asebetetze beharra* gehituz gero, buelta emateko panorama benetan zaila geratzen zaigu.

Katalunia, ultraeskuina, genero identitatea eta beste hainbat gai izaten ditugu hizpide, eta, beharbada, ahaztu egiten zaigu gure eguneroko bizitzeko erak norantz garamatzan.

Baliteke adinean 50erantz goazen honetan ezkortasunak beti izan dudan baikortasuna gailentzea. Baliteke nire alabentzako mundu hobe nahi izateak ezkortasun hori indartzea. Hala ere, mundu hobe bat posible dela sinetsi nahi dut. Hala izan bedi.

MARRAZKIZ



HANDIK ETA HEMENDIK

100/3.000

ARANTXA URRETABIZKAIA BEJARANO

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Azaroaren hasieran ospatu ziren Durangon Euskal Herriko feminismoaren bosgarren jardunaldiak. Lehenengoak 1977an izan ziren, diktadorea hil eta berehala.

Horrek esan nahi du aurten Durangon bildu direnak haien alaba eta bilobak direla. Amona gutxi ikusi nuen bertan.

Izan ere, ez dut datu zehatzik aurkitu lehen jardunaldi haietan parte hartu genuenon kopurua zehazteko. Beraz, memoriari egin behar diot kasu eta memoriak esaten dit ehunen bat izango ginela.

Aurten, antolatzaileek hiru milatan finkatu dute parte hartzaileen kopurua.

Bidean, lehen jardunaldi hartan plazaratutako aldarri asko lortu dira; adibidez, abortua eta dibortzioa.

Bidean, feminismo instituzionala sortu da eta horrek mugimenduan eragindako nahasmendua gainditu ondoren, aldarri berriak plazaratu dira, duela berrogei urte burutik ere pasatzen ez zitzaizkigunak.

Eta hori guztia aniztasuna galdu gabe, katea eten gabe.

Baina zenbakiek ez dute gertatu den guztia islatzen.

Berrogei urteotan, feminismoa kobazuloak,

katakonbak utzi eta egun argi betera irten da.

Entzuten dira oraindik feminismoaren kontrako topiko gezurtiak, baina ugariagoak dira "ni feminista naiz" esaten dutenak; behintzat, mundu bazter honetan.

Urruti dago oraindik gizonen eta emakumeon arteko eskubide berdintasuna, zerumugan, eta aurrerapauso bat ematen dugunean badirudi zerumuga ere urruntzen dela.

Gora dator marea eta behera ere egingo du halako batean.

Baina itsasoa beti egongo da hor.

Post gehiago 11. orrialdean.

goiena“

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Berezibar,
Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus


Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen albizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



LAGUNTZAILEAK





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Almodovar eta Amenabar dira faborito nagusiak"

AITOR ARREGI ZINEMA ZUZENDARIA

Eneko Azkarate Laspiur OÑATI
Zorioneko jarraitzen dute Aitor Arregik eta Moriartiko gainerako lankideek; izan ere, *La trinchera infinita*-k Zinemaldian lortu zuen onespenera gehitu zaizkio berriki ezagutera eman diren Goya, Feroz eta Forque sariketarako aipamenak. Duela hilabete zinema areto komertzialetan estreinatu zen filmak izan duen harrerarekin ere oso pozik da oñatiarra. **Donostia Zinemaldian filmik txalotuenetakoa eta sarituenetakoa izan ostean, orain Forque –hiru izendapen–, Feroz –6– eta Goya –15– sarietarako izendapenak etorri dira.** Oso pozik gaude. Goyetan ez genuen inondik inora espero horrenbeste izendapen. Zinemaldiak eragina izaten du gerora datozen sariketetan, baina ez ginen ausartzen zifra bat esatera. *Handia*-k 13 izendapen izan zituen. Eta *La trinchera infinita*-k 15 ditu! Duela urte bi, *Handia* izan zen izendapen gehien lortu



Aitor Arregi, Donostian, aurtengo irailean. NEKANE MUÑOZ

zituen; orain, 15 edukita ere, hirugarren gaude. Aurtengoa uzta ona da. **Pedro Almodovar eta Alejandro Amenabar zuzendariekin lehian ariko zarete. Ez da erronka makala.**

Ez, horixe. Haiek dira faborito nagusiak. Bi munstro dira, Oscar sariak dituztenak. Espainiatik kanpo, Frantzia, Ameriketako Estatu Batuetan, bereziki Almodovar, jainkoa da, inorekin parekatu ezin

daitekeena. Gainera, azken filma nahiko unanimea da asko gustatu dela. Ematen du bere urtea izango dela. Baina ez balitz Almodovarren urtea izango, Amenabar ere hor dago... Dena den, 15 izendapenen artean aukerak izan ditzakegula uste dugu, aktore emakume onenaren sarian, soinuan...

Goyen eta Almodovarren arteko harremana gorroto-maitasun harremana da.

Bai. Askok hitz egin da horri buruz. Mito ere bihurtzeraino. Eta horrek kalte baino gehiago, mesede egin ahal dio oraingoan. Ematen du Goyak zor diola gau magiko bat. **Zinema kritikoen txaloak eta laudorioak ez ezik, ikus-entzuleenak ere lortu ditu *La trinchera infinita*-k, urri amaieran estreinatu zenetik pelikularik ikusienetakoa baita. Daturik baduzue?**

Orain arte dauzkagun datuen arabera, ia 200.000 lagunek ikusi dute Hego Euskal Herrian eta Espainian. Euskal Herrian, Madrilén, hiriburuetan... oso ondo funtzionatu du. Milioi bat euro pasa batu da sarreraren bidez.

Zer da *La trinchera infinita*-k daukan onena edo nabarmenena eta zuri zeuri gehien gustatzen zaizuna?

Beldurraren kontzeptua zela erakusten duen eta horrek metaforatik daukana: denok izan gaitezke satorrak, edozein zentzutan, bizitzan zehar. Eta maitasun istorioa. Eta horrek ondo funtzionatu badu, bi aktore nagusien lan bikainagatik izan da.

Almodovarren *Dolor y gloria* eta Amenabarren *Mientras dure la guerra* filmetatik, oster, ze nabarmenduko zenuke?

Almodovar berezia da, autore berezia, inorekin konpara zein daitekeena. *Dolor y gloria*-k badauka puntu nartzisista bat, baina, era berean, Almodovarrek erakusten digu nolakoa den, bere gauza on eta gabeziekin. Hori ez da oso ohikoa. Hori apreziatzen dut. Bestetik, gidoi ona dauka. Bukaerako jokoa eta arilkatzeko modua jostalaria da; gustuko dut. **Eta Amenabarren filma?**

Egile moduan, estilo askotarikoa da, akademikoagoa, baina ez horren bakarra. Maisuki erabiltzen ditu baliabideak ikus-entzulea ukitzeko. Unamunoren familiarekiko hartu-emanaren zatiak hotz utzi ninduen; oster, Millan Astrain, Franco, haien lidergoa, sentimendu nazional hori nola kontatzen duen interesgarri irudi zitzaidan.

ITURRI ONETIK

'Ttap' aldizkari digitalak websaila estreinatuko du

Oraintsu Rikardo Arregi Komunikazio Saria jaso duen *Ttap* aldizkari digital multimedialak *Gorabeherak* websaila estreinatuko du laster. Hain zuzen ere, kamera era bertikalean jarrita grabatuta dago. Franco diktadorea, Jon Idigoras eta Marilyn Monroe dira sail horretan agertuko diren pertsonailetako batzuk. Kepa Errasti eta Nerea Arriola dira aktore nagusiak. *Ttap* eskuko telefonoetarako edo tabletetarako deskarga daiteke App Store eta Google Play dendetan.

ALBISTE IZAN ZEN

2005-11-30

Elgetako saihsabidea zabaldutun

Elgetako saihsabidearen lehen zatia ireki zuten. Elgetatik Kanpazarrerako irteera lotzen zuen Elorriorantz doan bidearekin, hainbat ibilgailuk herri barrua zeharkatzea saihesteko. Inaugurazio ekitaldian, besteak beste, Patxi Basauri Elgetako alkateak eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako ahaldu nagusiak hartu zuten parte. Gaur-gaurkoz, saihsabidearen bigarren faseak ez dauka eraikitzeke datarik.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Euskararen Eguna, sare sozialetan ere bai

Euskararen inguruko aldarrikapenez bete zen sarea martitzenean, *#EuskararenEguna* traolarekin:

@mreuskaldun: "Zaindu eta batez ere erabili. *#EuskararenEguna*".

@yaskmaansri: "Gaur, nere lehen *#EuskararenEguna* euskaldun berri bat bezala da. Eta benetan, euskaraz hitz egiten saiatzen baino hura ospatzeko beste formarik ez zait burutzen. Agian opari onena dela, denborak soilik esango dit".

@laramontilla: "Hizkuntzak herrien nortasunaren parte dira eta zaindu behar ditugu".



DEBAGOIENA ERALDATZEN

IONE ARDAIZ / AGIRRE LEHENDAKARIA CENTER

Eskala txikitik hasita, aldaketa konplexuen bila

Australian eman ditut azkenengo lau urteak, The Australian Centre for Social Innovation (TACSI) taldean lanean. TACSI South Australia estatuko gobernuak sortu zuen orain dela 10 urte. Lantalde hau bertan existitzen ziren erronka sozial eta ekonomikoei aurre egiteko moduak biztanleekin batera hausnartzeko eta lantzeko sortu zen. Gaur egun gobernutik independentea den taldea da eta berrikuntza soziala zein aldaketa sistemikoaren inguruko ekimenak jorratzen ditu; hau da, taldeak erronka konplexuei aurre egiteko moduak lantzen ditu.

Orain dela hilabete batzuk, maleta prestatu eta munduko beste puntatik etxera bueltatzeko bidaiari ekin nion. Agirre Lehendakaria Center-en (ALC-n) nabil lanean orain, berrikuntza sozialaren eta Berrikuntza Plataforma Irekien inguruko esku-hartze ekimenetan. Agirre Lehendakaria Center-en hiru lan-ildo jorratzen ditugu: euskal transformazioaren ikerketa; esku-hartze prozesuak berrikuntza sozialaren arloan; eta gure lanean jorratzen ditugun gaien partekatzea hitzaldi zein formakuntza bidez. Zentroaren helburua euskal gizartearen hurrengo transformazioa sustatzea da, giza garapen iraunkorra eta euskal kultura ardatz hartuta.

Aukerak, Debagoienez

Eta zer dira Berrikuntza Plataforma Irekiak? Guk ALCn ulertzen ditugun moduan: eragile, pertsona, metodologiak eta ekintzak elkar konektatzea tokian tokiko gizarteko erronka eta aukerei erantzuna emateko. Helburu nagusia gizartea eraldatzea da behetik gorako logika jarraituz. Hau da, komunitateak berak aldaketa gidatzea, eta ez bakarrik aldaketaren jasotzailea izatea.

Debagoiena 2030 ekimenean ikuspegi hau jarraitzen ari gara eta organikoki sortzen ari da Debagoieneko Berrikuntza Plataforma.

Ekimen honetan parte hartu dudana talde eta lanean egindako hausnarketetan oinarrituta, Debagoienak eskaintzen dituen aukeren artean aipatuko nituzke:

1. Debagoienak duen aberastasuna: naturala, geografikoa eta ekosistema soziala. Bailarak duen berrikuntza sozial ekosistema eta honek eraldaketa sustatzeko sortzen dituen baldintzak azpimarratzekoak dira. Hauek mundu mailan eta talde batzuetan erreferentzia dira jada, eta beste talde batzuetan erreferentzia izateko potentziala du.

2. Debagoiena bailarak duen tamaina edo eskala. Shareable mugimendukoek beren *Sharing cities* (Partekatzen duten hiriak) liburuan transformazio soziala aktibatzen eskalaren inguruan hausnarketa egiten dute eta hiri maila proposatzen dute horren hasiera puntu bezala. Beren liburuaren aurkezpenean, horrelako aldaketa konplexuak sustatzen eskala txikian hasi behar direla proposatzen zuten eta Debagoiena 2030 ekimenaren inguruan planteatzen ari diren erronkak bailara eskalan lantzeak hori ahalbidetzen du.

3. Lanaren inguruan dauden jarrerak: ekintzetara eta taldean lan egitera zuzenduta. Partaide guztien artean bisio partekatua edo jarraituko diren aukerak adostea esfortzua dakar. Baina behin

AZPIMARRATZEKOAK DIRA ESKUALDEAK ERALDAKETA SUSTATZEKO SORTZEN DITUEN BALDINTZAK



UNPLASH / GIMK

horiek adostuta, ekintzetara pasatzeko jarrera eta hau era kolaboratiboan egiteko joera dugula deritzot. Euskal kulturen errotuta dugun *auzolan* kontzeptua izan daiteke horren ardatz, bailara honetan dagoen urteetako esperientzia kooperatibista edo gure euskal gizarteak bizi izan dituen erronketan zehar sortu diren mugimendu sozialek ekarri dituzten eraldaketak tuta.

Erronkak, Debagoienez

Eta Debagoienez existitzen ahal diren erronkak, zeintzuk Euskal Herri osora ere zabaldu daitezkeen:

1. Pausoak argi ez dauden kasuetan aurrera egitea. Erronka konplexuei aurre egiteko prozesuetan, definizio argirik gabeko pausoak eman ohi dira eta aurreikusten ez diren erronkak ere sortzen dira. Orain arte landu diren esperientzietatik eta ikasi dugunetik, nola prestatuko

dugu gure burua prozesu berri hauetan parte hartzeko?

2. Abstrakzio gaitasuna eta epe-luzera begira aktibatzen has gaitezkeen anbizio handiko aldaketak. Gure euskal kulturen kosta egiten zaigu aukera eta ideia abstraktuak identifikatzea. Gure hezkuntzan eta lan munduan hori jorratzeko hausnarketa espaziorik ahalbidetzen ez dugulako izan daiteke, edo ukitu ezin dena baloratzen ez dugulako? Azken puntu honek indargune bat ere eskaintzen du, balio gabeko kontzeptu abstraktuak ekiditeko eta testuinguruan soilik zentzua duten prozesuak jorratzeko.

3. Gure arteko komunikazio argia. Gure euskal kulturen beste erronketako bat pertsona zein taldeen arteko komunikazioan datza eta, batez ere, aurrean ditugun erronka konplexuei aurre egiteko sortu beharko dugun komunikazioan. Nola

sortuko ditugu erronka berriak komunikatzeko moduak, esaterak eta hitz berriak? Nola izango gara gai egoera berri hauetan sentituko ditugun horiek gure artean partekatzeko? Londresko UCL unibertsitatearen parte den Institute for Innovation and Public Purpose (IIPP) taldean, gure Debagoiena 2030 ekimenaren kideak direnak, erronka berri hauei aurre egiteko egoeretan erabiliko ditugun hitzak jasotzen dituen hiztegi berri bat osatzen hasi dira; beharbada, gure gure testuinguruan egin beharko dugun zer bait?

Debagoiena 2030 ekimenak eta Berrikuntza Plataforma Irekien ikuspuntu honek mahai gainean jartzen ditu aukerak eta erronkak. Gure inguruan sustatu nahi ditugun aldaketak eta transformazioak lantzeko markoa eskaintzen du honek guztiak, herritar guztiongan sortuko diren mugimenduak konektatuko dituen transformazioa.

Ekin diezaiozun eraldaketa bideari guztiok elkarrekin nahi dugun etorkizun hori eraikitzeko.

EKIN DIEZAI OGUN ERALDAKETARI GUZTIOK NAHI DUGUN ETORKIZUNA ERAKITZEKO

GURE KULTURAN KOSTA EGITEN ZAIGU AUKERA ETA IDEIA ABSTRAKTUAK IDENTIFIKATZEA

GUTUNAK

Erreka zikintzaileei egurra!

PITER ENCINAS

EKOLOGISTA
ARRASATE

Duela 30 urte *Erreka zikintzaileei egurra!* lelopean aldarrikatzen genuen egun gertatzen ari dena: azaroaren 26an, Aramaio erreka berriro kutsatuta zetorren.

Urriaren 5ean, osoko bilkurara joan nintzen, udalbatzari esateko iraila ezkero bi aldiz kutsatu dutela Aramaio erreka. Udal Gobernuari galdetu nionean ea zerbait zekien ala ez, honek, konpromisoa hartu beharrean, baloia kanpora bota zuen. Udalak ez du konpetentziarik isunak ipintzeko, baina baditu baliabideak pertsona bat errekarat bidaltzeko, ur pixka bat hartzeko eta gero analizatzera bidaltzeko.

Emaitzak ikusiz gero, jakin dezakegu zer den urak zekarrena, eta horrekin Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko eta Industriako sailetara bidal dezake, baita Aldundira, Ingurumen Sailera eta Ur Partzuergora ere.

Udalak gabezia ekologiko handia du. Hutsune hori ez da betetzen urtean behin zuhaitz eguna ospatuta; politikari arduratsu batek ez luke besoak gurutzaturik geratu behar, zerbait egin beharko luke; hala ez bada, bere dimisioa eskatzen dut.

Eskola txiki baten onurak

SARA PEÑALBA

PONPORTOLA GURASO TALDEA
OSINTXU

Zergatik erabaki genuen alaba Osintxuko eskolan eskolaratzea? 2 urte bete berri zituenerako beste haur batzuekin harremantzeko beharra zuela igarri genuen, baina eskola handi batera eramatearen ideiak ez gintuen konbentzitzen. Lagun batek semea Osintxura eramaten zuela azaldu zidan eta orduan hasi ginen aukera horri bueltak ematen, bertan eskolaratzea erabaki genuen arte. Adin desberdinen arteko hartu-emanak eta eskolaren txikitasunak erakarri gintuen gehien; txikitasun honek gurasoen parte hartze zuzenagoa eta auzoarekiko lotura errazten ditu.

Orain, bigarren semea bertara eraman nahiko genuke eta izugarri poztu gaitu auzoan gure asmo bera duten guraso taldearen ilusio eta gogoak. Ponportola Guraso Taldea sortu dugu elkarrekin eta gure asmoa proiektuari etorkizuna ematen jarraitzea da; kalitatezko hezkuntza batera bidean, Osintxuko eskolak hainbat aukera ematen dituela iruditzen zaigulako. Interesa duen edonori gurekin harremanetan jartzeko dei egiten diogu! Gure kontaktua: ponportola@gmail.com.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefona eta nortasun agiriaren zenbakia. Helarazteko: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HANDIK ETA HEMENDIK

Geldialdia hezkuntzan

GARIKOITZ GOIKOETXEA

[HTTPS://LABUR.EUS/LHW0Q](https://labur.eus/lhw0q)
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Kritikatzeko moduko ezaugarri asko ditu hezkuntzako PISA azterketak: hiru aztergai soilik ditu, testuingurua ez du aintzat hartzen, ranking bihurtzen du hezkuntza, pisu neurrigabea hartu du, ikuspegi ekonomizistatik kanpoko konpetentziei ez die erreparatzen... Bai. Baina, horiek onartuta ere, joera bat erakusten du, beste ikerketa batzuekin bat datorrena: emaitzetan galera izaten ari dela hezkuntza.

Zalaparta eragin zuten orain hiru urteko datuek, bereziki Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan: galera nabarmena zen. Galdutakoa ez da berreskuratu, aurreko urteetakoak baino txarragoak baitira azken emaitzak, eta Nafarroak egin du orain behera nabarmen. Zehatz aztertu behar da zer gertatu den: diagnostiko partekatu bat ondu, nork bere iritziak eta ardurak mahai gainean jarri. Jaitsiera ez da Euskal Herrikoa bakarrik.

Berritasun premia badagoela iradokitzen dute jaitsierek. Aldaketa batzuk gertatu dira: ikasleen ezaugarri soziodemografikoak aldatu egin dira; gero eta ikasle gehiagok ikasten dute euskaraz, nahiz eta etxeko hizkuntza erdara izan; irakasleen batez besteko adina gero eta helduagoa da, eta lantaldean aldaketa

handiak izango dira datozen urteetan.

Aintzat hartzeko aldaketak dira, egokitzen eskatzen dutenak. Eztabaida handiko garaia dator hezkuntzara, eta ezinbestekoa da erronka horiei guztiei ahalik eta erarik osoenean erantzutea.

Zizel

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

[HTTPS://LABUR.EUS/IS7HC](https://labur.eus/is7hc)
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Zer irudi datorkigu gogora *Euskal Herria* diogunean?

Larre berdeak, etxe zuri, teilak gorriak?

Ezkila gabeko elizen eremu emankorra?

Kaia barrenean, ontzi txuri polit bat uraren gainean?

Niri ez behintzat adreilu gorri egindako etxe marroixka txikiak eta lur hautsez beteriko kale idorrak; zikoinen habiak kanpandorreetan.

Badakidan arren hori ere badela.

Baina larunbatean neure buruari ere traizio egin nion autoz Tuteran sartzen gindoazela paisaia horiek ikustean:

"Hau ere Euskal Herria da?".

Zizelkariak dokumentalean baietz dio Edurne Leon Sanchez protagonistetako batek.

Eta baietz, jakina baietz.

"Tutera ez da berdea, Tuteran ez da euskaraz hitz egiten...", eta hain justu horrek egin diela kalte hainbat urtetan: "Saiatu izan gara gure gizartea eta gure

herria aldatzen ezaugarri horiek betetzeko eta euskal herritarrak izateko".

Baina ulertu dute ezetz: beharbada, hain justu, ezaugarri horiek betetzen ez dituztenak Euskal Herriaren iruditeriatik kanporatu ditugunok aldatu behar dugula pentsatzeko modua: "Apurto behar dugu behingoz Euskal Herriak betidanik izan dituen ezaugarri horiekin".

Eta haiei entzun: "Gauza asko ditugu esateko".

Eta nola ez dituzte ba izango.

Horretaz guziaz dihardu larunbatean Tuteran estreinaturiko dokumentalak. Horretaz guziaz, baina baita askoz gehiagori buruz ere.

Euskal Herriko ertz geografikoetan euskaldun sortu eta hazteaz, musika eta kultura betiko moldeetatik atera eta sortzeaz, gorputza plazaratzeaz, gazte antolakuntzaz, guzia zerotik eraikitzearen ilusioaz, Euskal Herria irudikatu eta amesteaz...

Bakoitza bere egunerokotasunetik (eta era berean elkarrekin) bidea marrazten agertzen dira dokumentaleko sei zizelkariak.

Tuteran eman zuen lehen zizel kolpea, eta orain Euskal Herriko gainontzeko txokoetan bidea egitea baino ez zaio gelditzen.

Gubia kolpe bakoitzeko, Euskal Herria zizelkatzeko.

Post gehiago 8. orrialdean.

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBERA





Bi gaztetxo Erguingo eskaileratan; bertako igogailurako da inbertsio handiena. XABI GOROSTIDI

5.355.000 euro inbertsioetarako

Abenduko osoko bilkuran onartuta geratu dira 34.829.173 euroko 2020ko udal aurrekontuak; Udal Gobernuak alde botatu du eta oposizioak, aldiz, aurka. %15,3 inbertsioetara bideratuko dute; batez ere, mugikortasunarekin lotutako proiektuetara

Xabi Gorostidi ARRASATE

Martitzenean, Euskararen Nazioarteko Egunean, egin zuten abenduko osoko bilkura, eta gaiari buruzko adierazpen instituzionala irakurriz hasi zuten bilera. Aipatzea aspaldiko partez bilkurako interbentzio guztiguztiak euskaraz egin zituztela.

Azken unera arte, negoziatzen

Agintaldi berriko lehen aurrekontuek bazituzten alde aurretik aldeko hamabi boto, EAJrenak eta PSE-EErenak, baina azken unera arte Elkarrekin Arrasate-ren abstentzioa lortzen ahalegindu ziren Gobernu kideak. Hiru bilera egin zituzte –azkena martitzen goizean bertan– akordioa egiteko, baina ez zen posible izan. "Elkarrekin Arrasatek hamar proposamen egin zizkigun, eta horietako zazpirekin ados geunden. Baina bideratu beharreko diru kopuruetan ez gara ados jarri", azaldu zuen Maria Ubarretxenak. Zera esan zuen negoziaketari buruz Elkarrekin Arrasateko Igor Urizarrek. "Itxaropen handirik gabe hasi genituen negoziaketak, eta, hala ere, azken unera arte ahalegindu gara. Baina ezin genuen gure abstentzioa apur batzuen truke saldu. Aurrekontuaren %2 nahikoa zen akordiora heltzeko, baina ez dute horren alde egin".

Oposizioko alderdi nagusi EH Bilduren eta Gobernuaren artean, ordea, ez da negoziatziorik egon. EAJko bozeramaile Anuska Ez-

kurrak azaldu zuen haien partez ez zaiela "proposamenik iritsi", eta negoziatzeko bilera bat proposatu zieten arren ez dutela EH Bilduren erantzunik jaso. EH Bilduko Maider Morrasek erantzun zuen ez dela egia ez dutenik proposamenik egin, eta Ogasun batzorde bateko akta bat begiratzeko eskatu zion Ezkurrari, non EH Bilduk 25 galdera egiten zituen Gobernuaren aurrekontuen inguruan. "Aktak hor daude. Gure galdera bakoitzak proposamen bat zuen atzean, baina zuen erantzunak hauek izan dira, beste behin: 'Hori ez dugu onartzen'; 'Ez, hori ikusiko dugu'... zuen erantzun horietan ez dugu negoziatzeko borondaterik ikusi".

Hamabi alde, bederatzi aurka

Aurrekontuak onartu aurretik, alderdiek interbentzioak egin zituzten horiei buruzko iritzia emateko. EAJko bozeramaile Anuska Ezkurra izan zen hitza hartzen lehena: "Zuhurrak, errealistak eta eraikitzaileak dira gaur onartzen digunak: zuhurak, Udalaren baliabideak mugatuak direlako; errealistak, pertsonal eta zerbitzu gastuek zati handiena hartzen dutela dakigulako; eta eraikitzaileak, Arrasaterentzat beharrezkoak diren inbertsioetarako 5.355.000 euro dituelako". Horien artean, Juan Arzamendi –519.000 euro, Kultura –500.000 euro– eta Erguingo igogailua –2.300.000 euro– nabarmendu zituen.

Aurrekontuei buruz alderdi politikoaren balorazioak

MARIA UBARRETXENA EAJ

"Inbertsioak nabarmendu nahi ditut: hor dago Erguingo igogailua amaitzeko diru partida, edo Araba etorbideko lanak egiteko dagoena, bidegorria barne hartuko duena. Gure herri proiektuari jarraipena emateko dauden partidak ere badaude, Juan Arzamendi, Kultura... aurreko agintalditik datozen proiektu hauek bukatzea oso garrantzitsua da guretzat; batez ere, arrasatearrentzat behar-beharrezkoak diren egitasmoak direlako. EH Bilduk ez digu proposamenik helarazi, baina eurek prentsan zabaldutako Emakume Txokoaren lekualdatzearena barneratu egin dugu. Elkarrekin Arrasatekin hiru bilera izan ditugu, eta azken unera arte euren abstentzioa lortzen ahalegindu gara".

MAIDER MORRAS EH BILDU

"Aurka botatu dugu, formengatik –15 egun eman dizkigute ekarpenak egiteko– eta edukiagatik. 15 egun ematearena ez da profesionala, ez baita nahikoa arrasatear guztion dirua urte oso batean nora bideratu erabakitzeko. Edukiaren aurka egoteko hauek dira, besteak beste, gure argudioak: zinegotzien dietak igo eta alderdien asignazioak jaitsi dituzue, pobreziaaren aurka egiteko 50.000 euro gutxiago daude, azokarako 10.000 euro gutxiago, ez duzue zehaztu Juan Arzamendi musika etxearen mantentze-gastuak nork ordainduko dituen, ez dago inongo igoerarik merkataritzari laguntzeko, segurtasunarentzat ez duzue ezer aurreikusi, eta jaietako aurrekontua jaitsi duzue zero zor egoera eduki arren".

OSCAR GARCIA PSE-EE

"Aurrekontu zuhurak eta errealistak direla iruditzen zait. Pertsonal eta zerbitzu gastuek hartzen duten dimentsioarekin baliabide mugatuak ditugu inbertsioak egiteko, aurrekontu osoaren %15 inguru. Baina kopurua mugatua den arren, badugu zertan inbertitu eta Arrasaterentzat aurrekontu onak direla esango nuke. Inbertsioek izaera soziala dutela nabarmendu nahiko nuke; batez ere, auzoetan egiten diren inbertsioek. Hor daude, adibidez, Erguingo igogailuaren partida, oso esanguratsua eta potoloena dena, baina ezin daiteke ahaztu ezta San Andres Auzoko Araba etorbideko lanak amaitzeko partida. Gobernuan gaudenetik auzoek asko egin dute aurrera".

IGOR URIZAR ELKARREKIN ARRASATE

"Aurkeztu diren aurrekontuak sozialki onartezinak dira. 2020rako 1,4 milioi gehiagoz euren soldata %14,5 igotzen dute eta gizarte politikari ez zaie igoeraren %0,3 ere bideratzen. Bitartean, prekarietatea gogor jotzen ari da Arrasaten, 3.600 pertsona pobrezia muga azpitik eta krisi ekonomiko baten atarian. Langileria zerga eta tasak igo dizkie eta bitartean enpresa handiek zerga gutxiago ordainduko dute. Alokairu soziala, enplegu plana, larrialdi laguntzak areagotzea eta beste hainbat proposamen egin ditugu... Aurrekontutik %2 erabiliz beharra duen askori apur bat laguntzea. Ezezkoa jaso dugu. Dirua badute eta badago, baina enpatiarik ez".

EH Bilduk osorako emendakina aurkeztuko duela azaldu zuen Morrased: "Formengatik eta edukiatik aurka botatuko dugu. 15 egun eman dizkiguzue urteko gairik garrantzitsuen lantzeko, eta hori ez da nahikoa, ezta profesionala ere". Edukiaren aurka lerratzeke hamar argudio eman zituen, besteak beste: pobreziaaren aurka egiteko 50.000 euro gutxiago jartzea, azokarako 10.000 gutxiago, merkataritza estrategikotzat jotzea eta partida ez handitzea, kiroldegira berrirako partidariak ez egotea "hauteskundeetan hainbeste aipatu eta gero" eta segurtasuna hobetzeko igorarik ez izatea –droga-menpekotasunari aurkako eta komertzioetan lapurretariak ez egoteko inbertsio falta aipatu zituen–.

Hona Elkarrekin Arrasateko Urizarren irakurketa: "Aurrekontu honek gizarteko ezberdintasunetan sakontzen dute, eredu pribatizatzaile bat egonkortuz, fiskalitate atzerakoa aurrera eramanez eta herriko sektore pobreenen egoera larrituz. Aurrekontua %4,14 handitu da iaztik hona, baina herriko behar-tsuenei tasak eta zergak igotzen zaizkie". Botatzeko orduan, Gobernuaren hamabi botoekin onartu zituzten aurrekontuak, EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek aurka botatu arren.

Batzordeak vs osoko bilkura

Aurreko bilkuretan bezala, EH Bilduko bozeramaileak galdera zehatzak egin zizkion Gobernuari –Udaleko plantilla organikoari, 2020ko lanpostuen zerrendari eta kreditu espedienteen aldaketari buruz–, eta hauek batzordeetan erantzunak ematera mugatu ziren. "Eskubidea osoa dugu galderak osoko bilkuran egiteko, benetan uste dugulako herritarrei erantzunak emateko leku aproposa dela", azaldu zuen Morrased. Hona Ezkurraren erantzuna: "Gure ustez, gai horiek batzordeetan jorratu behar dira, eta bertan emango dizkizugu erantzun guztiak. Ez nauzu konfrontazio horretan aurkituko".

Boliviari buruzko mozioa

Bertan izandako "estatu kolpea" salatzeke proposatu zuten EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek, baina ez zen onartu. EAJk aurka botatu zuen eta PSE-EE abstenitu egin zen; bederatzinako berdinketarekin, alkatearen kalitatezko botoak eragin zuen ez onartzea.

2020ko udal aurrekontua

Mugikortasuna eta jasangarritasuna (inbertsioak eurotan)

- **2.298.527** Erguingo igogailua egiteko lanak.
- **596.959** Araba etorbideko lanak, bidegorria barne.
- **100.000** *Ekoboulevard*-a lanak egiten hasteko.
- **40.000** Santa Teresa auzoko igogailuaren proiektua idazteko.
- **30.000** Landa eremuko udal jabegoko lursailen mugaketa.
- **10.000** Etxezarreta basoaren berreskurapena.

Beste partida batzuk (eurotan)

- **570.000** Etxez etxeko laguntza zerbitzua.
- **519.000** Juan Arzamendi Musika Etxea; 219.000 euro lanak bukatzeko eta 300.000 euro ekipamendurako
- **500.000** Kulturola erakina birgaitzeko obrak.
- **350.000** Kultur ekintzak.
- **300.000** Babesgabeke egoerei aurre egiteko zerbitzua.
- **138.803** Euskal komunikabideei dirulaguntzak.
- **123.550** Musakolako gimnasioko aholkularitza zerbitzua.
- **120.000** Berdintasun Saileko ekintzak.
- **100.000** Langabeak kontratatuzko laguntza.
- **100.000** Hezkuntza eraikinetan inbertsioak.
- **88.374** Euskara dirulaguntzak.
- **80.000** Kirol inbertsioak egiteko.
- **80.000** Haurren Kontseiluak proposatutako *parkour* parkea.
- **75.000** Auzoetako jaietarako dirulaguntzak –iaz baino 7.000 euro gehiago–.
- **68.000** Udal ekintzen euskarazko zabalkundea.
- **57.000** Indarkeria matxistaren kontrako bigarren plana egikaritzea eta plan operatiboa martxan jartzea.
- **68.000** Udal ekintzen euskarazko zabalkundea.
- **60.000** Gazteen emantzipaziorako alokairu programa.
- **58.000** Tutoretzapeko etxebizitzaren laguntza zerbitzua.
- **57.000** Indarkeria matxistaren kontrako bigarren plana egikaritzea eta plan operatiboa martxan jartzea.
- **50.000** Alde zaharreko hirigintza plan berezia aldatzeko prozesua.
- **44.345** Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearekin hitzarmena.
- **42.000** SHREC klima aldaketaren inguruko Europako proiektua.

Enpresa Batzordea, "borrokan"

260 udal langile ordezkatzeko dituen Enpresa Batzordeko Maite Barreña presidentek adierazi zuen Gobernuak ez duela eurekin negoziatu nahi. "Guk ez dugu Eudelekin ezer negoziatu nahi, Arrasateko Udalarekin baizik. Guretzat Eudel ez da erreferentzia bat". EH Bilduri ere zuzendu zitzaion, esanez eurak ere Eudelen parte direla. "Udal langilerik gabe, ezin dituzue zuen udal politikak gauzatu, eta borroka plangintza bat jarriko dugu martxan". Honela azaldu zuen Ubarretxenak zein puntutan dauden negoziaketak: "Lau aldiz batzartu gara. Eudelek gauza batzuk negoziatzeko tarte eman digu, eta adostasunak lortu ditugu, adibidez, lan egutegiari dagokionez, aitasun baimenei dagokienez eta jaiegunei dagokienez. Baina soldata igoerak ez negoziatzeko eskatzen digu Eudelek, eta hori errespetatuko dugu".



Barreña, politikariei zuzentzen. X.G.



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

'Patxamama'

Elikagaien sozialismoa zioten 30 urte dela, printzipioz eta printzipioengatik ingeniariak eta maistrek artzaintzara salto egin zutenean. Balore sendoak behar dituzu izan, horrelako erabakiak hartzeko. Egun, bagoaz bidea berregiten, gutxi batzuen borrokari esker, edo halabeharrez, beste zenbait gaietan lez. Zer egin dezakegu artzain-nekazari izan gura ez dugunok?

Badirenei, naturarekin harmonian bizi direnei, lagundu eta haiekin orekan bizitzeko zubiak eraiki, *a-z-o-k-a-ra* joanaz, bertako produktuak ekoitzi eta kontsumituz eta behar beste baino gehiago ez erosiz eta ezta hondatuz.

Alegia, ondo jan, jaten emateko.

Naturak gu onartzea nahi badugu, umiltasunez jokatu beharko dugu eta instituzioek egiten ez dutena, lurrarekin konektatzen gaituzten pertsona horien biziraupena bermatuz eta babestuz! Gure lagun Juanjo, edo Ane, edo Mariasun, edo Idurre eta Nerea, edo Rakel, edo Tomas... eta beste hainbatek eskuak luzatzen dizkigute, ama lurrarekin konexioa gal ez dezagun.

Guk haiena kontsumituz, haiek gu eutsiko gaituzte.

GORA ETA BEHERA



Iturripeko pilotalekuekiko errespetu gutxi

Irakurle batek bidalitako argazkia da, non pilotaleku txikiko atzealdean piztutako su baten arrastoak azaltzen diren. Suak pizteaz gain, frontoi barruan txiza sarri egiten dutela salatu dute, eta halako baldintzetan ezinezkoa dela haurrekin bertara jolastera joatea.



GOIENA

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Jose Luis Iñarra pasealekuan eta Santa Marinaran aste honetan hartutako irudiak. XABI GOROSTIDI

Santa Marinaran eta Jose Luis Iñarran hobekuntzak

725 herritarrek eman dute botoa 2019ko aurrekontu parte hartzaileetan eta bi leku horietako hobekuntzak izan dira boto gehien jaso dituztenak. Horiez gain, bidegorrian komun publikoak jarriko dituzte, 250.000 euroko aurrekontua gainditu arren

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasatearrek erabaki dute jada zertara bideratuko diren Udalak euren proposamenetarako jarritako 250.000 euroak.

2019ko aurrekontu parte hartzaileetan 113 proposamen egon dira aukeran, eta azaroaren 24ra arte zabalik egon den prozesuan 725 herritarrek eman dute botoa, gustukoena hiru proposamenen artean zortzi puntu banatuz: lehenari bost, bigarrenari bi eta hirugarrenari bat. Eta, kasualitatez, hiru izango dira aurrekontu horren baitan Udalak 2020an zehar egingo dituen esku hartzeak.

Jose Luis Iñarra

Musakola auzoa eta Monterron parkea lortzen dituen Jose Luis Iñarra pasealekuan hobekuntzak egitea izango da horietako bat. Hango espaloiak konpontzea eta jolas-parkea berritzea izango dira zeregin zehatzak. Hori zen herritarrek proposatzen zuten esku-hartzea, eta, proiektuaren

bideragarritasun teknikoaz aztertu ostean, 100.000 euro bideratuko dituzte hobekuntza lanak gauzatzeko.

Santa Marina

Auzo garai horretako egokitza-penak izan dira babes gehien jaso duten beste proposamen bat.

Gune atseginagoa izateko asmoz, bertako pilotalekua, haur parkea, espaloiak eta bideak hobetzea zen, besteak beste, herritarrek proposatzen zutena. Hala, proiektuaren bideragarritasun teknikoaz eta ekonomikoaz aztertu ostean, Arrasateko Udalak 35.000 euro jartzea erabaki du aipatutako hobekuntzak egiteko.

**BOTO KOPURUA
HANDITZEA ZEN
ERRONKA, ETA IAZ
BAINO 74 BOTO
GEHIAGO JASO DIRA**

Komunak bidegorrian

2018an hiru proiektu irten ziren aurrekontu parte hartzaileetatik, eta aurten ere halaxe izango da. Hirugarren egitasmoa bidegorrian komun publikoak jartzea izango da, nahiz eta ez duten zehaztu zein bidegorri zatitan jarriko dituzten zehazki.


Beste bi proiektuek 135.000 euro hartuko dituztenez, gainontzeko 115.000 euroak komunak jartzera bideratuko dituzte.

Parte hartzea, gora

Aurtengo aurrekontu parte hartzaileetan botoa emateko epea ireki zen egunean prentsa agerraldia egin zuten udal ordezkariak. 2019an herritar gehiagok botatzeko erronka aipatu zuten bertan, eta hori lortzeko botoa fisikoki emateko gune batzuk jarriko zituztela iragarri zuten. Ahalegin horrek fruituak eman ditu, eta lehen edizioan baino boto 74 boto gehiago jaso dituzte: 184 gune fisikotan (%25) eta 541 udal webgunean (%75).

Sare sozialei buruzko tailerrak AHEko gurasoen eskutik

Teknologia berriei eta sare sozialei buruzko bi tailer egingo dituzte Arrasate Herri Eskolan, bertako guraso elkarteak antolatuta. Erguingo Eskolako 4 E gelan egingo dituzte, hilaren 9sn eta 12an, 18:00etatik 19:30era. Saioak gazteleraz izango dira eta interesa dutenek izena eman behar dute eskolazkanpokoekin-zaki1@gmail.com helbidean.



Gazte bat sare sozialetan. X.G.

Mozambikeren egiten duena plazaratuko du Mundukidek

Abenduaren 10erako, martitzena, hitzaldia antolatu dute Kulturaten, 18:30ean, eta Harreman elkarteko Andoni Uribetxebarriak, Mundukideko Mari Luz Tomek eta Hiruatxeko Oihana Arietalezbeaskoak hartuko dute hitza.

Ekitaldia borobiltzeko, Txor-bela Otxoteko lagunek kantaldia egingo dute bukaeran.



Mozambikereko bi nekazari. MUNDUKIDE

Txatxilipurdik erabili gabeko jostailuak batzen jarraituko du

Abenduaren 14an egingo den Jostailu Truke Egunerako aste-bete geratzen da, eta hainbat hitzordu jarri dituzte Txatxilipurdiko lagunek jostailu bilketarekin jarraitzeko. Martitzenean, hilak 10, Herriko Plazan egongo dira, eguaztenean Seber Altuben eta Biterin eta egunean Herriko Plazan osterera ere. Orduetgia: 17:00etatik 18:30era.

Beste 15.000 euro jarriko ditu Udalak Mozambikerako

Hori gauzatzeko, hitzarmena sinatu zuten, azaroaren 29an, Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak, Mundukide Fundazio-ko Josu Urrutiak eta Harreman gobernuz kanpoko erakunde-ko Javier Ruiz de Munain ordezkariak. Arrasateko alkateak Mozambikeren egiten duten lana goraiatu du, eta proiektuaren garrantzia azpimarratu.

OHARRAK

Pentsiodunak

Astelehenean elkartuko dira, 12:00etan, Herriko Plazan, euren aldarrikapenekin jarraitzeko.

Hutsuneak

Gabonetan gertuko kideen hutsuneak sentitzen dituzten horiei laguntzeko, hitzaldia antolatu du astelehenean San Felipe Elkarlaguntzak; 18:30ean Kulturaten.



Ford Kuga 2019 Edition

18.350€-tik guztiz hornituta

FCE Bank-en finantzaketa hilabete amaiera arte



**GRUPO
EASO
MOTOR**

www.grupoeasomotor.com

Lintzirin-Olartzun
A8 salida 4B N1 a Irún
Polígono Lintzirin, 10
Teléfono 943 260 426

Lasarte-Oria
Pabellón 2
(Salida N1, nº 451)
Teléfono 943 376 753

Beasain
Automóviles Mujika
Carretera N1, Km 419
Teléfono 943 887 400

Irún
Vertiz
J. Thalamas, 48
Teléfono 943 629 200

Arrasate
Automóviles Mugarri
C/San Andrés, 6
Teléfono 943 790 744

Ford Kuga gama, aukera barik: WLTP, ziklo mistoaren kontsumoa 6-9,9 l / 100 km. WLTP, CO2 emisioak: 158-224 g/km (NEDC, 136-204 g/km). Indarrean dagoen araudiari egokitutako neurriak. CO2 emisioen balioak aldatu egin daitezke hautatutako ekipamenduaren arabera. NEDC balioak izango dira ibilgailua eskuratzearrekin loturiko fiskalitatea kalkulatzeko balio dutenak. Kuga Trend 1,5 EcoBoost 88 kW (120 ZP). Eskaintzak hau guztia baimen hartzen du: BEZa, garraioa, IEDMT -garraio bide batzuek izaten duten zerga berezia, autonomia-erkidegoen arabera aldatzen dena; hortaz, komeni da kasu bakoitzean aztertzea-, sustapen-deskontuak, kontzesionarioaren ekarpena eta deskontua FCE Bank PLC SE-rekin finantzatuta Ford MultiOpcion bidez, gutxienez 12.000 euroko finantzaketarekin eta gutxienezko iraupen-konpromisoa 25 hilabetekoa izanda. Kreditu-balorazioaren arabera operazioa. Eskaintza ballagarria hilean eskatutako eta matrikulatutako autoentzat. Iragarri honetan agertzen den modeloak ez dauka zertan bat etorri eskaintzen den autoarekin. Penintsulan eta Balear uharteetan ballagarria hilabete bukaera arte. Ez da bateragarria beste deskontu batzuekin. Ford.es.

"Neguko triatloia probatuko dut aurten"

ENERITZ URRUTIA ATLETA

Antxintxika taldeko kidea da duela bi denboralditak eta duatloi eta triatloietan parte hartzen du arrasatearrak. Hurrengo urtera begira, erronka berriak ditu

Amaia Aranegi ARRASATE

Eneritz Urrutia arrasatearrak bi denboraldi daramatza triatloi eta duatloietan Antxintxika taldeko kide, eta aurten erronka berriak ditu aurretik.

Zein izan da honaino iristeko egin duzun bidea?

Duela lau urte, Gasteizko Ironmana ikustera lagundu nion lagun bati. Orduan, korrika eta bizikletan ibiltzen nintzen. Triatloia egiten ikusi nituen eta nik ere hori egin nahi nuela konturatu nintzen. Hortik aurrera, denetarik egiten hasi nintzen: korrika, bizikleta, igeriketa... Baina momentu batean, mundu honetan hasteko entrenatzaile baten beharra nuela konturatu nintzen. 2017an, entrenatzailea izan nuen, baina ez nengoen talde baten barruan, triatloietan bakarrik hartzen nuen parte. 2018an, Antxintxika taldean sartu nintzen. Geroztik, duatloiak eta triatloiak egiten ditut. Duatloiak denboraldi-aurrean egiten ditut eta triatloiak, berriz, denboraldian.

Nolako entrenamenduak egiten dituzu?

Denboraldian nagoenean, eguneroko bi orduz entrenatzen naiz: bizikleta, igeri, korrika eta gimnasia. Hilabeteetan, egun bat izaten dut libre. Denboraldia



Eneritz Urrutia, Zumaiaiko triatloian. ENERITZ URRUTIA

apirilean hasi eta urrian bukatzen da. Neguan Astunen eski monitorea egiten dut lan. Horregatik hartzen ditut duatloiak denboraldi-aurre bezala, gerora begira, bestela, oso luzea egiten baitzait denboraldia. Apirilean triatloiekin hasten naiz eta duatloiak denboraldi-aurre bezala hartzen ditut. Aurten, berrikuntza bezala, neguko triatloia probatu nahi dut, otsail edo martxo aldean. Probatu egin nahi dut, zer den ikusteko. Gustatu egiten bazait, denboraldia beste modu batera planteatzea izango litzateke.

Zein izan da orain arte egin duzun lasterketarik bereziena edo gehien gozatu duzuna?

Bitxia da, baina gehien gozatu dudana lasterketa aurten izan dudana lesioaren ondoren egin dakoa da. Bizikletan nindoan eta auto batekin istripua izan nuen. Horren ondorioz, denboraldiko lehenengo zatia lehiaketetan parte hartu gabe egon naiz eta bueltan egin dudana lehenengo lasterketa, ez dakit izan zen beste modu batera hartu nuelako edo gutxi entrenatu nintzelako, berezia izan

zen. Ekainaren 30an izan zen, Onditz Donostiako triatloia. Jausi ostean beste txip batekin nengoen eta asko gozatu nuen lasterketa. Hortik aurrera ere disfrutatu ditut lasterketak, bakoitza desberdina da, lasterketa bakoitzak bere berezitasunak dauzka. Baina bizitzan gehien markatu nauen lasterketa hori izan zen.

Euskal Herritik kanpo ere ibiltzen zara lasterketetan.

Bai; hasieran, triatloian hasi nintzenean, fobia nion herrian bertan lehiatzeari. Herriko lasterketetan parte hartzeak beti sortu izan dit beldurra. Hasieran, gehienbat, kanpora joaten nintzen lehiaketetan parte hartzera. Triatloian parte hartu nuen lehenengo aldia Madrilen izan zen. Gainera, Madrilen, adibidez, urtero egiten den emakumeen maratoi erdian parte hartzen dut.

Beraz, herrian lasterketak egitea ez duzu oso gogoko?

Ilusioa egiten dit, baina presio handia sentitzen dut. Oso urduri jartzen den pertsona naiz eta presiopean jartzen dut nire burua. Horregatik, gaizki pasatzen dut herrian bertan lehiaketa batean parte hartzen dudanean, eta ez dut laurden bat ere disfrutatzen. Gero, egia da jendearen animoek asko laguntzen dutela; irakaslea naiz eta jendeak ezagutzen nau, eta kanpoan baino animo eta babes gehiago sentitzen dut, eta hori asko gustatzen zait. Baina egia da beti eduki dudala fobia hori herrian lasterketetan parte hartzeko.

Zeintzuk izango dira hurrengo lasterketak?

Santamas krosean eta Eskoriaitzako San Silvestre proban izango naiz.

Emakume gehiago batzeko nahia

Eneritz Urrutia Antxintxika Triatloi taldeko kidea da, eta bi emakume daude taldean. "Mundu honetan emakume gutxi daude. Talde guztiak daude emakume kopuruekin eskas. Baina Debagoienan korrika egiten duten emakume asko daude eta Antxintxika taldeko kide izateko animatu nahi ditugu". Beldur edo ezjakintasunarengatik izan daitekeela dio Urrutiak, baina probatzera joateko dei egiten du: "Erraztasun guztiak ematen dituen taldea gara, edozer gauza behar bada laguntzeko gaude. Beraz, interesa duen edonor probatzera etorri eta beldur hori kentzera animatzen dugu".

Urtarrilean hasiko den denboraldiari begira, emakumeak izena ematera animatu nahi ditu Patxi Torres presidentek: "Taldeen emakumeen parte-hartzea sustatu nahi dugu; antxintxika@gmail.com-era idatzita edo 616 15 48 10 telefonora deituta eman dezakete izena".

"ILUSIOA EGITEN DIT, BAINA PRESIO HANDIA SENTITZEN DUT HERRIKO LASTERKETETAN"

Mondrate taldeak liderra hartuko du etzi, zapatuan

La Bastidaren aurka jokatu du, arratsaldeko bostak eta berrogeian, Musakolako kiroldegian

A.A ARRASATE

Mondratek ligako lehen postuan dagoen La Bastida taldearen aurka jokatu du zapatuan. Partidu zaila izango da, baina gogotsu daude Jon Zabalaren mutilak. "Liderraren aurka jo-

katuko dugu zapatuan eta badakigu partidu zaila izango dela. Aurreko astean ere, bigarren postuan dagoen talde indartsuaren aurka jokatu genuen eta zaila izan zen. Hala ere, konfiantza daukagu eta gogotsu

gaude zapatuko partidurako", dio Jon Zabala entrenatzaileak.

Etxean jokatu dute, eta, aurreko emaitzak ikusita, irabaztea tokatzen zaie. "Etxean beti irabazi izan dugu eta kanpoan galdu. Ez dakigu zergatik gertatzen den", gaineratu du Zabalak.

Orain, 16 punturekin, laugarren postuan dago Mondrate, eta, pozik egon arren, aurretik lan handia dutela dio: "Liga luzea da, oraindik denbora daukagu emaitza hobekitzeko".



Mondrateko jokalaririk bat. GOIENA

Kanpanzar Arrasatek ziurtatuta dauka lidergoa

Arrasate Rugby Taldeko seniorek aurreko asteburuan denboraldiko zortzigarren garaipena lortu zuten. Hau lortuta, 39 puntu dauzka taldeak eta Barrotiaren mutilek bermatuta daukate sailkapen fasea lidergoan amaitzea. Asteburu honetan etenaldia izango dute eta abenduaren 15ean La Unica B hartuko dute Mojategin.

Txapel bikoitza Mirari Plazaolarentzat

Euskal Herriko Trikitilari Gazteen Txapelketan bikote onenaren saria jaso du arrasatearrak Irati Arzelus lazkaotarrarekin batera, eta banaka ere txapeldun izan dira: Plazaola pandero-jole onena eta Arzelus, berriz, trikitilari onena

Amaia Aranegi ARRASATE

Abenduaren 1ean, domekan, jokatu zen txapelketa, Zaldibarko Olazar pilotalekuan, eta, guztira, sei bikote aritu ziren lehian. Arzelus eta Plazaola azkenak izan ziren oholtzara igotzen, baina presioak ez zituen kikildu. "Azkena irteteak presio gehigarria dakar. Urduri zaude zure txanda heldu arte, eta, horrez gain, gainontzekoek eman duten mailaren jabe zara", dio Plazaolak. Baina presioa ondo kudeatu eta saio borobila egin zuten biek, baita puntuazio altuena lortu ere. "Oso-oso gogor entseatu dugu, batez ere, azken astean, eta pozozik gaude jasotako emaitzare-




Mirari Plazaola, goiko ilaran, ezkerretik hasita bosgarrena. MARISOL TORRONTEGI

kin, eta sinistu ezinik txapeldun izanda", dio Plazaolak.

Plazaola arrasatearrak eta Arzelus lazkaotarrak aurreko urtean ezagutu zuten elkar eta geroztik batera lehiatzen dira bikote bezala: "Aurreko urtean Elorrion jokatu zen txapelketa batean ezagutu genuen elkar. Momentu horretan, bakoitzak bere bikotekidea zeukan. Baina lehiaketa batera begira, nire bikotekideak ezin zuen parte hartu eta Iratirengana jo nuen. Baietz esan zidan, eta horrela hasi ginen txapelketetan bikote bezala parte hartzen".

Panderoa eta trikitia

Txikitatik hasi zen Plazaola panderoa jotzen, baina ez zuen luze iraun. Duela lau urte berriz hasi zen, eta aurreko urtetik lehiaketetan parte hartzen du: "Arrasateko Trikitixa Eskolan nago eta astean behin ordubetez izaten ditut entseguak. Trikitia ere jotzen dut, baina ez dut nire burua trikitiarekin lehiatzeko ikusten". Aurrera begira, ilusioarekin 2020ko martxoan Lazkaon egingo den txapelketa du begiz jota bikoteak.



Andres Jerez artista. ANDRES JEREZ

Ikuskizunak Gabonetako lehen 'pop-up' merkatuan

Ibai-artek antolatuta, abenduaren 14an, zapatua, Seber Altube plazan azoka egingo dute. Herriko komertzioetako produktuak erosteko aukera izateaz gain, hainbat emanaldiz gozatzeko aukera ere izango da; musika taldeak, magia ikuskizunak, mikroantzerkiak... izango dira. Andres Jerez Burgosko artista ere bertan izango da, sua oinarri duten akrobaziak egiten.



LIRAIN
ARRASATE | ESTETIKA

Laser Plataforma

Zure azalaren eta ileraren arabera, behin betiko tratamendurik egokiena daukagu zuretzat

Hanka osoak + izterrondoak + besapeak **150€** saioa

Sabela + bularra gizonezkoak **125€** saioa

Izterrondoak + besapeak **70€** saioa



Hamar milioi euroko aurrekontu proposamena

Udal Gobernuak zehaztu ditu 2020rako diru-kontuak eta asmoa du abenduaren 19ko osoko bilkuran onartzea. Iazkoa baino zertxobait handiagoa da eta inbertsioek %31,5 egingo dute gora; hala, "estrategikoa" den komentuaren proiektuari helduko diote

Mirari Altube ARETXABALETA

Udal Gobernuak 2020ko aurrekontuaren proposamenaren berri eman du. Dagoeneko EH Bilduri ere aurkeztu dio, eta hori onartzeko osoko bilkura abenduaren 19an egingo dute.

Proposatutako aurrekontua 10.093.788 euro da -iazkoa baino 87.000 euro gehiago-, eta inbertsioek %31,5 egingo dute gora; guztira, 866.900 euro bideratuko dituzte "agintaldiko proiektu estrategikoei bidea irekitzeko".

Diru sarrerei dagokionez, Udal Finantzaketarako Foru Funtsetik etorriko den diru aurreikuspena "ona" da, 5.069.625 euro jasotzea espero dutelako, 2019an baino 165.000 euro inguru gehiago. "Hala ere, aurrekontuak zuhurtziaz egin ditugu eta errealistak dira, ildo estrategikoei bide ematen dietenak, diru sarreren eta gastuen arteko orekari eutsiz", nabarmendu du Unai Elkoro alkateak, eta gaineratu aurten diru kopuru garrantzitsua aurreztu dela: "2018ko geraketatik 344.156 euroko kredituak batu dira; hortaz, 1.428.800 euro aurreztu dira inbertsioetarako".

Komentuaren lanak, 2020an

Agintaldiko proiektu estrategikoetako bat den komentu zaharrean egokitzeko den adinekoen-



Mojen komentua izandako eraikina. MIRARI ALTUBE

dako gizarte zentroaren proiektuari helduko diote. "Aretxabaletako biztanleen %23k 65 urte-tik gora dituzte, eta hamarkada batean biztanleriaren herena izango da", adierazi du Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Karmele Uribarrik. Proiektuaren idazketa lizitaziora aterako dute laster -2019ko aurrekontuen kontura-, eta lanen lehen faseari 2020an ekingo diote. Milioi bat euro aurreikusi dituzte horretarako; 450.000 euro 2020ko aurrekontuan sartuko dituzte eta gainerakoa, 2019ko gerakinarekin ordaindu.

Lehen faseari dagozkion lanak, eraikinaren beheko solairukoak, datorren urtean egingo dira; han kokatuko dituzte Basotxo erretiratuaren elkartearen egoitza eta eguneko zentroa, eta kapera zaharrean kultur aretoa.

Bestetik, esku-hartze psikosozialera 70.000 euro bideratuko dituzte, egoera babesgabeen dauden adin-txikikoei eta gizarte bazterketa egoeran dauden helduei ematen dieten zerbitzua indartzeko. Era berean, animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza berria lantzen

dabilela Udala aurreratu du Uri-barrik, eta txakurrendako gune libre bat egokitzeko asmoa dute Txarapean -8.000 euro-.

Santa Kurtz kaleko lanak

Hirigintza arloari dagokionez, proiekturik garrantzitsuenetakoa Santa Kurtz kaleko eta inguruetako Hornidura eta Saneamendu Plan Berezia da, Xabi Otxoa zinegotziak azaldu duenez: "2008an idatzitako proiektua berrikusiko da, lurzorua-aren akabera berriz diseinatzeko eta irisgarritasun kontu batzuk hobetzeko". Lanak 2020ko bigarren seihilekoan hasia da asmoa.

Horrez gain, komentuaren ingurua hobetzeko proiektua idatziko dute -30.000 euro-; horma egokitu eta bidegorriarekin lotzeko pasabide bat jarri. Bedarretako San Migel auzoan irisgarritasuna hobetzeko lanak egingo dituzte -25.000 euro- eta oinezkoen pasabideak argiztatuko dituzte bide-segurtasuna hobetzeko -20.000 euro-.

Euskal jaietako ikuskizuna

Kultura Saileko nobedade aipagarrietako bat da sanmigelen bueltan euskal jaietako ikuskizuna berreskuratu gura izatea -10.000 euro-, Ainhua Cabero Kultura zinegotziak aurreratu duenez: "Azken ikuskizuna ezkontza bat izan zen, eta dagoeneko 30 urte pasatu dira hura egin zenetik". Bestetik, kuarteleko patioan hainbat egokitzapen egingo dituzte -10.000 euro-. Eta nerabeekin egindako parte-hartze prozesuan jasotako ekarpenak bideratzeko asmoa ere agertu du -10.000 euro-.

Aldagelak futbol zelai berrian

Euskararen Plan Estrategikoa-ren barruan UDArekin lan egin-

go duela "euskararen erabilera sustatzeko" jakinarazi du Koldo Zubillaga zinegotziak: "Gazteen-dako erreferente da kirola, eta gazteak euskarara ekarri gura dira kirolak zubi-lanak eginda". Bestetik, merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabileraren gaineko diagnosia egingo dutela aurreratu du.

Kirolari dagokionez, futbol zelai berriarendako aldagela aurrefabrikatuena bi modulu jarriko dituzte -30.000 euro-. Ibarra futbol zelaia, ostera, led luminariekin argiztatuko dute -70.000 euro-: "Energia kontsumo murrizketak bost urtean inbertsioa amortizatzea ahalbidetuko du". Eta trialsin-gunea egoki argiztatzeko partida bat ere sartu dute -18.000 euro-. Gainera, kiroldegiko fitness gela handitzeko asmoa agertu du.

Aurrekontu proposamena

2020ko aurrekontuaren gasturik garrantzitsuenak.

Pertsonal gastuak:

2.119.009 €

Gastu orokorrak:

5.108.714 €

Interesak: 15.730 €

Dirulaguntzak: 856.699 €

Kreditu globala: 84.341 €

Inbertsioak: 866.905 €

Kapital transferentziak: 210.413 €

Pertsonal aurrerakinak: 5.409 €

Amortizazioak: 826.565 €

GUZTIRA: 10.093.788 €

Kultura arteko bazkaria egingo dute abenduaren 15ean

Jatorri askotariko herritarrak mojen komentuan elkartuko dira eta izena emateko epea zabalik dago

M.A. ARETXABALETA

Kultura ezberdinen arteko topaketa egingo dute mahaiaren bueltan abenduaren 15ean, domekan, mojen komentu zaharrean. Auzoko egitasmoko kideek bideratu dute ekimena eta he-

rritar guztiak gonbidatu gura dituzte. Horretarako, aurrez eman behar da izena; hona hemen bideak: auzoko.loramendielkar-tea@gmail.com eta telefonoz (943 77 09 70 eta 685 75 67 29 eta 688 62 37 18); azken eguna astelehe-

na da, abenduaren 9a. Eta izena ematerakoan jakinarazi behar da bazkaltzera joango den lagun kopurua -helduak eta umeak- eta jateko zer eramango den. Nork bere herriko janaririk gustukoena eramatea gomendatu dute antolatzaileek.

Muru Alde elkartetik komentura

SOS Arrazakeriak antolatzen duen *Bizilagunak* egitasmota bueltan sortu da kontua. "Ekimen horren ardatza da jatorri ezberdinetako lagunak bazkaltzeko

elkartzea, eta guk pentsatu genuen etxeetan elkartu beharrean gastronomia elkarte batean bazkaltzea. Orain dela sei urte egin genuen lehenengoz, eta ordutik urtero elkartzen gara Muru Alde. Elkartea, baina, txiki geratu zaigu, eta aurten, komentura etortzeko baimena eskatu dugu", adierazi du Auzoko egitasmoko eta Gu Haziak Gara elkarte kide Paloma Martinezek: "Orain, leku asko dago eta gonbidapena herritar guztiei zabaltzea pentsatu dugu".

Egitaraua

13:00etan elkartuko dira komentuan, elkar ezagutu eta kontu-kontari jarduteko. Eroandako jakiak jango dituzte gero (14:30); eta bazkalostean (16:00), *Habibi maitea* abestuko dute Basotxoko kantu taldeko kideekin batera. Bukatzeko, erretiratuak euskal dantza bat eskainiko dute, eta ondoren, gainerakoendako tartea zabalduko da: "Oso giro polita sortzen da, guztiek egin gura izaten diotelako keinu bat euren kulturari".

Ekitaldiz eta eskaintzaz gainezka datoz Gabonak

Udalak eta Aretxarte merkatarien elkarteak gaurtik urtarilaren 7ra bitartean antolatu dituzten ekimenen berri eman dute; besteak beste, iragarri dituzte merkeago erosteko bonuak, zozketak, hainbat eratako kontzertuak eta ohiko Gabon ekitaldiak

Mirari Altube ARETXABALETAK

Herriko merkatariek eta Udalak egin dute, beste behin, Gabonak girozte aldera, eta ekitaldi mordoa iragarri dituzte: "Hainbat eragileren inplikazio-rekin diseinatu dira eta publiko guztiarendako ekintzak jaso ditugu", adierazi du Unai Elkorro alkateak. Hasiera emateko, gaur piztuko dituzte kaleetako Gabon argiak, eta erakusleho lehiaketa abian jarri –sariak abenduaren 27an banatuko dituzte–.

Bonuak dagoeneko eskuragai

Herriko komertzioa bultzatu nahian, Udalak 400 bonu atera ditu aurten ere. 20 eurotan erosi, eta 30 euro izango dituzte herritarrek Aretxarteko edozein komertziotan trukatzeko, urtarilaren 5a bitartean. Dagoeneko salgai daude Arkupen eta herritar bakoitzak –16 urtetik gorakoak– bakarra eskuratu ahal izango du. Horren helburua tokiko merkataritza sustatzea dela adierazi du Elkorro: "Merkataritza Biziberritzeko Plan Bereziaren barruan beste ekintza batzuk ere zehaztu ditugu; urtarilerako egongo da hori bukatuta. Gastu ihesa geldiarazi eta bezeroa fidelizatzea dute helburu horiek".

Gabonetako azokak ere herriko artisauen, ekoizleen eta merkatarien lanari bultzadaxo bat emango dio, beste urte batez. Abenduaren 14an eta 15ean izango da Herriko Plazan jarriko duten karpa azpian, eta 25en bat ekoizle elkartuko dira han. Bezerperan, hilaren 13an, Bixentak taldearen kontzertua egongo da, Aretxartek antolatuta, eta UDAK buzkantzak eskainiko ditu.

Zigiluen kanpaina eta egutegiak Aretxarteko kideek ere urteroko eskaintzak izango dituzte bezeroendako. Batetik, zigiluen kanpaina dago; erosketa bako-



Udaleko eta Aretxarteko ordezkariak Gabon kanpaina aurkezten. MIRARI ALTUBE

Kultura ekitaldi nagusiak

Abenduak 5

- **19:30** Samuele Telari akordeoilariaren kontzertua, Arkupen.

Abenduak 17

- **18:00** Leizarra musika eskolako Gabonetako kontzertua, plazan.

Abenduak 22

- **19:00** Organo kontzertua bakarlariekin, parrokian.

Abenduak 26

- **20:00** The Upper Room taldearen gospel kontzertua, Arkupen.

Abenduak 29

- **19:00** Aretxabaleta Abesbatzaren Gabonetako kontzertua, parrokian.

Gabonetako ohiko desfileak ere izango dira.

tzeko zigilu bat lortuko da elkarteko komertzio bakoitzean eta sei lortutakoan zozketan parte hartzeko aukera izango dute. Zozketa hori urtarilaren 8an egingo dute eta sariak izango dira 50 euroko 39 bonu eta 200 euroko bat. Bestetik, egutegia oparituko diete herritarrei; 2.900 ale aterako dituzte. Eta aterkiak eta erosketa-gurditxoak ere izango dituzte bezeroen zerbitzura, behar izanez gero.

Hain zuzen Gabonetako kanpaina hori lau haizetara zabalitzeko iragarkia egin du aurten ere AZ Visual Media enpresak. "Aretxabaletarrak izanik eta txikiak, geuk ere herriko komertzioekin batera indarrak batu behar ditugu. Oraingoan gazteen inplikazioaren bila joan gara egindako iragarkiarekin", adierazi du Mikel Alberdik.

Ohiko kultura ekitaldiak

Ekitaldiei dagokienez, mordoa izango direla iragarri du Ainhoa Cabero zinegotziak, gehienak, ohikoak: akordeoilariaren kontzertua, Aretxabaleta Abesbatzarena eta gospelsa, besteak beste. Bertso jaialdia, oster, urtarilaren 5ean izango da.

Bi asteburutan emango dute 'La trinchera infinita' Arkupen

Astelehenean jakinarazi zuten Goya sarietarako hamabost izendapen lortu dituela film horrek

M.A. ARETXABALETAK

Donostia Zinemaldian estreinatutako *La trinchera infinita* filma iritsiko da Arkupera, eta zortzi emanaldi eskainiko dituzte; abenduaren 6an, 7an eta 8an (19:30), 9an (16:00), 13an (22:00), 14an eta 15ean (19:30) eta 16an (16:00).

Aitor Arregi oñatiarrak, Jon Garañok eta Jose Mari Goenagak zuzendutako filmak, gainera, Goya sarietarako hamabost izendapen jaso ditu aste honetan bertan; besteak beste, pelikula onenarena, zuzendari onenarena, gidoi onenarena eta aktore onenena. Aurretik, Donostia Zinemaldian, epaimahai ofizialaren bi sari lortu zituen, baita Irizar eta Fipresci sariak ere.

Zinemaren ordutegia galdegai

Bestetik, zinemaren ordutegia-ri buruzko galdeketa egingo



La trinchera infinita. MORIARTI

dutela abenduan jakinarazi dute udal ordezkariak. Arkupera gerturazten direnek zinemako sarrearekin batera jasoko duten paperean bozkatzeko aukera izango dute. Udalaren aplikazioaren bitartez ere eman ahal izango da botoa.

Goi mailako akordeoi doinuak gaur, Samuel Telariren eskutik

Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi Lehiaketaren 2018ko irabazle izan zen Samuele Telari (Spoleto, 1992) akordeoilari italiarrak kontzertua eskainiko du gaur, abenduak 5, Arkupen (19:30).

Goi mailako akordeoilaria da Telari; Erromako Santa Cecilia Kontserbatorioan egin zituen master ikasketak eta ohorezko

nota lortu zuen. Ordutik hona sari mordoa eskuratu ditu; besteak beste, Citta di Castelfidardo Saria 2013, Abbado Saria 2015 eta iaz Arrasaten eskuratutakoa.

Diskoa ere grabatu du, *Limes*, eta Italiako zein Europako hainbat jaialditan eta aretotan eskaini ditu kontzertuak. Orkestrekin ere jo izan du bakarlarilez eta askotariko ganbera-taldeetako kide da. Orain dela sei urte ezkerro Erromako Accademia Filarmonicako egoiliarra da, gainera.

Swing ikastaroa urtariletik aurrera Jaiki elkartearekin

Jaiki elkarteak swing dantza ikastaroa antolatu du urtarilerako. Hamabostean behin izango dira saioak, astelehenetan (18:30-19:45), kuartelean; eta prezioa da 45 euro langileendako eta 35 euro gainerakoendako.

Izena emateko epea zabalik dute; hona hemen bideak: jaikielkartea@gmail.com eta 688 86 21 87.

**Mobiliario
ARENZA**

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAK



Ekainean Fernando Eskoriatza plazara irten ziren Buztinatekoak, herritarrei zer egiten duten erakutsi eta irakastera. IMANOL BELOKI

Familian, buztingintzara gerturatzeko asmoz

Buztinate elkarteko kideek tailerra prestatu dute Gabonetara begira. Hiru egunetan aukera izango da tailerrean parte hartu eta bertan egiten dutena ezagutzeko. Hala, abenduaren 26an, 28an eta urtarrilaren 3an izango da aukera horretarako, Zubiaren

Imanol Beloki ESKORIATZA

Buztinate buztingintza eta zeramikako elkarteko kideek *Gabon egunetan egin buztingintza familian!* izeneko egitasmoa antolatu dute, herritarrek buztingintzara gerturatzeko asmoz. Hori horrela, abenduaren 26an, 17:00etatik 18:00etara; abenduaren 28an, 11:00etatik 12:30era; eta urtarrilaren 3an, 17:00etatik 18:30era, tailerrak izango dira Zubiaren labean.

"Familian egiteko tailerrak izango direnez, bi pertsonatik gorako taldeak izango dira, gutxienez. Hala, tailerrean parte hartzeko, bazkideek 30 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek, bikoteko 35 euro. Orain antolatu berri ditugun ate-ireki edo tailer hauek berriak dira, baina ekainean, Aste Zapatistan, esaterako, Fernando Eskoriatza plazara irten ginen arratsalde batean, herritarrei zer egiten dugun erakusteko eta beraiei ere irakastera. Hala, orduan izandako arrakas-

ta ikusita, Zubiaren antolatu ditugu tailerrak Gabonetara begira, gure lan eremua ezagutu dezaten eta, nola ez, buztingintzaz gozatu dezaten", adierazi du Buztinate elkarteko Olatz Pagalday kideak.

Haurrentzako eta helduentzako

Ikasturte honetan ere haurrentzako eta helduentzako ikastaroak daude, eta horien gidaritzapean Alvaro Garcia irakaslea ari da. "Lan txukunak eta orotarikoak egiten ditugu bertan batzen garenok, eta dagoeneko bost urte pasa dira taldea sortu zenetik. Beraz, esan dezakegu Buztinate elkartearen egonkortuta dagoela. Hala ere, gustatuko litzaziguke jende gehiago erakartzea, eta

ALVARO GARCIA
IRAKASLEAREN
GUIDARITZAPEAN, HIRU
EGUNEKO TAILERRA
IZANGO DA ZUBIATEN

kalera ere gehiago irtetea gure lana erakustera".

Buztingintzaren onurak

Buztingintza ikastaroan parte hartzen duten ikasleek egiten dituzten lan ugari bitxiak, berriak eta imajinario handikoak direla ere adierazi du Pagaldayk: "Haurren lanak, batez ere, izugarriak izaten dira. Betiko hautsontzietatik harata joaten dira beraiei piezak, ikastaroetan hasi bezain pronto, eta sekulako imajinazioa ateratzen dute. Askotan, gainera, beraiei ideiak ere hartzen ditugu helduen taldekook. Horrekin batera, buztingintza erlaxatzeko bide bat ere bada, eta bertan egindako pieza bat erregalu moduan egiten denean oso eskertua izaten da...".

Ikasturtean zehar eguaztenetan egiten dituzte Buztingintza eskolak Zubiaren, eta hauek dira ordutegiak: haurrak, 16:45etik 17:45ak arte eta helduak 18:00etik 20:00ak arte.



Compostela tabernakoak, sariak jaso zituzten momentuan. ANTONIO REGAÑO

'Udazkeneko zaporeak' pintxoak irabazi ditu bi sariak

Bost tabernaren arteko lehian, Compostela tabernakoa izan da IV. Pintxo Lehiaketako pintxorik onena

I.B. ESKORIATZA

Compostela tabernak egindako *Udazkeneko zaporeak* pintxoak da aurtengo lehiaketako bi sari nagusiak jaso dituenak –txerri-azpizuna, ahate-foie freskoa, onddoak, boilur zuria, Coca Cola, ardoa, gatz-ekzak, albaka, ezkaia eta basafrituak ditu pintxoak–. Batetik, 200 euroko epaimahaiaren saria, eta, bestetik, 100 euroko herritarren saria. Honekin batera, Buztinate elkarteak egindako garaikurra ere jaso du.

Edizio honetan, bost tabernak hartu dute parte, eta, orokorrean, pozik agertu dira guztiak jendearen parte hartzearekin eta aste-buruan sortu den giroarekin.

Luxuzko epaimahaia

Edurne Uribesalgo Gamarrako ostalaritza eskolako irakaslea, Joseba Bartol sukaldaria, Iker Esteban Oñatiko Torre Zumeltzegiko sukaldaria, Maria Jesus

Miguel sukaldaritzan esperientziaduna eta Sandra Lopez sukaldaritzan eta ostalaritzan esperientziaduna izan dira epaimahaia osatu dutenak, eta zapatuan pintxo guztiak probatuta, honako ezaugarri hauek baloratu zituzten: originaltasuna, zaporea, aurkezpena eta Eskoriatzan erositako produktu kopurua.

Herritarren bozketarako, 116 pertsonaren botoak hartu dira kontuan, eta pintxo onena zein zen aukeratzeko pintxo guztiak probatu behar ziren derrigorrez. Askoz ere boto gehiago egon ziren, baina, aipatutako baldintza betetzen ez zutenek, ez ziren kontuan hartu. 50 euroko bi sariren zozketarako, ordean, papertxo guztiak hartu ziren kontuan. Hauek izan ziren saridunak: Elvira Serrano, 50 euro Eskoriatzako dendetan gastatzeko; Pacheco, 50 euro lehiaketan parte hartu duten tabernetan gastatzeko.



"Konfiantza hartu beharrean gaude"

Iker Molina Eskoriatza areto futbol taldeko entrenatzaileak adierazi duenez, gol faltan dago taldea, eta garaipenak behar dituzte, sailkapenean gora egiteko. Hurrengo partidua egubakoitzean izango dute, Aurrera de Vitoria Zaraunaren aurka, etxean, 11:00etan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Egubakoitzean jokatu du Mai- la Nazionean ari den Eskoriatza areto futbol taldeak hamargarren jardunaldia. Aurrera de Vitoria Zarauna taldearen kontra jokatu du, Manuel Muñoz kiroldegian, 11:00etan, eta, Gabonetako oporraldia hartzeko hiru partiduren faltan, guztiak irabazi gura dituzte Iker Molinaren mutilek, sailkapenean gorako bidea hartzeko.

Sailkapenean hamargarren postuan daude, zortzi punturekin. Bi garaipen batu, bi berdinketa lortu eta bost partidu galduta, denboraldiko une txarrean daude eskoriatzarrak, sailkapenari dagokionez. Hala ere, Iker Molina entrenatzaileak adierazi du taldea lan ona egiten ari dela eta "pozik" dagoela taldekideek kantxa barruan ematen dutenarekin: "Sailkapenari eta emaitzei begiratzen badiegu, ez du ematen ondo ari garela, baina taldea lehiatzen ari da. Gola



Jokalaria baloiarekin. IMANOL SORIANO

sartzea falta zaigu, hori da behar duguna, eta, justu-justuan irabazi barik, suspertzeko, garaipen sorta on bat ondo etorriko litzaziguke. Beraz, datozen hiru partidua irabaztea dugu helburu".

Aurkari zuzenek arrisku gehien

Orain arte, zazpigarren eta zortzigarren postuetan izan da Eskoriatza areto futbol taldea denboraldia hasi zenetik. Hala, orain, hamaikagarren postura jaitsita, aurkari zuzenen kontra ez galtzea izan behar dela bidea adierazi du Molinak: "Hutsegite asko egiten ditugu, eta aurkariak ez dute barkatzen. Hala, aurkari zuzenak ditugune eta sailkapenean gure azpitik daudenei ezin diegu bidea zabalik utzi. Horiei irabazi behar diegu, hori da gakoa".

Urte berriarekin bigarren buelta

Urtarrilaren 12ko asteburuan denboraldiko lehenengo buelta-ko azken partidua izango du Eskoriatzak, eta ordura arteko partidua irabaztea da epe motzera begira jarri duten helburua. Hala ere, azken aldian lesio ugari izan dituzte, eta bigarren bueltarako denak sendatuta egotea espero du entrenatzaileak.



IMANOL SORIANO

Izotz-pista, gaztetxoek gozagarri

Gabonen atarian, izotz-pista jarri du Udalak pilotalekuan, umeen eta gaztetxoek gozagarri, eta sekulako harrera egin zioten pasa den zapatuan. Abenduaren 15a arte izango da zabalik, honako ordutegi honetan: 11:00-13:00 eta 17:00-19:00. Sarrerak 20 minutuko txandakoak izango dira; adin txikikoek euro bat ordaindu beharko dute eta 18 urtetik gorakoek, bi euro.

Unidad Alavesa taldeak irekiko du abenduako egitaraua

Abenduan, hiru kontzertu egongo dira Inkernun, guztiak 22:30ean hasita. Unidad Alavesa egubakoitzean izango da, abenduaren 14ean Craic & Roll eta abenduaren 25ean Bacon Maiden.

Unidad Alavesa Ataunen sortutako taldeak country-folk-rocka eskainiko du eta ibilbide luze-ko musikariak izango dira agertokian. Abenduaren 14an, berriz, Phill Doyle eta Donna Dunne irlandarrek osatzen duten Craic & Roll taldea izango da, eta country eta gipsy-jazz estiloak uztartuko dituzte, zenbait bertsio eskainiz. Azkenik, Bacon Maiden taldeak Iron Maiden talde mitikoaren bertsioz betetako kontzertua eskainiko du.

LEINTZ GATZAGA

21



Gatzagako Hautesle Elkarteko bost ordezkariak. IMANOL BELOKI

Eugenio Otsoa izango da Gatzagako alkate berria

Zapatuan 11:00etan egingo dute kargu-hartze ekitaldia Leintz Gatzagako udaletxeko osoko bilkuren aretoan

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Eugenio Otsoak ondo daki zer den Gatzagako alkate izatea, ez baita bere lehen aldia izango kargu horren ardura izango duena. Hala, zapatuan, 11:00etan hartuko du kargua, eta berarekin batera gainerako ordezkariak.

"1987an hasita, hiru agintaldiz izan nintzen alkate, eta laugarrenean utzi beharra izan nuen lan kontuengatik. Gero, zinegotzi ere egon izan naiz, 2012an berriz ere alkate, eta ea oraingoa azkena den. Orain ardura hartzeko gertu agertu naizen arren, gazteengan jarri behar dugu

indarra, beraiek baitira etorkizuna. Herri txikia da gurea, eta denok egon behar dugu lanerako prest, eta, honekin batera, Gipuzkoa mailako beste erakunde- laguntza ere ezinbestekoa izango dugu; esaterako, azpiegiturretan".

Udal ordezkarien kargu-hartzea

Alkatea Otsoa izango den arren, hauek izango dira gainerako udal ordezkariak: Ogasuneko zinegotzia Garazi Orobengoa, Mendikoa Juanito Bengoa, Kulturakoa Beñat Agirreurreta eta Hirigintzako Jon Sasiain.



BITTOR AGIRREURRETA

Animoak gatzagarrei

Arrasatear batek eta bi katalanek Ekuadorko Cotopaxiko tontorretik (5.897 metro) Gatzagako Aitziber, Joxerra eta Larraitx alabarentzat ateratako argazkia: "Horiek izandako auto istripu larriaren ondoren, animoak eta indarra bidaltzen dizkiegu, lehenbailehen osatu daitezten. Besarkada bat, Pauren, Quimen eta Bittorren partetik".



Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga. BERTSOZALE ELKARTEA

Goi mailako kulturgileak, egun hauetan Aramaion

Maialen Lujanbio eta Unai Iturriagarekin bertso saio "berezia" egingo dute hurrengo barikuan, eta aurretik, domeka honetan bertan, Ruper Ordorika izango da herria bisitatuko duena. Hilaren 19an, azkenik, Gontzal Mendibilek egingo du saioa

Julen Iriondo ARAMAIO

Aretoko saio klasikoa antolatu izan du Aramaioko Bertso Eskolak azken urteetan Gabonetan, baina aurtengorako proposamen desberdina egitea erabaki dute. Bi izango dira soilik bertsolariak; ez edozein, hori bai, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga, eta gaiak jartzen ere zaildutako pertsona, Maite Berriozabal.

"Saio berezia izango da; azken urteotako Gabonetako saioa apur bat gainbehera zihoala iruditzen zitzaigun, eta buelta bat eman nahi izan diogu", adierazi dute bertso eskolatik. Honela, bi zati izango ditu saioak: lehena kultura etxean hasiko da, 20:00etan, eta, gutxi gorabehera, ordubete iraungo du; gero, eskolako jangelara joango dira denak, eta

han luntx bat izango dute, jan-edanaren ostean, han bertan, eguneko bigarren ekinaldia egiteko. "Protagonista berak izango dira bigarren zatian, baina gaiek beste tonu bat izango dute, agian", azaldu dute.

Añai, Eki eta Anboto tabernetan eros daitezke sarrerak, 10 eurotan, edo 688 62 70 89 zenbakian gorde (Xabi).

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Auzuneko izena, "geure grafiarekin"



Pertsona batek bidali du argazkia Goienara, "ikusmirarekin bat datorren kartela" eskatuz Gureiarako: "Auzuneko kartelak badu berritu beharra, eta, mesedez, jar dezatela geure grafiarekin".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



GOIENA

Leintz Eskola Kirola, Aramaion

Leintz Eskola Kirolak antolatuta, askotariko ekintzak egin zituzten aurreko zapatuan frontoian. Jolas Hezi deritzon ekimenean, "jolas modifikatuen topaketa" egin zuten goizean zehar, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako neska-mutikoekin. Aurreko asteburuan, berriz, eskubaloai jardunaldiak egin zituzten hirugarren eta laugarren mailetakoekin.

Ruper Ordorika eta Gontzal Mendibil

Domekan 19:00etan hasiko da Ordorikaren saioa kultura etxean. Sarrerak udaletxean eta liburutegian daude salgai, 5 eurotan, eta dirua *Aita Mari*-rentzat izango da. Leihatilan ere izango dira, 18:30ean hasita.

Bestetik, hilaren 19an, Gontzal Mendibilek eta Iñaki Gartzia Gortziak kontuak eta kantuak izango dituzte ahotan, 18:30ean, udaletxean.



Ruper Ordorika. EKAITZ ZILARMENDI

Batzuek bale eta besteek kale, Arabako finalaurrekoetan

Herrialdeko pilota txapelketaren 77. edizioan, bi kategoriatan izan du ordezkari Aramaiok finalaurrekoetan. Kadete mailan, Xabi Errastik eta Danel Herrartek 22-15 irabazi zuten Legutien etxeko bikotearen kontra, eta hilaren 14an han bertan jokatu den finalerako sailkatu ziren. Gazteetan, Markel Arriolabengoak galdu egin zuen Amurrian.

OHARRAK

Duatloiko argazkiak

Azaroaren 17an Untzillan jokaturako Aramaioko lehen mendi duatloiko argazki gehiago ikusgai daude Flickr-en.

Hezkuntza tailerra

Umeen eta nerabeen garapen sozioemozionala aztertuko dute eguaztenean Zuian. Informazioa, Gortziak aldeko kuadrillan.




Z BELAUNALDIAREN ALDIZKARIA

Euskaraz



Mugikorretarako!

Bideoak, argazkiak, musika... modu bertikalean! Ez biratu mugikorra; edukiak ZUTik, bertikalean!



Gazteen gaiak

Musika, youtuberrak, erronkak, elkarrizketak, outfit onenak... Askotariko gaiak



'IXA' websaila

Formatu bertikalean egin den euskarazko lehen websaila ZUTen bakarrik ikus dezakezu.



Eta zure edukiak!

ZUTen zure bideoak, erronkak, memeak, coverrak... jaso nahi ditugu! Animatu eta bidali!

Deskargatu doan!



APP Store



Play Store



Udaleko eta Bedelkarreko ordezkari batzuk Gabonetako kanpainaren berri emateko agerraldian, atzo, Muniben. JOKIN BEREZIARTUA

"Ondo pasatu eta herrian gastatu!"

Gaur hasi eta urtarrilaren 5era arteko Gabonetako egitarauak ia 30 ekintza jasotzen ditu; egitarauaren antolatzaile diren Udalak eta Bergara Bizi ekimenak dei egin die bergararrei, ekintzez gozatzeaz gain, Gabonetako erosketak herrian bertan egin ditzaten

Jokin Bereziartua BERGARA

Gaur, abenduak 5, hasi eta urtarrilaren 5era arte iraungo du aurtengo Gabonetako egitarau bereziak. Gaur bertan piztuko dituzte Gabonetako argiak eta urtarrilaren 6ra arte egongo dira piztuta; azken urteetako ohiturari jarraituz, Maycolux enpresa arduratu da argiok jartzeaz, 15.000 euroko aurrekontuarekin –BEZ barik–. Gogora ekarri behar da iaz ia urtarril amaierara arte egon zirela argi horiek piztuta, led argiteria berria jartzeko lanak atzeratu egin zirelako.

"Ez da aspertzeko astirik izango"

"Oso programa zabala prestatu du Udalak hainbat departamenturen ahalegina batuta eta Bergara Bizi ekimenarekin elkar-lanean. Askoren ahaleginek oso emaitza borobila lortu ahal

duten adibide argia izan da honako hau ere, pozik egoteko modukoa. Horregatik, Gabonetan ez da herrian aspertzeko astirik izango", adierazi zuen atzoko agerraldian Kultura zinegotzi Kristina Markinak. Aisialdira begirako ia 30 ekintza jasotzen ditu egitarauak aurtun.

Gabonetarako programan merkatariek egin duten ekarpena ere nabarmendu zuen kultura zinegotziak: "Ale ederra jarri dute herria girotzeko". Horrekin batera atzoko prentsaurrekoan iragarri zuen Udalak ikus-entzunezko bat prestatzen ari dela

GABONETAKO ARGIAK URTARRILAREN 6RA ARTE EGONGO DIRA; AURREKONTUA 15.000 EURO DA, BEZ BARIK

herriko komertzioei eta zerbitzuei balioa emateko, eta "laster" ikusgai egongo dela gaineratu zuen. Hain zuzen, zinegotziak proposamen zehatz bat egin zuen atzoko agerraldian: "Ondo pasatu eta herrian gastatu!".

Haur ikuskizun gomendagarriak Programak jasotzen dituen ia 30 ekintza horien barruan, Udalak honako hauek azpimarratu ditu: hasteko, abenduaren 26ko *Aioko* –Seminarixoa, 18:00etan– eta abenduaren 27ko *Ehuna* haur ikuskizunak –Seminarixoa, 16:30ean eta 18:00etan–. Zurrunka taldearen ikuskizuna da *Aioko*, 4 urtetik gorako umeei zuzendua, eta txotxongiloen eta itzalen bidez ahozkoasuna lantzen du. "Oso emanaldi goxoa eta polita izango da", aurreratu du Kultura teknikari Maider Osak. *Ehuna* antzezlanak, berriz,

are publiko gazteagoa du helburu, 1 eta 6 urte artekoendako da eta; Kristobal Balentziaga modista ezagunaren lanean oinarrituta, hainbat diziplina uztartzen dituela aurreratu du Osak eta dio ikuskizun hori ere "oso polita" izango dela.

Umeei bai, eta nerabeei ere bai

Txikienei begira, iaz Seminarixoa egon ostean, aurtun Olentzero eta Mari Domingi udaletxeko atarira bueltatuko dira; umeek gaur hasi eta abenduaren 24ra arte utzi ahal izango dituzte gutunak bertan. Eta, urtero legez, ez dute hutsik egingo Munibe plazako ohe elastikoek eta urtarrilaren 2tik 4ra iraungo duen Labegaraieta kiroldegiko jolas parkeak.

Gabonetan umeak badira ere protagonista, egitarauan badaude nerabeei begira propio antolatutako ekitaldiak; esaterako, Jordi Pereyra youtuberrak hitzaldia emango du abenduaren 27an Laboratorium museoan, gazteleraz; *La ciencia de sofa* blog zientifikoaren sortzailea da Pereyra, eta Youtuben 203.000 harpidedun ditu gaur egun. Hain zuzen ere, DBHko bigarren mailatik gorako ikasleentzat da.

BI HAUR IKUSKIZUNAK ETA JORDI PEREYRA YOUTUBERRAREN SAIOA AZPIMARRATU DITUZTE

Bergara Biziko ekimen nagusiak

Bedelkarrek honako ekimen hauek nabarmendu ditu Gabonetarako.

- **Gabonetako argiak piztea** Gaur, abenduak 5, piztuko dira. Saltoki bakoitzak jarri behar du bere argia; norbait falta bazaizkio, lehenbailehen deitu behar du: 616 72 75 92.
- **Bedelkarren Gabonetako zozketa** 500 euro zozketatuko dira 100 euroko bost saritan banatuta. Bezeroek izena eta telefono zenbakia jarri beharko dute erosketa egiterakoan; zozketa urtarrilaren 5ean egingo da.
- **Ohe elastikoak Muniben** Abenduaren 6tik urtarrilaren 6ra egongo dira martxan, egunero. Aste barruan 17:00etatik 20:00etara egongo dira eta zapatuetan eta jaiegunetan 11:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Saltokietan banatuko diren txarteltxoek bidez erabili ahaliko dira ohe elastiko horiek.
- **Txu-txu tren** Bi egunetan ibiliko da erdiguneko kaleetan zehar: abenduaren 20an, 17:00etatik 20:00etara; eta abenduaren 21ean, 11:30etik 14:30era eta 16:30etik 20:30era. Saltokietan banatuko diren txarteltxoek bidez erabili ahaliko da.
- **Askotariko iberikoen zozketa** Abendu osoan zehar Bedelkar txartela erabiltzen duten bezeroak sartuko dira zozketan.
- **Erakusleho lehiaketa** Apainduta izan behar dira gaurko. Sari banaketa ekitaldia abenduaren 18an egingo da.

Kontzerturako sarrerak

Nabarmendu beharreko beste ekitaldi bat da, zalantza barik, urteroko klasikoa den Gabonetako kontzertua; abenduaren 21ean izango da, frontoian (20:30). Abenduaren 12an hasiko dira sarrerak saltzen; Internetez lerro bakoitietarako sarrerak salduko dira –abenduaren 12an, 18:00etatik aurrera– eta Seminarixoko leihatilan, berriz, lerro bakoitietarakoak –abenduaren 12an eta 13an, 18:00etatik 20:00etara–.

Aurrerago sarrerarik geldituko balitz saldu barik, abenduaren 16tik aurrera guztiak jarriko dira salgai Internetez. Sarre-raren prezioa zortzi euro da; herritar bakoitzak sei sarrera erosi ahal izango ditu, gehienez. Aldez aurretik sarrera guztiak salduz gero, kontzertu egunean ez da leihatilarik irekiko. Kontzertu egunean 19:30ean irekiko da frontoiko leihatila eta ikuskizuna hasi baino hamar minutu lehenago itxiko dira ateak. Hau da, 20:20tik aurrera ez dute frontoira sartzen utziko.

Osintxu, Angiozar eta Elosua

Olentzero eta Mari Domingik geldialdi bereziak egingo dituzte abenduaren 24an Osintxun –zubian, 19:00etan– eta Angiozarren –plazan, 19:00etan– eta urtarrilaren 5eko Bergarako kaleetako errege desfileaz gain –udal biltegitik, 19:00etan–, Elosuko auzotarrek ere ongietorri berezia egingo diete errege magoei –Elosuko plazan, 18:00etan–.

Bakardadearen arazoari aurre egiten laguntzera

Matia fundazioarekin elkarlanean 'Nire lagun' deritzen postalen ekimenaz gain, hitzaldiak eta argazki erakusketak antolatu dituzte Udaleko Gizarte Zerbitzuek datozen asteetarako; 65 urtetik gorako 1.480 bergarar bakarrik erroldatuta daude gaur egun

Jokin Bereziartua BERGARA

Gizarte aurreratuetan bizi den gaitz handienetako bat da bakardadea eta gaitz hori are nabarmenagoa da hirugarren adineko sektorearengan. La Caixa fundazioak egindako ikerketa baten datu esanguratsuak: Espainian, 65 urtetik gorako pertsonen %39,8k bakardade emozionala bizi dute. Bergarara etorrita, Udalak emandako beste datu esanguratsu bat dago: 65 urtetik gorako 1.480 bergarar bakarrik erroldatuta daude; hau da, 65 urtetik gorako pertsonen %42 –horietatik emakumeak %63,99 dira eta gizonezkoak %36,01–.

Gizarte Zerbitzuen arabera, honako hauek dira bakardadearen sintometako batzuk: depresioa areagotzea; gehiegizko alkohol kontsumoa eragitea; bihotz eta zirkulazio gaixotasunen kontrol txikiagoa izatea; hezurrekin erlaziozatatutako gaixotasunak –artritisa, kasu–; etxean istripuak izateko arriskua areagotzea eta laguntza garaiz jasotzeko aukerak txikitzea....

Lau ekintza otsailera bitartean

Bakardade emozionala bizi duten bergararrei laguntzeko edo egotzera horretan sartzeko arriskuan egon daitezkeenei begira prebentzio-lana egiteko lau ekimen prestatu dituzte Gizarte Zerbitzuek datozen egunetarako. Batetik, *Lagunkoi* egitasmoaren barruan eta Matia Fundazioarekin elkarlanean *Nire lagun* postala ekimena ekarriko dute Bergarara. Udaletxean, liburutegian, Boni Laskuraingo gizarte etxean, osasun zentroan, Agorrosinen eta Labegaraletako kiroldegian postontziak jarriko dituzte, postalak idazteko aukera eskaintzeko eta bakardadearen gaineko informazioa emateko. Urtarrilaren 7ra arte egongo dira eskuragarri postaloak; jasotako postalekin lanketa egingo da Matia Fundazioan. Postalak erabili ahal



Roberto Kareaga, Ainhoa Lete eta Xabier Legorburu, *Nire lagun* deritzen postalekin. B.U.

BAKARDADEAZ IDATZI ETA INFORMAZIOA JASOTZEKO BALIOKO DUTE 'NIRE LAGUN' IZENEN POSTALEK

izango dira norberak hartu eta nahi duenari idazteko; edo baita ere bakardadeari buruz idatzi eta postontzi horretan sartzeko. Bigarren ekitaldia izango da abenduaren 9rako antolatu duten telelaguntzari buruzko hitzaldia, Leire Tamararen eskutik; Boni Laskurain kaleko gizarte etxean izango da, 18:30ean. Hirugarren ekitaldia izango da abenduaren 16rako antolatu duten hitzaldia, Sara Marsillasek emango duen *Hablemos de soledad*; Irizar jau-regian izango da, 19:00etan. Amaitzeko, bakardadearen gaineko argazki erakusketak irekiko dute Aroztegin, urtarrilaren 7tik otsailaren 2ra.

Ekintza horiek gauzatu ostean, Udalaren asmoa da bakardadean dauden eta sentitzen diren pertsonak detektatzeko gizarte inplikatzeko eta Udaleko Gizarte Zerbitzuetara bideratzea behar

duten laguntza eskaintzeko; gogor ekarri dute Bergararren Arreta Zerbitzu berriari esker udaletxeko harreraren bertan hartu ahalko dela txanda Gizarte Zerbitzuetako teknikari batekin; ordutegia da astelehenetik egubakoitzera 07:30etik 15:30era –eguenetan 16:00etatik 19:00etara ere egoten da zabalik–.

Suteak ekiditeko programa

Bakardadearen gaiak harago, bereziki hirugarren adineko bergararrei begira aurretik landu dituzten bestelako ekimen batzuk ere iragarri ditu Udalak. Suteak ekiditeko programa, kasu; programa hori zuzenduta dago 80 urte baino gehiago izanda bakarrik edo 65 urtetik gorako beste batekin bizi direnei. Helburua da pertsona nagusiak bizi diren etxeetan egon daitezkeen sute arriskuak ekiditea, eta sutea gertatuz gero kalteak txikitzeko aurrelana egitea. Era berean, bisitak egiterakoan baloratzen da pertsona horiek Gizarte Zerbitzuen laguntza edo premiarik ba ote duten. Aurten, ke-detektagailuen mantentze-zerbitzua 558 etxetan egin da, eta egun, 601 etxebizitza erabiltzaile daude.



ANDER TXAKARTEGI

66 urte geroago, zaldia azkarrago

1953an, Oskar Elgezabal txirrindularia izan zen Angel Arriola zaldun zuen zaldia baino azkarragoa; 66 urte geroago, Berriatuan errepikatu zuten desafioan, berriz, *Lanbro* zaldia eta Bakene Erkiaga zalduna Mikel Aristi ziklista bergararra baino segundo bat azkarragoak izan ziren. "Oso pozik gaude desafioak piztu zuen ikusminarekin", adierazi dute antolatzaileek.

Abendua ekintzez lepo Oxirondon, Osintxun eta Angiozarren

Goiena komunitatea

Jardun euskara elkarte / BERGARA

Oxirondoko, Osintxuko eta Angiozarko ludoteketan abendu osorako hainbat ekintza antolatu ditugu. Oxirondon, hilaren 13an, mahai jolasen eguna ospatuko dugu; hilaren 17an eta 18an, lagun ezkutua; eta hilaren 19an eta 20an, Gabon festa. Osintxun, abenduaren 10ean auzoko zuhaitzak apainduko ditugu; hilaren 16an, *Herria lo* jolasarekin dibertituko gara; eta abenduaren 20an, Neoi festa izango dugu. Angiozarren, hilaren 13a mahai jolasen eguna izango da; hilaren 17an, altxorren bila arituko gara; eta abenduaren 20an, amaitzeko, jaialdia izango dugu.

Martxan da Bergara Kirol Elkartearen "zozketa berezia"

Bost sari ditu aurtengo Gabonetako zozketak: lehen saria da otarre erraldoia eta iPad-a; bigarren saria da patinete elektrikoa; hirugarren saria da bidaia baterako opari-txartela; laugarrena, telebista bat; eta bosgarren saria, klubeko material sorta eta Real ikusteko bi sarrera. Txartelak salgai daude Agorrosingo kantuan eta herriko zenbait taberna eta komertzioetan; zozketa abenduaren 31n egingo dute. Bestalde, Gabonetan bi ekintza izango dituzte: abenduaren 27an emakumezkoen txapelketa (Ipintzan, 10:00) eta urtarrilaren 3an gazte mailako gizonezkoen txapelketa, Bergara, Osasuna eta Realarekin (Agorrosinen, 11:00).

OHARRAK

Erretiratuak, Gasteiza

Hilaren 12an, Legebiltzarra inguratuko dute erretiratuek. Autobuserako txartelak San Joxepe elkartearen eta hilaren 9ko elkarretaratzearen eskuratu ahalko dira, zortzi eurotan.

2020ko egutegiak

Bizilagunei eskatzen zaie atea irekitzeko banatzaileei. Jaso ez duenak udaletxean jaso ahalko du, hilaren 9tik aurrera.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Aranzadi ikastolako ikasleak bideokliparen grabaketan. ION ANDUEZA



San Martin Agirre eskolako kideak kantuan. SAN MARTIN



Mariaren Lagundiko ikasleak martitzenean. MARIAREN LAGUNDIA

Euskal kulturaren ezagutzatik, haurren minbiziaz kontzientziatu

EITBren maratoiko erronkari jarraiki, Bergarako ume eta gaztetxoak kantuan jarri dira. Haur minbiziaz kontzientziatzeko asmoz, herriari "berezi" lotutako abestia landu dute: 'Lau teilatu'. Aranzadin gaiarekin lotutako sekuentzia didaktikoa garatu dute

Jone Olabarria BERGARA

Haur minbiziaz jarri du aurrean fokua EITB maratoiak, eta ekimenari sostengua emateko asko izan dira *Lau teilatu* abestiaren bideoklipa grabatu dutenak.

Bergaran ere ez dira atzean geratu, eta lan horretan aritu dira Mariaren Lagundia ikastetxean, San Martin Agirre herri eskolan eta Aranzadi ikastolan: martitzenean, Euskararen Nazioarteko Egunarekin batera filmatu zuten Mariaren Lagundian bideoklipa eta pasa den egubakoitzean, ikastetxeko patioan batuta, kantuan aritu ziren San Martin Agirre herri eskolako ikasle, irakasle eta hainbat guraso ere.

Aranzadi ikastolaren kasuan, EITBk botatako erronka aprobetxatu eta sekuentzia didaktiko oso bat garatu dute, proiektuaren bi ardatz nagusiak oinarri hartuta: euskal kultura eta haur minbizia. Lan horren arduratza gidaritza izan dute Andoni Mujika eta Alex Arteaga irakasle gazteek.

Minbiziaren gaia bistaratu eta egunerokotasunera ekartzea izan da proiektuaren heldulekuetako bat: "Gai konplexua izan daiteke, zenbaitetan tabua ere bai, eta zaila da ikasgelara ekartzea, baina lantzeko beharrezkoa". Hala azaldu dute Mujikak eta Arteagak.

Gai "tabua" bistaratu

Minbiziaren gaia bistaratu eta egunerokotasunera ekartzea izan da proiektuaren heldulekuetako bat: "Gai konplexua izan daiteke, zenbaitetan tabua ere bai, eta zaila da ikasgelara ekartzea, baina lantzeko beharrezkoa". Hala azaldu dute Mujikak eta Arteagak.

"HAUR HEZKUNTZAKO IKASLEAK ZIREN HAUR MINBIZIARI BURUZ GEHIEN ZEKITENAK; ASKO HARRITU GAITU"

Adin ezberdinetara moldatu dute lanketa hori, eta mailetan gora egin ahala zehaztasunetan "sakonduz" joan dira: "Gradualki joan gara gaia lantzen; betiere, aurretik zekitenetik abiatuta. Txikiak ziren, Haur Hezkuntzako ikasleak, aurrez gehien zekitenak. Material ugari landu dituzte eta haien hizkuntzan, noski, azaltzen dute minbizia: zelula txarrak dituztela, kutsatu egin direla zelulak... Asko harritu gaitu".

Informazio eta laguntza bila, "kanpoko adituak" izan dituzte haurren artean gaia lantzeko: "Ikastolako kide bati esker Aspanogi elkarteak izan genituen gurean minbiziari hitz egiten. Material ona, zehatza eta baliagarria bilatzen genuen eta haiengana jotzea erabaki zen. Gainera, oso berezia izan zen, elkarteak hitzaldiak ematen hasi zenean

ere lehena Aranzadin eskaini baitzuen".

Bergarako 'lau teilatuak'

Lau teilatu proiektua izendatu dutenak oinarri du euskal kultura; bereziki, musikaren ikuspuntutik landuta. Hala, "ezin aproposagoa" iruditu zitzaizkien Arteaga eta Mujikari maratoiarren "aitzakia. Abestia gure herriari oinarrituta dago, ikastolatik metro gutxira daude lau teilatu horiek, eta aprobetxatu beharreko kasualitatea zen".

Ikasleen artean euskal kulturarekiko "gabezia" antzematen zutela aitortu dute gazteek. "Azkenaldian, musikari dagokionez, hasi dira berriz euskarazko kantua entzuten, baina horren atzetik dagoenari buruz gutxi dakite, ez dute kontzientziarik".

Itoitz taldearen *Lau teilatu* kantua ere gauza bera gertatzen zen: "Uste genuen ikasle askok ezagutu ere ez zutela egingo abestia, baina, gure sorpresa, gehiengoak bazekien. Dena den, asko ziren abestiaren atzetik dagoen istorioa ezagutzen ez zutenak".

Euskal kultura trikitia eta panderoa "baino askoz gehiago" dela erakutsi nahi izan dute

"LAU TEILATU" KANTUA EZAGUTU BAI, BAINA ASKOK EZ ZUTEN HERRIAREKIN DUEN LOTURA EZAGUTZEN"

Aranzadin: "Estilo ezberdinak landu ditugu, bideoak ikusi dituzte, kantuen atzetik dagoena ulertzen saiatu gara, letrak, doinuak... Ohikotik harago joaten saiatu gara".

Harrera ona

Proiektua proposatu eta ikastolaren partetik "sekulako sostengua" izan dutela adierazi dute Alex Arteaga eta Andoni Mujikak. Aranzadi osatzen duten 700dik gora ikasleak "protagonista" egin dituzte eta maila batean edo bestean gaia landu izana "polita" dela aitortu dute. "Maila batzuetan zaila izan da proiektua garatzeko tarte hartzea; izan ere, honekin hasi aurretik ere lanean zeuden eta horretan txertatzen saiatu gara. DBHko ikasleak, esaterako, azterketa garaian murgilduta ibili dira, eta, hortaz, lanketa ez da hain sakona izan". Helburu komunez gain, maila bakoitzak funtzio ezberdinak izan ditu; esaterako, 3 eta 4. mailetako ikasleak irratsaioa egin dute: "Ikastola barneko komunikazioa bermatzeko, ikasle hauen lana izan zen informazioa batu eta hori gero ezagutzera ematea".

Kameren aurrean

Bideoklipa grabatuta, herriko hezkuntza zentroek euren ekarpena egin nahi izan diote EITBk abiarazitako ekimenari, eta, euskal kulturari oinarrituta, haurren artean lantzeko zailak diren gaiak bistaratu.



Debagoieneko selekzio kide bat erasoan, iazko Bergara Hiria txapelketan. GOIENA

Bergara Hiria eskubaloitxapelketa, bigarrenenez

Bergara Hiria emakumezko kadeteen eskubaloitxapelketa jokatu da domekan Labegaraletan, 10:00etan hasita. Hiruko txapelketa modura antolatu dute, eta bertan lehiatuko dira Debagoieneko selekzioa, Gipuzkoakoa eta baita Errioxako selekzioa ere

Jone Olabarria BERGARA

Bigarrenenez antolatu dute eskubaloiko Bergara Hiria txapelketa. Iaz Bergarak hiri-gutuna jaso zuela 750 urte bete zirela gogora ekartzeko egindako ekitaldien barruan antolatu zuten lehenengoz emakumezko hiruko eskubaloitxapelketa eta aurten, hain zuzen, jarraipena eman nahi izan diote.

Domekan jokatu da, Labegaraletan kiroldegian, 10:00etan hasita. Hiruko txapelketa moduan antolatu dute, kadete mailako nesken artean: Gipuzkoako selekzioa, Debagoieneko selekzioa eta Errioxako taldea izango dira Bergara Hiria irabazteko lehiatuko direnak. Partidu bakoitzak 40 minutu iraungo du, hoge minutuko zati bi.

Eskubaloien "jaia"

Iaz antolatu zuten lehenengoz emakumezkoen hiruko Bergara Hiria txapelketa, eta, Bergara eskubaloiko entrenatzaile Jose-txo Muniategik azaldu duenez,

harrera "polita" izan zuen: "Jende ugari gerturatu zen Labegaraletara. Bai jokalaria, bai ikusleak oso gustura egon zirela esan ziguten eta aurten ere giro hori errepikatzea da asmoa. Eskubaloien jaia izatea espero dugu".

Kadeteekin lanean

Gipuzkoako Eskubaloit Federazioak, Bergarako Udalak eta Debagoieneko taldeek elkarlanean antolatzen dute txapelketa: "Kadete mailako kategoria da kritikoa, 16-17 urte dituzten nesken artean izaten dira eta baja gehien. Orduan uzten dute jokalaria gehienek eskubaloia". Hain justu, Debagoienean lau talde daude maila honetan; Arra-

"BAI JOKALARIAK, BAI IKUSLEAK OSO GUSTURA EGON ZIREN, GIRO POLITA IZAN ZEN LABEGARALETAN IAZ"

satek eta Bergarak talde bana dute eta Aloñak bi talde ditu. Azaroan entrenatzen izan dira hemezortzi neska eta txapelketarako azken entrenamendua egubakoitzean edukiko dute. Hautatzaile lanetan hiru entrenatzaile ibili dira: Arrasateko Josu Urrutia, Bergarako Ruiz de la Cuesta eta Oñatiko Jesus Cantero.

Bergaran hiru talde aurten

Azken unera arte senior mailako taldeak jarrai zezen lanean aritu diren arren, ez da posible izan, eta 2019-2020 denboraldian emakumezko hiru talderekin ari da lanean Bergara eskubaloian: infantil mailako bi talde eta kadete mailakoa. "Taldekide asko unibertsitatean hasi dira eta kanpoan bizi dira astean zehar; hortaz, zaila da taldea mantentzea". Edozelan ere, gogorazi dute duela bost urte ez zutela neskarik; talde bat hasi zen eta haiei jarraia etorri ziren besteak.

Taldekako bertso txapelketan, finalerako txartelak jokoan

Lehen finalerdia jokatu, 'Uharteko izkirak' taldea da lehen finalista; datorren astean izango da bigarrena

J.O. BERGARA

Kopla Barik bertso eskolak antolatuta, Bergarako taldekako bertso txapelketaren lehen finalerdia jokatu zuten pasa den egubakoitzean, azaroaren 29an, Bule tabernan.

Finalerako bidean

Abenduaren 27an kartzela zaharrean jokatu den finalerako txartela izan zen jokoan aurreko asteko egubakoitzean, eta bertan aritu ziren norgehiagokan hiru talde: *Moon Hilak* (Eñaut, Markel eta Unai), *Izen gabekuak* (Moto, Arzelus eta Eñaut) eta *Uharteko izkirak* (Patxi, Redondo eta Enaitz). Hain zuzen, azken hauek, *Uharteko izkirak* taldekideek, lortu zuten finalerako lehenengo txartela. Gai jartzaile lanetan Ibon Leibar *Txinbo* aritu zen Bule tabernan.



Egubakoitzeko irudiak. KOPLA BARIK

Datorren astean, bigarrena

Bigarren finalerdia abenduaren 13an jokatu dute, Pol-Pol tabernan, 22:30ean. Bi talde lehiatuko dira hitzorduan: *Laboratorium* taldea (Madarro, Gari eta Mikel) eta *Puntu Puntu* taldea (Maite, Oxan eta Artola).

Punk-oi! giroa gaztetxean

Arratsaldeko zazpitan hasita kontzertua eskainiko dute kartzela zaharrean No Limits eta Cold Revenge talde bergararrek. Haiekin batera Azken Sustraiak taldea eta Torino eta Perugiatic etorritako Beat eta Azione Diretta taldeak arituko dira. Sarrerak salgai daude Arranon, bost euroren truke.



GOIENA

Batzokia
Jatetxea

Gabonetarako enkarguak jasotzen dira

Eguneko menua • Karta • Menu bereziak
• Taldeendako menu bereziak

San Pedro 4 Bergara • Tel.: 943 25 37 04

Kontsumo talde bat sortzeko aukera berria

Bergarako Ziarreta baserriko Iñigo Gabilondok egingo ditu hornitzaile lanak, eta agertu dira interesa duten lehen herritarrek. Udaletxean dago eskuragarri informazio guztia, eta abenduaren 12rako deitu dute taldea sortzeko batzarra, 18:30ean

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Hamalau herritar gerturatu ziren aurreko astean egindako aurkezpenera. Herritarrez gain, aurkezpenean izan ziren, besteak beste, Gipuzkoako Basherrri sareko kideak, Deba Garaia Landa Garapenerako teknikariak eta Elgetako udal ordezkariak.

Berba egin zuten elikadura burujabetzaz, produkzio sistema jasagarriez, osasunari begirako aukeraketaz, nekazaritza ekologikoz... Eta egin zuten planteamendu bat Elgetarako.

Asentziotik ikusten da Bergarako Ziarreta baserria. Lauzpa-bost denda hornitzen ditu bertako ekoizle Iñigo Gabilondok. Bergaran ere baditu kontsumo talde bitarteko zuzeneko bezeroak, eta azokaz azoka ibiltzen da. Helburua, orain, Elgetako kontsumo taldea osatzeko beste jende elkartzeko da, eta horretan dihardute hainbat eragilek.

Ez da Elgetan kontsumo talde bat sortzeko egiten den lehen saiakera. "Aurretik ere egon dira beste saiakera batzuk, baina herrian ez dago baserriko lanetatik bizi den baserritarrik eta eskaintza apur bat txiki gelditzen zen. Oraingo honetan, oso urrutira joan gabe badago aukera kontsumo talde bat martxan jartzeko, eta hori da asmoa", azaldu du baserritarren batzordeko buru Sebas Aranzabalek. "Abenduaren 12an egingo dugu hurrengo batzarra. Hor ikusiko dugu zenbat jende eman duen izena, eta merezi ote duen taldea martxan jartzea".

Elgetarako eskaintza

Debagoieneko herri ia guztietan daude kontsumo taldeak gaur egun. "Badaude Oñatin, Antzuolan, Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan...eta ondo funtzionatzen dute", azaltzen du Deba Garaia Landa Garapenerako teknikari Mari Carmen Iturbek. "Osasuntsu elikatzeaz gainera,



Aurreko astean Elgetako udaletxean egindako aurkezpen ekitaldia. L.Z.L.

GAUR EGUN, DEBAGOIENEN HERRI IA GUZTIETAN DAUDE KONTSUMO TALDEAK

"Astero egingo nuke banaketa Elgetan"

IÑIGO GABILONDO
ZIARRETA BASERRIA

Ekoizpen ekologikoko produktuak eskaintzen ditu Ziarreta baserriko ekoizleak. **Funtzionamendua zein izango da?**

Astero eguneratzen dut aukeran dituan produktuen zerrenda, eta kontsumo taldeko kideek astean behin egingo dute eskaera. Astero gutxienez bost produktu eskatzeko konpromisoa eskatzen da. Adostutako egunean egingo nuke

kontsumo talde batek aukera ematen du inguruan eragiteko: baserriak bizirik mantendu, elikadura eredu jasagarria bultzatu, inguru naturala zaindu... Onurak asko dira", azpimarratu du Iturbek.



L.Z.L.

banaketa. Ordaindu beharrekoa izango da erositakoaren arabera. **Aspaldi zabiltza honetan?** Gurasoengandik jaso dut baserria, eta duela urte eta erdi erabaki nuen aurreko ogibidea utzi eta baserritik bizitzea. Garrantzitsua da niretzat bezeroekin harreman zuzena izatea. Aspalditik izan da horrela. Gurasoen garaian ere salmenta zuzena egiten zen. Hori suspertzea da asmoa.

Astelehenetik aurrera truke gunea zabalik buztin gelan

Egoera onean egonda ere erabiltzen ez dituzten artikuluak trukatzeko aukera izango dute herritarrek

L.Z.L. ELGETA

"Opariak egiteko ohitura dugun garai honetan, bigarren aukera bat eman nahi diegu bazterrean utzita ditugun gauza horiei", adierazi dute Elgetako Udaletik. Hala, astelehenetik eguenera truke gunea egongo da buztin gelan, eta azoka berezia barikuan kiroldegian. Truke gunean edo-nork utzi eta hartu ahal izango ditu artikuluak. "Norberarena izango da duen beharraren arabera jokatzeko ardura", azaldu dute. Artikuluek erabiltzeko moduan egon beharko dute, eta ezingo dute eduki sexistarik izan. Ez da dirurik erabiliko eta ez da izen-ematerik egingo.

Barikuan azoka kiroldegian

Asteari amaiera emateko, barikuan azoka berezia izango da kiroldegian, 18:00etatik 20:00etara. Bertan, bigarren eskuko



Gabonetako azoka. L.Z.L.

artikuluak eta artisautza produktuak salerosteko aukera izango dute herritarrek. Truke azoka ere izango da, eta mahaia ipini nahi dutenek udaletxean egin beharko dute eskaera, eguna aurretik danonartian@elgeta.eus - .

Katalunia eta Euskal Herria batzeko ekimena zapatuan

Laugarren urtez dator Escamot Catala taldea Elgetara. Dantza saioaz gain, hitzaldi-tertzulia eta bestelakoak izango dira, Herrixa Dantzan-ek, Elgetako Udalak eta Elgetako Gure Esku ekimenak prestatuta. Egun osoko egitaraua dute, eta dimentsio politikoa izango du: 12:00etan hitzaldia, 18:00etan dantza tailerra eta 20:00etan dantza saio irekia.

Sariak eta ipuin saio berriak laster Udal Liburutegian

Laida Unzetabarrenetxeak eta Maia Erostarbek irabazi dute liburutegiak urrian egindako marrazki lehiaketa. Bestalde, *Liburu bat opari* egitasmoa dagoeneko martxan dago. Ipuin kontalari saio bereziak ere badatoz, laster. Hilaren 13an, *Hiri kondairak* izeneko saioa egingo du Ixabel Agirresarobek 15 urtetik gorakoendako.

Lau hitzordu erretiratuen kultura astearren barruan

Martitzenean emango diote hasiera 2019ko kultura asteari Xalbadorpe elkartean. Oroimenak antzerki taldeak *Algo habrán hecho* antzezlan eskainiko du, 17:30ean, Espaloian. Eguaztenean, Alai Taldeak eta Unai Cantabranak kontzertua egingo dute, 18:00etan. Eguenerako bingo saioa dago iragarrita, eta bari-kurako, luntxa eta zozketa.

PILOTA TXAPELKETA

EMAITZAK

Janire Lazkano-Maitena Mañarikua / Ainhua Zeziaga-Uxue Larrea	18-12
Andoni Elorza-Oskar Sarasua / Iker Valle-Etor Garate	18-12

PARTIDUAK, GAUR, 19:00ETAN

Iban Retolaza-Enrike Elkoro / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta
Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi / Sergio Bouzas-Jose Mari Zubiaurre

Herriko kulturaz hausnarrarazi nahian

Plan Estrategikoaren baitan, herriko kulturaren gainean hausnartzen ari dira herritarrek, udal ordezkariak eta kultura eragileak. Hainbat ondorio atera dituzte, eta abenduaren 12an mahai-ingurua egingo dute, ideia berriak abiarazteko asmoz

Maider Arregi ANTZUOLA

Antzuolako kulturaren inguruan eztabaidatzeko hiru saioetako lehena egin berri dute azaroaren 28an. Udal ordezkariak, herriko hainbat kultura elkartetako ki-deak eta herritarrek parte hartu dute; hamabost bat lagunek.

Elkarrizketak, aurrez aurre

Gaur egun herriko kulturak bizi duen egoera hobeto ezagutzeko asmoz, azaroan hamar antzuolar elkarrizketatu dituzte. "Elkarrizketa horietatik jasotakoak elkarbanatu ditugu lehen saioan. Lau ideia nagusi azaleratu dira: batetik, kultur arloan geldialdia sumatzen dutela diote, dagoe-nari eusten zaiola eta ez dela berrikuntzarik egiten; bigarrenik, kulturarekiko atxikimendu falta igartzen dutela diote eta balioan ez dela jartzen diote. Honekin lotuta, Udala kudeaketan zentratzen dela eta sustapen lana egiteko zailtasunak dituela ere azaleratu dute; hirugarrenik, diziplina ezberdinak lantzeko eragozpenak daudela badiote. Orokorrean, sortzaileen lana –musikariak, antzerkigileak, artisauak...– ez dela ikusarazten eta garatzeko aukera gutxi dutela diote; azkenik, esan behar da kultura zabaltzeko erabiltzen diren azpiegiturek balorazio ona



Kultura sustatzeko herriko azpiegiturak txalotu dituzte herritarrek. IMANOL BELOKI

ABENDUAREN 12AN MAHAI-INGURUA EGINGO DA IDEA BERRIAK JASO ETA EZTABAIDATZEKO

jaso dutela", azaldu du Aztiker enpresako teknikari Xabier Luquek. Hala, bileran parte hartu zutenek emaitza horien balorazioa egin zuten eta bizi den egoera ulertzeko iritziak elkarbanatu zituzten. Batzarraren

bigarren zatian, aldiz, aztertutako indarguneak mantentzeko eta ahulguneei aurre egiteko hainbat ekarpen egin zituzten.

Saio ireki gehiago

Hurrengo saioetara begira proposamen horiek izango dira abiapuntua eta aurrerapausoak emateko zer egin behar den adostuko dute parte hartzaileek. "Azpeitiko eta Ondarroako kasuak aztertuko ditugu; kultura arloan egin dutena eta egiten ari direna ezagutu eta ideia berriein eztabaida aberastu gura dugu".

Azken egunak botoa emateko

Udaletxeko aterpean jarri dute kirolari onena aukeratzeko boto kutxa. Herritar orok eman dezake bertan bere botoa. Horretarako, lehen faseko galbahea igaro duten kirolarien zerrenda dute eskura. Eta, hain justu ere, hortik aukeratu beharko dute gustukoaren duten herriko kirolaria. Abenduaren 26an, San Esteban egunean, jakinaraziko dute kirolari kuttunenaren izena.



MAIDER ARREGI

Historiaurrea, bertatik bertara

Trikuharrien edo dolmenen ibilbidea egin dute asteburuan Arrolako mendizaleek. Guztira, historiaz beteriko sei ordu eta 23 kilometroko ibilbidea egin dute. "Inguru politak dira, baina guztion artean zaindu beharrekoak. Ugari dira baso mozketak; eta, horrekin batera, gure ondarea ere arriskuan dago", azpimarratu dute Arrola Mendizale taldeko kideek.



ARROLA

Garbitzailea eta peoia kontratatzeke lan deialdia, negurako

Antzuolako Udalak bi pertsona kontratatuko ditu hiru hilabeterako. Udal langileekin batera garbiketara eta peoi lanak egiteko izango da. Batek Diru Sarrera Bermatzeko Errenta kobratu beharra dauka; eta besteak, berri, familia-ardura daraman emakumea izan beharra dauka. Eskaera egiteko epea abenduaren 13an bukatzen da.

Lanbideren bidez egin behar da nahitaez eskaera. Honako hauek dira bete beharreko baldintzak: Antzuolan erroldatua egotea, Eskola Ziurtagiria edo baliokidea ezinbestean edukitzea. Gidatzeko B-1 baimena izatea eta, gutxienez, lehen hizkuntza eskakizuna edukitzea. Horrez gain, Lanbideko lan deialdiak ezartzen dituen baldintzak bete beharko ditu eskatzaileak.

Informazio gehiago: www.lanbide.eus webgunean eta udal bulegoetara jota.

Olaran ideia eta ekimenen heltzea

Kulturaz jarduteko hurrengo bi saioak abenduaren 12an eta 19an egingo dira Olaranen, 18:30ean. Udalak herritarrek parte hartzea gonbidatu nahi ditu, saio irekiak baitira eta guztion iritziak kontuan hartu nahi dituelako. Abenduaren 12ko saioan, esperientziak partekatuko dituzte.



Xabier Luque teknikaria lehen saioa gidatzen. AZTIKER

MUJKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Eskuko telefonoetan deskargatzeko aplikazioa. M.U.

100 euroko bonuak ditu 'Merkatari'-k abenduan

'Merkatari' zerbitzuaren bitartez dendarien eskaintzak eta herritarren eskaerak eskura dituzte saltzailek eta erosleek, alde bien arteko harremana indartzeko. Herriko hainbat denda eta zerbitzu sartu dira dagoeneko. Abenduan 100 euro zozkatuko dituzte astero

Oihana Elortza OÑATI

Herriko merkatarien eta bezeroen arteko komunikazioa hobetzeko tresna da *Merkatari* aplikazioa. "Saltzaileek euren produktuen katalogoa erakutsi dezakete bertan, dituzten eskaintzen berri eman. Erosleek, berriz, hori ikusteaz gain, eskaerak egin diezazkiekete dendariei", dio *Merkatari* proiektua koordinatzen ari den Ines Aranok. Oñatiko Udalak herriko merkatarien eskura jarri duen tresna da, Goiena lagun duela.

Dendara joan behar da

Dendarien eta bezeroen arteko harremana bertatik bertarakoa, gertukoa, izatea gura du *Merkatari*-k. Horrela, aplikazio honekin, produktuak eskuko telefonoan ikusi arren ezin dira *on line* erosi. "Bezeroak dendara joan behar du gura duen produktu hori erostera. Saltzaileen eta erosleen arteko betiko gertutasun hori babestu eta indartu gura du aplikazio honek".

Tokiko dendek berebiziko garrantzia dute herriaren eraldatze eta etorkizunean; horregatik, *Merkatari*-k teknologiak eskaintzen dituen tresnak gerturatzen dizkie komertzioei. Bezeroek, aplikazioa deskargatzen duten momentutik, herriko eskaintza komertziala modu errazean ikusteko aukera izango dute, euren telefonoetatik bertatik eta dauden lekuan daudela.

Txateatzeko aukera

Aplikazio honekin, gainera, eskaintza orokorrak eta pertsonalizatuak jasoko dituzte dendarien eskutik; produktuen eskaerak erraz egin ahal izango dituzte; eta dendariekin txat bidez kontaktatzeko aukera izango dute,

HONEN HELBURUA DA BEZEROAK HERRIKO KOMERTZIOETARA HURBILTZEA, EZ DA INTERNETEZ SALTZEKO

edozein zalantza erraz argitzeko eta eskaerak eta enkarguak egiteko, besteak beste. Oraingoz, herriko hamabost komertzio batu dira *Merkatari* egitaspora. "Era guztietako dendak eta zerbitzuak daude multzo horretan: janari dendak, ile apaindegia, harategiak, dekorazio dendak, etxetresnak saltzen dituztenak, eta abar. Datozen asteetan hantitu egingo da kopuru hori", dio Ines Aranok. Ekimenera batu gura duenak telefono zenbaki honetara deitu behar du: 688 69 02 55.

Doan da

Aplikazioa dohainik deskargatzea eta erabiltzea oso erraza da eta, gainera, deskargatzearekin bakarrik bezeroek sariak irabaz ditzakete. Orain, esaterako, abendu osoan izango diren zozketak egongo dira. Aplikazioa deskargatzen duten bezeroen artean 100 euroko bonuak zozkatuko dira. IOS eta Android telefonoetan deskargatu daiteke.



Ekimenean parte hartzen duten eragileetako ordezkariak osasun zentroan. M.A.

40 urtetik gorakoengana iritsiko da Poz zerbitzua datorren urtean

Datuek erakutsi dute zerbitzuaren indibidualismoa eta arreta eskertu egiten dituztela bezeroek

O.E. OÑATI

Herritarrek erdigunean jarri eta ongizatea bermatzea du helburu Poz ekimenak, eta, orain arteko datuak positiboak direla ikusita, datorren urtean zerbitzua zabaltzea erabaki dute: 40 urtetik gorakoengana iritsiko da urtarrilaren 7tik aurrera.

Herritarren ongizatea hobetzeaz gain, gizarte harremanetan ere ondorio positiboak igarri dituzte. "Diziplinaren eta motibazioaren eragiten du eta zerbitzuaren indibidualizazioa eta eskaintzen zaien arreta pertsonala asko eskertzen dute erabiltzaileek", azaldu du Kirol teknikari Rosa Mondragonek.

Poz ekimeneko dinamizatzaile Beñat Agirreurretaren esanetan, orain arteko esperientzian ikusi du praktika autonomoa egin gura izan dutela: "Baina esan beharra daukat arriskua ikusi dugula autonomia horretan

eta taldekako ekintzak bultzatu gura ditugula. Izan ere, pertsonen aktibotasuna maila aktibatzeke talde lana da gakoa". Zerbitzuaren eskaera egin dutenen %78 emakumezkoak izan direla aipatu du Agirreurretaren eta euren gura izan diren %70 "mar-txan" dabilatzala.

Osasun etxeko Kizkitza Alustiza erizainak azpimarratu du prebentzioa dela gakoa eta horregatik erabaki dutela zerbitzua 40 urtetik gorakoei eskaintzea. "Gainera, etxeko zerbitzua eskaintzen jarraituko dugu", gaineratu du.

Oñatiko osasun etxean batu dira Mugiment egitasmoa eta Gipuzkoako Aldundiko ordezkariak, Oñatiko Udaleko ordezkariak eta osasun zentroko langileak datu hauen berri emateko. Guztiek azpimarratu dute elkarlana izan dela ekimen honen arrakastaren gakoa.

Astlehenean da HAPOren hurrengo bilera irekia

Oñatiko Plan Orokorraren idazte prozesua aurrerapen fasean dago, eta fase horretako tailer irekia egingo dute datorren astlehenean, abenduak 9, Euskaldun Berria gelan, 18:15ean. Hirilurra eta landa eremuko alternatibak landuko dituzte bilera horretan.

2018an hasi zen Udala herriko Plan Orokorra idazten. Diagnos-

tikoa egin zuen, parte-hartze saioetan herritarrengandik jasotako ekarpenak bilduta. Diagnostiko horretan udalerriaren analisia egin zen: lurraldearen eta ingurune fisikoaren ezaugarriena, biztanleriarena, hiri esparruarena, egungo planaren garapenarena eta aplikagarria zaion Udalaz gaidiko araudia-rena. Diagnosi horrekin aurrerapen faseari ekin zion Udalak; herritarren iritziei aukera konkretuak landu ditu eta horiek aurkeztuko ditu astlehenean.

Urteko azken egunean itxiko dituzte igerilekuak

Urtarrilaren 1etik aurrera, Zubikoan eta Eltzian egongo dira egun kiroldegian dauden zerbitzu gehienak. Bi txartel izango dituzte aukeran abonatuak: Oñatikoa eta bailarakoa. Bigarren horrek aurtan herrikoak izan duen kostu bera izango du 2020an

Oihana Elortza OÑATI

Abenduaren 31n, urteko azken egunean, itxiko dituzte igerilekuak eta urtarrilean hasiko dituzte berriak egiteko lanak. Urtarrilaren 1etik aurrera, beraz, egun Zubikoan dauden kirol zerbitzu gehienak herriko bi eraikinetan egongo dira banatuta: kiroldegian bertan eta Eltzian. Igerilekuak erabiltzeko, Arrasate eta Bergarako udalekin egin du akordioa Oñatikoak, oñatiarrek herri horietako putzuak erabiltzeko igeri egiteko.

Zer Zubikoan eta zer Eltzian

Herriko igerilekuen faltan, ondoko herrietakoetara joan ahal izango dira 2020an oñatiarrek; izan ere, lanak urtebetea amaitzea aurreikusten dute udal ordezkariak. "Datorren urte hasieran ekingo diete lanei, eta, dena ondo bidean, 2021eko urte hasieran estreinatuko ditugu igerileku berriak", adierazi du Kirol zinegotziak, Maite Antonek.



Herritar bat kiroldegira sartzen eguazten eguerdian. O.E.

Igerilekuen itxierarekin, baina, inguruko hainbat instalazio ere itxi egingo dituzte, hala nola azpiko aldagelak, aerobik gela, karate gela, bulegoak, medikuntza gela, gimnasioa, rokodromoa eta squash aretoak. Oskar Ca-

rrascal Kirol teknikariak, baina, azaldu du zerbitzuen berrantolaketa egingo dutela, ahalik eta aukera zabalena eskaintzen jarraitzeko herritarrei. "Gune hezeko zerbitzuak, rokodromoa eta squash ezingo ditugu es-

kaini gero, baina bai beste zerbitzu guztiak. Zubikoan, esaterako, kantxak erabilgarri egongo dira, baita ekintzen gidatuetarako erabiltzen diren bi gela. Beste zerbitzuak Eltzian kokatuko ditugu. Han egongo dira: gimnasioa, ekintza gidatuetarako gela, aldagelak eta komunak".

Eltziako hirugarren solairuan egongo da gero gimnasioa; egun Zubikoan dauden makina guztiak eramango dituzte hara. Gizon-ekoizketako eta emakumeentzako aldagela bana ere egongo da, baina ez da dutxa zerbitzurik egongo; dutxatzeria kiroldegira joan daitezke.

Txartela behar da

Obrek irauten duten bitartean, kantxa urdinean egokituko da Zubikoako sarrera edo harreagunea. Orain bezala, hatzmarka digitala edo bazkide txartela beharko da instalazioan sartzeko. Pilotalekua eta tenis pistak ere erabilgarri egongo dira, eta baita bi kantxak ere; 12:30etik 14:30era, baina, abonatuak kantxa bat erabili ahal izango dute jarduera fisikoa egiteko.

Eltzian sartzeko ere txartela beharko dute herritarrek. Urtarrilaren 13an zabalduko dute hango gunea, eta, Maite Antonek adierazi duenez, bizpahiru egunetan ate irekiak egingo dituzte, jendeak han egokitutako instalazioak ikus eta proba ditzan.

Bi txartel mota izango dituzte aukeran herritarrek datorren urtean: Oñatikoa eta bailarakoa. Oñatiko txartelarekin bakarrik herriko kirol zerbitzuak erabili ahal izango dituzte herritarrek. "Gune hezearen gastuen kalkulua egin dugu eta hori izan dugu kontuan Oñatiko txartelaren kostua kalkulatzeko. Oñatiko kirol txartelaren prezioa 2020an izango da aurtengoarena baino %38 txikiagoa, gehi txartelak balio dituen bost euroak. Hori baina kuotan sartuta dago", azaldu du Xabier Igartua zinegotziak. "Bailarako edo *Mugiment* txartela ateratzen duen herritarrek, berriz, 2019an herriko txartelagatik ordaindu duen kopuru bera ordainduko du", gaineratu du Igartuak.

Altak eta bajak

Carrascalek azaldu duenez, herriko txartela egin gura dutela esan ezean, *Mugiment* txartela edo bailarakoa egingo zaie, automatikoki, Oñatiko abonatuak. Hori, baina, urtarrilean zehar egingo da, ez lehen egunetan. Datozen egunetan, aldaketa guztiak jasotzen dituen informazio orria jasoko dute abonatuak.

URTARRILAREN 13AN ZABALDUKO DUTE ELTZIAKO KIROL-GUNEA, ETA IKUSTEKO AUKERA EGONGO DA

Partaidetzako partiden betetze maila "baxua" dela dio EAJK

Prozesuari "babes osoa" eman ziotela eta orain "engainatuta" sentitzen direla gaineratu dute jeltzaleek

O.E. OÑATI

EAJko udal taldeak adierazi du "etsipenduta" daudela parte-hartze prozesutik eratorritako partiden betetze maila ikusita. "Prozesuari gure babes osoa eman genion eta publikoki konprometitu ginen, eta engainatuta sentitzen gara, eta herritarrek ere hala sentituko direla pentsatzen dugu", diote jeltzaleek. Eta gaineratu: "Aurrekontuetan jasotzen diren konpromisoak bete beharrekoak dira, bereziki herritarren ekarpenak badira, eta beharrezkoa da denborarik

galdu gabe lanari gogor ekitea, Oñati atzean gera ez dadin". EAJK dio 2019rako herritarren parte-hartzearen bidez jasotako partiden betetze maila, azaroaren 27ko exekuzio datuen arabera, %6 ingurukoa dela. Aipatu dituen adibideen artean dago erabilera publikoko komun irisgarriak jartzeko 110.000 euroko partida jarri zela eta 3.748,87 euro baino ez direla erabili. 2029an egin ez diren proiektuekin zer gertatuko den ez dakiela ere esan du EAJK, "2020rako ez baitira jaso".

Geldialdiak egingo dituzte Natran lan hitzarmenagatik

Oñatiko Natra enpresan bi orduko geldialdiak egingo dituzte errelebo bakoitzean datorren astean, lan hitzarmena hobetzea eskatzeko. Abenduaren 8tik 19ra egingo dituzte lan geldialdiak. ELAK jakinarazi duenez, hila-beteak dira Natrako enpresa batzordea hitzarmena negoziatzen hasi zela, eta egindako sei bileretan ez dutela emaitzarik jaso. Horrela, azaroaren 29an egindako batzar orokorrean erabaki zuten lan geldialdiak egitea. Langileen aldarrikapenak dira: errelebo kontratua, laugarren erreleboaren plusa hobetzea, kategoriak antzinakotasunagatik izatea eta KPIaren arabera soldata igoera, besteak beste.

Txokolateari buruzko hitzaldiak eta kandelak asteburuan

Bihartik domekara bitartean, eskaintza bereziak egingo ditu Turismo Bulegoak. Bihar, egubakoitza, eta zapatuan, esaterako, txokolateak Oñatin izan duen bilakaeraren berri emateko hitzaldiak egingo dituzte, Txokolateixan, 12:00etan eta 17:30ean. Unibertsitatara eta San Migel parrokiara egingo dituzten bisitak, berriz, hiru egunetan egingo dituzte 13:00etan eta 16:30ean, eta zapatuan, 18:00etatik 19:30era Sancti Spiritus unibertsitatearen kandelaren argien xarmaz ikusteko aukera eskainiko dute. Arrikrutzen ere ohikoa baino zabalagoa izango da kobak ikusteko ordutegia egubakoitzetik domekara.

OHARRAK

Autobusa bihar

Bihar, abenduak 6, ez da Arantzazurako autobus zerbitzurik egongo eta ohiko herribus zerbitzua egongo da.

Eskola kiroliek ez

Asteburu honetan, 6tik 8ra, ez da eskola kirolean aste barruko eta asteburuko jardunik izango.

Ohitura osasuntsuak

Ohitura osasuntsuen gaineko gomendioak emango dizkiete gaur, eguna, Markel Irizarrek eta Amaia Diaz de Monasteriogurenak 12 eta 14 urte bitarteko ikasleei, kultura etxean. Kirolak eta jateko ohiturek duten garrantziaz hitz egingo dute.

Hogeigarrenez herriko kirolari onenak saritzera

Datorren abenduaren 20an, Oñatiko Kirol Sariak banatzeko ekitaldia izango da eta herritarrek Axier Alonso, Danel Casais eta Beñat Guridi kirolarien aldeko botoa emateko aukera izango dute, abenduaren 9tik 18ra bitartean, udal atarian

Maialen Regueiro OÑATI

2019ko Kirol Sariak abenduaren 20an banatuko dituzte, udal-lexean, hogeigarrenez. Ekitaldian, urtean zehar herrian nabarmendutako kirolariak sarituko dituzte. Herritarren saria jasotzeko aurtengo hiru hautagaiak hauek dira: Axier Alonso, mendiko eskiko Euskal Herriko txapelduna izateagatik; Danel Casais, denboraldi borobila egi-teagatik; eta Beñat Guridi, gazte mailan 1.500 metroko Euskadiko txapelduna izateagatik.

Herritarrek euren botoen birtarte erabakiko dute zein den herriko kirolaririk onena. Botoa abenduaren 9tik 18ra bitartean eman ahalko da www.oñatiko.eus atarian. Gainera, botoa ematen duten herritar guztien artean, bi lagunendako afaria zozkatuko dute.

Hautagaien poztasuna

Herritarren saria jasotzeko hiru hautagaiek "pozik" hartu dute hautagaitza. "Edozein esker on

jasotzea pozgarria da, baina herriaren aldekoa denean are pozgarriagoa da", adierazi du Alonsok. Mendiko eskiko Euskal Herriko txapelduna izan da Alonso eta hautagaitza horrekin "mendiko eskian izandako bizipen politak" etorri zaizkio gogora. Casaisek ere "pozik" hartu du sari hau jasotzearen hautagaitza. "Hainbat lesio izan ditut eta ez da urte erraza izan". Hori da, hain zuzen, Casaisek hautagaitza ez espero izatearen arrazoia, baina urte osoko lana baloratu dutela sentitu du. Izan ere, Casais Euskal Selektzioarekin izan zen Kataluniako txapelketan eta emaitza onak lortu zituen. Ondoren, beste lasterketa batean min hartu zuen eta

HERRITARREN SARIA AXIER ALONSOK, DANEL CASAISEK EDO BEÑAT GURIDIK JASOKO DU

denboraldia bertan amaitu behar izan zuen. Azkenik, Guridik "harriduraz" hartu du kirolari onenaren hautagaitzaren albiste. "Ez nuen inondik inora espero, baina pozik hartu dut albiste". Guridi Euskadiko txapelduna da gazte mailan, 1.500 metrokoan.

Epaimahaiaren sariak

Herritarren botoei esker emandako sariez gain, epaimahaiak 2019an zehar nabarmendutako kirolari, talde, entrenatzaile eta ibilbide onenak sarituko ditu. Aipamen berezientzako tarteak ere izaten da ekitaldian –iaz lau aipamen berezi banatu zituzten–. 2018an, Aimar Erostarberi eman zioten kirolari onenaren saria, plater tiroketa taldeari talde onenarena, Jon Odriozolari zuzendari onenarena eta Anton Sierrari ibilbide onenarena. Aipamen bereziak, berriz, Garazi Erostarbek, Xabi Murgiondok, Xabier Infantekek eta Xabi Letek jaso zituzten.



IMANOL SORIANO

Oroitzapenak gogora ekarriz

Ganbara Abesbatzak 25. urteurrenako kontzertu "hunkigarria" eskaini zuen Bidaurretan eta "oroitzapenak batzeko" balio izan zuen.

60 lagun aritu ziren abesten, gaur egun abesbatza osatzen dutenek eta kide ohiek. Gainera, urte hauetan zuzendari izan direnei oroigarriak banatu zizkieten, eta ondoren, afariaz gozatzeko aukera izan zuten.

Organo kontzertua domekan, Aitor Olea Juaristiren eskutik

Aitor Olea Juaristi organo jotzaileak kontzertua eskainiko du domeka honetan, beneditarren elizan, 17:00etan hasita.

Emanaldia bost obraz osatuta egongo da, Johann Sebastian Bach-en organo jotzailearenekin, hain zuzen.


Oleak musika ikasketak egin zituen Donostian, Bilbon eta Gasteizen eta kontzertuak eman ditu, besteak beste, Euskal Herrian, Espainian, Frantzia eta Belgikan. Gaur egun, Bergarako San Pedro elizak duen 1889ko Stoltz-Freres organoaren organo jotzaile titularra da, eta Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioan erreperatorioko piano jotzailea.

'Etxean' ikuskizuna ikusteko sarrerak salgai daude jada

Potx eta Lotx pailazoez apirilean aurkeztu zuten *Etxean* izeneko ikuskizun berria, eta, Euskal Herriko hainbat herritan aurkeztzen ibili ostean, abenduaren 27an, egubakoitza, Santa Ana antzokian eskainiko dute ikuskizuna, 17:00etan hasita.

Potx eta Lotxen ikuskizun berria ikusteko sarrerak salgai daude dagoeneko, Txokolateixan, txarteldegia digitalean eta www.oñati.eus atarian, hiru euro eta erditan.

Familia mota guztiei zuzendutako ikuskizuna da Potx eta Lotxen *Etxean* eta esketx ezberdinez osatuta dago, non musika, abentura eta bihurrikariak ez diren faltako.



AXIER ALONSO
MENDI ESKIATZAILEA

Axier Alonso (1988) 2013an hasi zen mendiko eskian. Alonsori txikitatik gustatu izan zaio eskiatzea eta mendian aritzea. 2015ean hasi zen txapelketetan parte hartzen eta orduetik geroztik eta gehiago lehiatu da modalitate horretako txapelketetan; azken denboraldia seriotasunez hartu du. Izabako Euskal Herriko mendi eskiko lineako txapelketan onena izan zen.



DANEL CASAIS
TXIRRINDULARIA

Danel Casais (2003) duela bi urte hasi zen Aloña Mendiko txirrindularitza sailean, aurretik futbolearen eta karatearen aritua ostean. Maiatzean Euskal Selektzioarekin aritu zen Katalunian eta emaitza onak lortu zituen: hirugarren errepidetako saioan eta bigarren erlojupekoan eta sailkapen orokorrean. Horrez gain, Abadiñoako lasterketan azkarrena izan zen Casais.



BEÑAT GURIDI
ATLETA

Beñat Guridik (2001) atletismoan dihardu azken hamarkadan, hainbat txapelketa jokatu ditu, eta emaitza onak lortu. 2016an, besteak beste, Aloña Mendiko kadete mailako taldearekin Euskadiko txapelketan lehiatu zen eta irabazi egin zuten. 2019ko maiatzean, Gasteizen jokaturako Euskadiko txapelketan onena izan zen 1.500 metroko proban.

Bera Bera eta Zuazo taldeen lagunartekoa gaur Zubikoan

Aloña Mendiko eskubaloiz sailak eta Udalak antolatuta, gaur, eguna, 19:00etatik aurrera, Super Amara Bera Bera eta Zubileta Evolution BM Zuazo taldea aurrez aurre izango dira Zubikoan, lagunarteko partidua jokatzeko. Nagusiek bost euro ordaindu beharko dute sarrera eta 15 urtetik beherakoek, berriz, bi euro eta erdi.

Japonian jokatzen ari den eskubaloiko munduko txapelketa dela eta –abenduaren 15ean amaituko da–, Bera Berak lau lagunarteko partidua jokatuko ditu –horietatik bi jokatu ditu dagoeneko– eta gaurkoa horietako bat izango da. Azaroaren 30ean ere Zubileta Evolution BM Zuazo izan zuen aurkari eta donostiarrek 29-27 irabazi zioten Barakaldoko taldeari. Modu horretan, gaurkoaz gain, Bera Berak abenduaren 13an jokatu du azken lagunartekoa.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behe / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibarra 32, behe / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Boente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iratibarra 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Goroarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 76 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

JULEN MURUAMENDIARAZ KIROPRAKTIKA ZENTROA

Bergara / Ibarra 41 / 688 80 16 72

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibarra 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Laramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

ONEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.



Bergarako eta Leintz Arizmendiko jokalaria, martxoan, aurreko denboraldian jokaturako derbian (3-2). GOIENA

Sasoi ezin hobean iritsi dira bi taldeak derbira

FUTBOLA Egubakoitzean (18:30, Ipintza), emakumezkoen ohorezko erregionalean azken zortzi partiduetatik zazpi irabazi dituen Bergarak Leintz Arizmendi hartuko du; oraingoz, kategoriako oilarra. Bi taldeak oso sasoi onean iritsiko dira partidura

Xabier Urzelai ARRASATE

Bergarari kosta egin zitzaion ligari neurria hartzea. Lehenengo hiru partiduetan ezinean ibili ziren, aldaketetara egokitu beharra zegoen. "Entrenatzaile berria, hamar jokalaria berri... Aldaketa handiak izan zituen taldeak", dio talde mahoneroko entrenatzaile Lander Ugartek. Nire kasuan, esaterako, hainbat

urtez gizonezkoen taldeak entrenatzen ibili eta gero lehenengoz nabil emakumezkoekin, eta bai, hasierako jardunaldi horietan emaitzak ez ziren nahi modukoak izan".

Bergarak, baina, segituan heldu zion martxa onari, eta ondorengo zortzi partiduetatik zazpi irabazi egin ditu: "Bai, oso gustura nago taldearen errendimen-

duarekin. Etxean oso indartsu bilakatu gara eta garbi daukagu zein den gure jokatzeko modua. Gure jokoa zuzena da, aurrean kalitatea dugu eta baloi geldiko jokaldietan min egiten saiatzen gara; defentsan, berriz, sendo egoten ahalegintzen gara. Akaso, ez da izango jokatzeko modurik ikusgarriena, baina orain arte emaitza onak batu ditugu

Etxean bigarrena irabazteko ordua du Aretxabaletak

FUTBOLA Touringen kontra jokatu du UDAk domekan. Mondrak gaur du lehia eta Bergarak bihar; biek kanpoan

Xabier Urzelai ARRASATE

Ordua zen ohorezko erregional mailako hiru taldeek emaitza positiboa batzeko, eta joan den astean egin zuten hori, bai Aretxabaletak (0-1, Añorgan), bai Mondrak (3-2, Elgoibarren kon-


tra) eta baita Bergarak ere (3-1, Oiartzunen kontra) garaipena eskuratu zutelako. Hala, aste-buru luze honetan Aretxabaleta izango da etxean jokatu duen ordezkari bakarra, eta atzealdean dabilen Touringen bisita izango

du Ibarren (domeka, 16:30). Aretxabaletarrek partidu bakarra irabazi dute Ibarren, eta domekan dute bigarren garaipena batzeko aukera ederra.

Mondrak gaur, Bergarak bihar

Mondrak gaur, eguna, jokatu du, Añorgaren zelaian (21:15). Bosgarren dago talde donostiarra, baina azken jardunaldietan bolada txarrean dabil. Eta bihar, egubakoitzea, jokatu du Bergarak, Deban (16:30); seigarren dago Amaiak Bat taldea.

Horrela ikusten dute kontrarioa:



LANDER UGARTE
BERGARAKO ENTRENATZAILEA

"Leintz Arizmendi koska bat gorago dago"

"Lehen talde ona bazuten, Aloña Mendiko jokalaria onenak taldera batu zaizkie, eta orain momentuan koska bat gorago dagoen taldea dela esango nuke. Kategoriaz igotzeko hautagai nagusia da, inolako zalantza barik, talde indartsuen kontra ere jokatu dutelako eta euren kontra ere irabazi egin dutelako. Oraindik ez dute partidurik galdu, datu horrek uste dut dena esaten duela. Oso partidu ona egiten ez dutenean ere, oso maila oneko jokalarie esker norgehiagoka erabakitzeak kapaz dira".



ANDONI EZKURRA LEINTZ
ARIZMENDIKO ENTRENATZAILEA

"Bergarak puntu gutxi oparitu dugu Ipintzan"

"Kosta egingo zaigu Bergaran irabaztea, ez daukat inolako zalantzarik. Oraindik ez dute etxean norgehiagokarik galdu; izan ere, Ipintza oso ezaugarri bereziak dituen zelaia da: estua, txikia... Eta berdegune horri Bergarako taldeak sekulako errendimendua ateratzen dio. Ez dut uste partidua apurtuko denik, lehenengo gola egiten duenak aurrerapauso handia emango duela uste dut. Maila oneko jokalariai dituzte aurrean, baina ez dute borroka saihesten, gogorak dira".

horrela eta ez dugu ikusten al-daketarik egiteko beharrik".

Leintz Arizmendi, lider sendo

Bergarakoek, baina, badakite egubakoitzean aurrean izango duten kontrarioa ez dela nolanahikoa, Leintz Arizmendik ez du-eta oraindik partidurik galdu. "Ondo gabilta, zenbakiek hori diote, eta, zorionez, ez dugu min hartutako jokalaririk; horrenbestez, eskura ditudan jokalaria guztiekin joango gara Bergarara", dio Andoni Ezkurra. Azken batean, eta Bergarako jokalariai

alde batera utzita, Leintz Arizmendi Debagoieneko selekzio modukoa sortu dute, eta ligako oilar bilakatu dira: "Aurreko asteko Urolaren kontrako garaipena garrantzitsua izan zen; ea Gabonak arte abantaila honi eusten diogun".

**LEINTZ ARIZMENDI
LIDERRA DA; AZKEN
ZORTZI LEHIETATIK
ZAZPI IRABAZI DITU
BERGARAK**



Urzelai, bergararren kontrako derbian, aurtengo ligan. GOIENA



Idurre Caro, Malen Ugarte eta Malen Osinaga, ezkerretik eskuinera zutik, eta Eneritz Osinaga, makurtuta. ASIER OSINAGA

Lau oñatiar Espainiako Orientazio Txapelketan

ORIENTAZIOA Extremadurako Ambroz haranean jokatu da, gaurtik domekara, eta bertan ariko dira, Euskal Selekzioarekin, Eneritz eta Malen Osinaga ahizpak, kadete mailan, eta Idurre Caro eta Malen Ugarte, infantiletan; lehen aldia dute azken horiek

Julen Iriondo OÑATI

Puntu batetik beste batera, mapa interpretatuz eta iparrorratzaren laguntzaz, zenbait kontrol-gunetatik pasata, nor lehenago iritsi; hitz gutxitan, hori litza-teke orientazio proben funtsa. Mendian egiten dira, batez ere, nahiz eta kalean ere jardun dezaketen. Azkar joatea garrantzitsua, beraz, baina baita mapak ondo irakurtzeko gaitasuna, iparrorratza maneiatzekoa eta, lehenbailehen abiatu behar horretan erabaki zuzenak hartzea.

Asier Osinaga hasi zen Oñatin orientazioa bultzatzen –eskola sortu zuen eta, gaur egun, 40 partaide inguru ditu–, eta haren alabak dira asteburuan Extremaduran ariko direneta bi, Eneritz eta Malen Osinaga: "Duela sei bat urte inguru hasi ginen orientazioan. Aita hasi zen, eta bere lasterketak ikustera joaten ginenean gu ere kategoria ez ofizialetan lehiatzen hasi ginen. Mendira joatea asko gustatzen zaigu, eta orientazio kirolak

mendian ibiltzeko beste aukera bat dira; entrenigarria, gainera", diote ahizpek.

Espainiako Txapelketan bigarren aldia izango dute, iazko Galiziako esperientzia eta gero. Hautatzaileak berriro deitu ditu aurten: "Harro nago Euskadi ordezkatzeko dudalako. Bertara joatea ohore bat da, eta pribilegio bat. Gure adineko orientazio kiroleko gazte onenekin lehiatuko gara", dio Eneritzek; Malen ahizpak "opari" deritzo aukerari. "Erronka" da Idurre Caro-rentzat.

Lehen aldia izango dute Espainiako Txapelketan Carok eta Malen Ugartek; osinagatarrak bezala, ondo pasatzeko asmotan doaz Extremadurara, emaitzei

GAZTELA-MANTXAKO SELEKZIOAK, ADIBIDEZ, MAILA HANDIA DUELA DIOTE OÑATIAK

dagokienez helburu zehatzik jarri gabe. "Ondo pasatzera eta dena ematera goaz. Lagun berriak egitera ere bai, oso giro ona sortzen dela kontatu didate", dio Carok.

Hiru proba bakoitzak

Jakitun dira oñatiarrak oso maila altua topatuko dutela txapelketan. "Adibidez, Gaztela-Mantxako taldeak maila izugarria dauka; agian, bertan egitura sendoagoa duelako orientazio kirolak. Baina gu ez gara bel-durrez ibiliko", dio Eneritz Osinagak.

Txapelketak iraungo dituen lau egunotan, hiru proba izango ditu kirolari bakoitzak, bakar-kako bi eta errelebotara bestea. Zati handiena basoan egin beharko dute, baina izango dute kale artean nola moldatzen diren erakutsi beharra ere. Hiru probetako puntu denak batuta jakingo da zein izango den Espainiako Txapelketako sailkapenean erkidegoen hurrenkera.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA

Añorga-Mondra
Eguena. 21:15. Rezola.
Aretxabaleta-Touring
Domeka. 16:30. Ibarra.
Amaiak Bat-Bergara
Barikua. 16:30. Errotazar.

LEHEN ERREGIONALA

Zestoa-Aloña Mendi
Barikua. 15:45. Iraeta.
Ikasberri-Aretxabaleta
Zapata. 16:30.
Garmendipe.
Bergara-Urki
Barikua. 16:15. Ipintza.

OHOREZKO GAZTEAK

Aretxabaleta-Mondra
Barikua. 16:30. Ibarra.
Aloña Mendi-Eibar
Barikua. 16:30.
Azkoagain.
Bergara-Burumendi
Domeka. 16:30. Ipintza.

EMAKUMEZKO OHOREZ

Bergara-L. Arizmendi
Barikua. 18:30. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Eskoriatza-Aurrera V.
Barikua. 11:00. M. Muñoz.

EUSKADIKO TXAPELKE.

Hegalariak-Aretxabal.
Martitzena. 20:15.

Sondika.

Mondrate-Labastida
Zapata. 17:40. Musakola.

SASKIBALOIA

EBA

Goierri-MU Barikua.
18:30. Aldiri.

MU-Pas Pielagos
Domeka. 18:30. Iturripe.



MU-Pas Pielagos partidua. IMANOL SORIANO

SASKIBALOIA Bi partidua asteburu berean MUK; bigarrena, etxean

Goierriren kantxan jokatu dute, hasteko, arrasatearrek, bihar. Sailkapenari begira, irabazi beharreko partidua, orain arteko bederatzi partiduetan garaipen bakarra dute-eta aurkariak. Domekan, oster, etxean jokatu dute, 18:30ean, sailkapeneko goiko postuetan MÜren balantze bera (7-2) duen Pas Pielagosena kontra.

FUTBOLA UDA, lehen, eta Mondra, bigarren, lehiak gazte mailan

Ezin derbi interesgarriagoa jokatu da bihar, egubakoitza, 16:30ean, Ibarra futbol zelaian. Gazte mailan, Aretxabaleta eta Mondra ariko dira aurrez aurre. Etxekoak lider dira sailkapenean, 31 punturekin, berdindutako eta galdutako partidua izan ezik beste guztiak irabazita. Ibarran irabaziz gero, baina, Mondrak berdindu egingo luke UDArekin.

ARETO FUTBOLA Bihar izango du Eskoriatzak partidua Aurrerarekin

Bihar, barikua, 11:00etan hasiko da Manuel Muñoz kiroldegian Eskoriatzaren eta Gasteizko Aurreraren arteko lehia. Eskoriatzarrak sailkapeneko atzeko postuetan daude, bi garaipen, bi berdinketa eta bost porrotekin, eta alderantzizko zenbakiak –bost garaipen, bi berdinketa eta bi porrot– eta sailkapen egoera askoz hobea dituzte arabarrek.

TXIRRINDULARITZA Hamar edizio beteko ditu Oñatiko ziklo-krosak

Hurrengo domekan, hilak 15, izango da Oñatiko ziklo-krosaren hamargarren edizioa. Kadete, junior, open eta master mailetan jokatu da. Master mailako lasterketa 09:30ean hasiko da; 10:30ean, kadete mutil eta neskena; 11:30ean, mutil junior eta neska open eta juniorrena; 12:30ean, azkenik, open mailako mutilen txanda izango da.

Eskualdeko sortzaileak

Debagoieneko sortzaileek kaleratu dituzten askotariko lanak izango dira eskuragarri; aurten argitaratutakoak eta zaharragoak.



No Retorno

Arkada Social

Mauka Musikagintza



Gaur hamar t'erdietan Kafe Antzokian

Ruper Ordorika

Elkar



Errailetatik

Sharon Stoner

Autoekoiztua



Afrikanerrak

Eneko Barberena


Elkar



Magali ez dago bakarrik

John Andueza

Elkar



Iker Martinez

Lurralde berriak

Autoekoiztua



Dantzatu, madarikatuok!

Assata

Autoekoiztua



Herensugearen itzulera v: sataripeko guda

Errasti-De la Maza familia

Autoekoiztua

Beñat Alberdi ARRASATE

Mende erdi pasatxo darama Durangok euskal kulturaren plaza nagusia bere gain hartzen Gerediaga elkartearen eskutik. 54 urtek askorako ematen dute, eta horren erakusgarri da oraindik ere berritasunak eskaintzen dituztela. Esaterako, estetikoki aldatu dute azoka bera eta gune berri bat sortu, Gogoetaren Plaza. Lan berriak 400dik gora izango dira; tartean, debagoien-darrek euren kabuz eta elkar-lanean sortutako hamasei lan.

Osorik DA! hartu du lelo aurtengo kultura plazak eta *#54da* Twitterreko gako. Azoka bera deskribatzea zen gakoa: "Leloak aurrean *ekosistema* hitza darama", azaldu du Miren Mujikak, Gerediaga elkartearen presidentea. "Mota askotako sortzaileak daude, eta bisitariak eurek profil askotarikoak dituzte. Horrek guztiak ekosistemari zentzua ematen dio. Hori guztia euskal kulturaren ekosistema da".

Azoka osotasunean

405 lan izango dira lehenengo aldiz eskuragarri azokako kateetan: 273 liburu, 91 disko, hamasei aldizkari, bost ikus-entzunezko eta hogeitaz bestelakoak. Ez da horretara mugatu, ordea. Autoekoizlearen plazan hamalau sortzaile batuko dira, disko, liburu eta ikus-entzunezkoekin. Guztira, 264 erakusmahai egongo dira. Dena den, zenbakiei begira baino, antolatzaileek nahiago dute aniztasunari erre-

Urteko euskal kulturagintzaren uzta eskuragarri

Gaur, eguena, azken urteetan moduan, Ikasleen Egunarekin abiatuko da Durangoko Azokaren 54. edizioa, eta domeka bitartean zabalik egongo da 10:00etatik 20:00ak bitartean; Landako Gunean eta herriko hainbat txokotan eskaintza zabala dago

paratu. Kultura sortzeko eredu bakar edo bakarrik ez izatea nabarmendu du Gerediaga elkartearen zuzendariak. "Urtetik urtera ugaritasun hori ikusten dugu zabaldu egiten dela, eta horrekin oso pozik gaude".

Aniztasuna ardatz hartuta, azoka bera ere ez da atzean gelditu. Garapenean ez du etenik izan kultur plazak, eta, are guztiago, garai berrietara egokitzen.

AZOKAN SALGAI DAUDEN DISKOETAKO KANTA BANA ELKARBANATU DUTE SPOTIFYN

Esaterako, lehenengo aldiz, Durangoko erakusmahaietan lehenengoz salgai egongo diren kantuak elkarbanatu dituzte sare sozialetan; zehazki, Spotify plataforman. Disko bakoitzeko kantu bana igo dute musika entzuteko horren erabilian den aplikaziora.

Berrikuntzekin jarraituta, erakusmahaiak eurek jasan dituzte aldaketak. Egurrez osatutako stand berriak jarriko dituzte. Mujikak argitu du aurrekoek 54 urtean euren lana ondo beteta zutela. Baina aldaketa estetikoari dagokionez ez da bakarra izango. Izan ere, koloreak erabiliko dituzte erakusmahai bakoitzean zein motatako pro-

duktua dagoen jakin ahal izateko. Bisitariak hobeto kokatzea dute xede.

Gogoetaren plaza

Gune berri bat ere egokitu dute, Gogoetaren plaza, Musika Eskolan; hau da, Landako parean. "Beharrezkoa ikusten genuen espazio bat da. Landako txiki gelditzen ari zaigu ia", zehaztu du zuzendariak. Hainbat gai

ESKUALDEKO SORTZAILEEK ERE DURANGON DITUZTE SORMEN BERRIAK: HAMASEI LAN BERRI

landuko dituzte bertan; besteak beste, euskal prentsa eta euskara integrazio hizkuntza gisa. Hala ere, *Da PRO* egitasmo berria bertan landuko dute; kultur programatzaileak eta sortzaileak batzea daukatela helburu esan du Mujikak: "Batetik, programatzaileek ezagutzeko sortzaile berri horiek, eta hori espero dugu, aurrerantzean euren programazioan sartzeko".

Bestalde, iaz abiatu zuten Sormen Bekaren bigarren edizioa antolatu dute aurten. Aurreko urtean, jolas edo jokoetara bideratu zuten proiektua. *Ato-piaRPG* rol jokoak lortu zuen beka, eta diseinuan parte hartu du Xabier Sagasta Lacallek, Arrasaten jaiotako ilustratzaileak. Izatez, euskara hutsean jolastu ahal izateko lehenengo rol jolasa sortu dute. Azokan bertan izango da lehenengo aldiz eskuragarri, eta jolasteko aukera ere eskainiko dute. Aurten, musikari lotutako proiektu bati emango diote beka. Oraindik, ordea, ez dute jakinarazi nork edo zerk irabazi duen.

Debagoiena azokan

Eskualdeko sortzaileek ere plazaratuko dituzte euren lanak Durangon. Hamasei izango dira: sei liburu eta hamar album. Hainbat erakusmahaitan egongo dira presente debagoiendarren lanak, baina stand propioak ere jarriko dituzte zenbait eragilek.

Liburuen kasuan, ia argitale-txe guztietan banatu dira ger-



Enarak itzuli dira

Serge

Autoekoiztua



Una historia de la pelota

Jose Antonio Azpiazu

Txertoa



Natura labor mintzo da

Pello Zabala

Alberdania



Trigger

Trigger

Autoekoiztua



Gaztaroko erokeria bat baino gehiago

Flyshit-Managaitz

Autoekoiztua



Haziak III

Euskal Herriko Trikitixa Elkarte

Euskal Herriko Trikitixa Elkarte

tuko idazleen lanak. Jose Antonio Azpiazu oñatiarrak idatzi duen *Una historia de la pelota: del siglo XVI a la revolución de Chiquito de Eibar* Txertoa argitaletxearen standean (Goienkale 7-11) jarriko dute eskuragarri. Historian pilotak bizitako gorabeherak aztertu ditu historialariak, hala nola kirolaren zale-tasunagatik ia eskumikatu zituzten abadeen kasua. Pello Zabalaren *Naturaz labor mintzo*, berriz, Alberdaniar (Barrenkale 45-46) egongo da salgai. Meteorologia ardatz hartuta egutegi bat prestatu du frantziskotarrak, hilez hil eta egunez egun. Autoekoizleen erakusmahaietan (Goienkale 41-42) kokatuko du Errasti-De la Maza familiak sendeen artean osatutako lana, *Herensugeen itzulera V: Sataripeko Guda*. Mondragon Unibertsitateak, osteratzen, stand propioan

(Artekale 67) sartuko du *Gipuzkoako langileen parte hartzea: ongizatea, errendimendua, lurraldea*. Debagoieneko hainbat autorek parte hartu dute liburua idazten. Elkarren (Goienkale 45-49, Artekale 72-80) Arrasateko bi idazleek izango dute presentzia, John Andueza *Magali ez dago bakarrik* lanarekin eta Eneko Barberena *Afrikanerrak* eleberriarekin. Sexu eraso bat Debagoieneko kokatu du Anduezak, eta horren harira idatzi eleberria. Barberenak mundu distopiko bat diseinatu du eta Arrasaten kokatu ditu gertaerak. "Hari mutur bati heldu diot eta horrek 11 urtera gertatzen den zerbaiteira eramanez, emigratioarekin Mediterraneo itsasoan gertatzen dena", argitu du idazleak. "Hari eutsita heldu naiz etorkizuna apur bat irudikatzeratzen".

Musika plaza
Eskualdeko bederatzi talderen eta musikariren lan berriak izango dira zaleen eskura. Arkada Socialek *No retorno* lana aurkeztuko du Mauka Musika-gintzan (Artekale 49). Lana saltzeaz gain, 7an kontzertua eskainiko dute Plateruena antzokian, 23:00etan. Elkarren postuan izango da Ruper Ordorikaren *Gaur Hamar t'erdietan Kafe Antzokian*; Bilboko agertokian grabatu zuten zuzenekoak.

Musika Zuzenean standean (Artekale 53) egongo dira, besteak beste: Fly Shit bergararrena, Arrasaten bizi den Sergerena eta Trigger aretxabaletarrarena. Bergarakoek Managaitz zaraiztarrekin batera ateratu dute diskoa, indarrak batzeko asmoz: "Aspalditik ezagutzen dugu elkar, zirkuitu berean mugitzen gara, musika eta bere ingurua ulertzeko eran bat egiten dugu". Lehenengo aldiz izango da Aretxabaletako bakarlaria azokan: "Diskoetxe eta komunikabide handiek jan egiten gaituzte", dio Eñaut Zubizarretak, Triggerrek. "Ekoizle txikiok beharrezkoa dugu Durango moduko toki batean egotea".

Sharon Stonerrek eta Iker Martinezek erakusleho propioa, Alnehuna, jarriko dute. "Gure lanak ezagutarazteko txapel bat behar genuen", azaldu du Sharon Stoner-eko Iñigo Ibarrondok, eta zera gaineratu: "Standak gu ezagutzeko aukera emango digu; ez dakit asko salduko dugun".

Azoka Telebista, elkarlanean egina

Durangoko Azokak domekan ateak itxi bitartean, han gertatzen denaren erakusleho izango da, aurten ere, Azoka Telebista. Egunean zehar jazotakoaren laburpena eskainiko dute, 21:30ean hasita, Goiena telebista eta beste toki telebista batzuek ere. Ohiko telebista pantailaz gain, Durangoko Azokaren Youtube kanalean ere askotariko erreportajeak ikusteko aukera izango da. Hainbat gunetan ibiliko dira Goienako Aitor Agiriano, Miren Arregi, Txomin Madina kazetariak, protagonisten eta gaien berri jasotzen, eta horiek bilduko dituzte *Azokan gaur* saioan. Bestetik, musika izango da protagonista, berriz, Maider Arregi lankideak gidatuko duen eta Plateruena egingo duten *Hautsi bolumena* saioan.

Debagoiendarren aurkezpenak

- Abenduak 5**
- **Sharon Stoner** *Errailetatik* diskoaren aurkezpena. 19:40an, Ahotsenean.
 - **Zut aldizkari digitala** Aurkezpena. 14:00etan, Kaban.
 - **Gazteluak zubi** Dokumentalaren aurkezpena. Ane Zuazubiskar, Eneko Zuberogoitia eta Unai Portilla. 17:00etan, Irudienean.

- Abenduak 6**
- **Sormen beka DA!** AtopiaRPG eta 2019ko irabazleak. 10:30ean, Aretu nagusian.
 - **Hautsi bolumena** Telebista saioa. Azoka Telebista. 12:00etan, Plateruena.
 - **Ekain Martinez de Lizarduy** *Erraiak* film laburra. 14:00etan, Irudienean.
 - **Kimurak katalogoa** Film laburrak. Besteak beste: *Mateoren ama* (Aitor Arregi eta Jose Mari Goenaga) eta *Artiko* (Jesus Mari Lazkano eta Josu Venero). 17:00etan, Irudienean.
 - **Euskal Herriko Trikitixa Elkarte** *Haziak III* diskoaren aurkezpena. 17:40an, Ahotsenean.

- Abenduak 7**
- **Jose Antonio Azpiazu** *Una historia de la pelota* liburua aurkezpena. 10:30ean, Aretu nagusian.
 - **Nabarralde Fundazioa** *Arantzazu, harriz herri* dokumentala. 11:00etan, Irudienean.
 - **Hautsi bolumena** Telebista saioa. Azoka Telebista. 12:00etan, Plateruena.
 - **Mikel Arroia** *Txikipediaren oinarriak eta erabilera* –neguko eskola lehiaketaren aurkezpena–. 12:00etan, Kaban.
 - **Serge** *Enarak itzuli dira* diskoaren aurkezpena. 15:40an, Ahotsenean.
 - **Pello Zabala eta Jakoba Errekondo** *Ilargiaren egutegia* (Argia). 16:30ean, Aretu nagusian.
 - **Arkada Social** *No retorno* diskoaren aurkezpena. 23:00etan, Plateruena.

- Abenduak 8**
- **Errasti-De la Maza familia** *Herensugearen itzulera V: Sataripeko guda* liburua aurkezpena. 13:00etan. Saguanbarako Aretu nagusian.
 - **Pello Zabala** *atura labor mintzo da* liburua aurkezpena. 13:30ean. Ahotsene Solasaldiak.
 - **Assata** *Dantzatu, madarikatuok!* diskoaren aurkezpena. 12:20an, Ahotsenean.
 - **Ines Osinaga eta Lorea Argarate** *Mauriziak ez du inor hil emanaldia*. 18:00etan, Kaban.



Durangoko Azokaren iazko irudi bat. GOIENA

"Denon artean egin dugu azkeneko bilduma hau"

ARKADA SOCIAL MUSIKA TALDEA

Zazpigarren diskoa, 'No retorno', kaleratu du talde arrasatearrak. Euren estiloari eutsi diote, baina orkestra batekin grabatutako kantua da berritasun nagusia

Beñat Alberdi ARRASATE

Itzuli zirenetik, 2012an, Arkada Socialen dinamika berbera izan da: disko bat atera, aurkezpenerako kontzertuak eskaini hurrengo urtean eta, oster, lan berria prestatzen hasi. Oraindik dinamikak ez du aldaketarik jasan, ez jasango, momentuz, eta bi urteren ostean album berria aurkeztuko dute Durangoko Azokan: *No retorno*.

"Ez da automatikoa bi urtean behin disko berri bat ateratzea", azaldu du Hodei Beitiak, Arkada Socialeko abeslari eta baxu-jotzaileak. "Baina aurretik ia bagenbiltzan lan berri bat behar genuela, ikus-entzuleei abesti berriak emateko, gehienbat". Kontzertutik kontzertura eta entsegutik entsegura tartea aurkitu dute konposatzeko, behintzat, abeslariak berak dioen moduan, eurentzako konposatzea "naturala eta erraza" dutelako.

'No retorno' albuma

Bederatzi abestirekin osatu dute lana: zortzi kantu berri eta aurreko lan baten bertsioa: *Ukabilak gora*, zehazki. Aurreko albumean aurkeztu zuten abesti hori, baina orkestra baten eta Arrasateko Txorbela Otxotearen laguntzarekin birmoldatu egin dute. "Kontu arraroa izan da guretzako ere", nabarmendu du abeslariak. "Jendeak flipatu egingo du". Dena den, esperientzia oso aberasgarritzat jo du taldeko kideak; izan ere, hainbat pertsonak parte hartu dute bertsio berria grabatzen, eta esperientzia bera balioztatzen dute. "*Ukabilak gora 2.0*" izendatu du, txantxetan.

Bestalde, emaitzarekin oso gustura gelditu dira. Estiloari eutsiko diote eta musikalki ez du beste lanetatik diferentzia askorik eskainiko. Hala ere, diskoan, konposatzeko orduan, taldekide guztiek prestatu dituzte abestiak; hau da, taldeki-



Arkada Social Arrasateko musika taldea. POLI KARPO

"UKABILAK GORA" KANTUAREKIN JENDEAK FLIPATU EGINGO DU, ORKESTRA ETA OTXOTEA LAGUN"

de bakoitzak aurkeztu du kantu baten lehen bertsio bat, behintzat. "Orain artean, akaso, nik hartzen nuen, gehienbat, lan hori", gehitu du Beitiak. "Lan honetan denok atera ditugu abestiak. Oso polita da hori. Denon artean egin dugu album hau".

Gai politikoei eta egunerokotasuneko arazoei eskaini dizkiete abestien letrak. Diskoaren izena, *No retorno*, berez kantu batena zen, hargatik jarri zioten albumari bera. Horrela aurkeztu dute lana, baina kantuari berari aldatu diote izena. Immigrazioaren gaia jorratzen dute abestian. Bizi berri baten bila itsasoan itotzen direnak jarri dituzte jomugan.

Aurkezpen bira

Diskoa ateratzeaz bat kontzertuak eskainiko dituzte Euskal Herrian zehar. Momentuz, pare bat kon-

tzertu lotuta dituzte, baina ez gainontzekoak. Dena dela, seguru, lehenengo kontzertua larunbat honetan, abenduak 7, emango dute Durangoko Plate-ruena antzokian, 23:00etan. Horrez gain, ia seguru den beste puntua apirilean Japoniara joango direla da. Abenduan bertako talde bat gerturatuko da Euskal Herrira, beraiekin joko dituzte kontzertuak, eta bueltan eurak joango dira Asiako estatura. Hortik aurrera, euskal lurraldeetan zein Bartzelonan eta Madrilen kontzertuak eskainiko dituzte.

Oraindik ez dago jakiterik hemendik bi urtera lan berri bat aurkeztuko duten, baina Beitiak nabarmendu du gustura, indarrarekin eta inspirazioarekin jarraitzen duela Arkada Socialek. "Diskoan daudenak ez dira sortuta genituen guztiak; grabatu gabe gelditu zaizkigu kantu batzuk", argitu du abeslariak. "Kontzertu mordo bat eman eta gero ikusiko dugu zer egiten dugun".

Ezin guztiz ezer ziurtatu, baina Beitiak dio gustatuko litzaiokeela musika taldeari oraindik ere ibilbide luzea gelditzea.

"Hausnarketa eta duda asko daude sexu erasoei buruz"

JOHN ANDUEZA IDAZLEA

Bergarako Institutuan kokatu duen gazteentzako liburua

B.A. ELGETA

Gizartean puri-purian dagoen gaiari heldu dio idazle arrasatearrak *Magali ez dago bakarrik* azken liburuan: emakumeen aurkako sexu indarkeria.

Egun gogorak bizitzen ari dira Bergarako Institutuan. Duela hamabost egun gertaera gogorra jasan zuten bertako bi ikaslek, eta eragin nabarmena izan du bai Bergaran, bai Elgetan, zein eskualdean. Horrela abiatzen da John Anduezen azkeneko liburua. Misterio eta intriga generoari helduta hausnarketa sustatu nahi du azken gazteentzako liburuan, nahiz eta ez duen uste gazteentzako bakarrik denik.

Erasoei eta ondorioei buruz

Duela urte eta erdi, proiektu berri baten bila zebilen idazlea. Gazteentzako izango zela garbi zeukan, baina beste kontu bat zen zein gairi heldu. Azkeneko aukeraketa ez zen ahuntzaren gau erdiko eztula: emakumeen aurkako sexu erasoak eta horrek dakartzan ondorio guztiak.

Intriga eta misterioa aukeratu ditu liburuaaren narratzaileak. Gazteentzat beste hainbat liburu idatzi izan ditu Anduezak, baina baita nobela beltzak ere. Nolabait, kontrolatzen dituen bi arloak elkartu ditu azken lanean. "Kontu horiekin broma gutxi. Nobela gogorra izan behar zuela erabaki nuen, eta hala da, eta horretarako tresna egokia da misterioa".

Nobelaren erritmoa

Gertaerak jazo eta hilabetera hasten da istorioa. Irakurleak berak, herritarrek bezala, ez du jakingo zer gertatu zen hasieratik. Gutxika-gutxika izango du gertatuaren berri, ahalik eta bukaeran dena argituko den arte. Hausnarketa sustatu nahi du Anduezak, finean; nolabait, irakurleak berak atera ditzala bere konklusioak. "Gai horren inguruan gogoeta asko daude, baina duda asko planteatzen zaizkigu: zer egin behar den horrelako gauzen aurrean, ze puntutaraino heldu ahal diren gauzak, eta abar". Narratzailea bera ez du busti nobelan; hots, ez du posizionatu gertaeran aurrean, ez duelako liburua "bere iritzia" emateko idatzi, gogoeta sustatzeko baizik.

Bergarako Institutuan ikasten dute liburuko protagonistek, baina Elgetan bizi dira. Toke lokala eman dio idazleak liburuari. "Uste genuen sexu erasoak urrutiko kontuak zirela. Hala ere, Iruñean bertan pasa eta gurea da. Gauza horiek hemen pasatzen dabilta. Horregatik aukeratu nuen hemen", nabarmendu du, betiere, fikziozko nobela bat dela azalduta, eta ez dokumental bat.

Gazteei zuzenduta dago, berez, baina adin guztietarako balioko lukeela gaineratu du Anduezak, hausnarketa sustatzeko. Ikastetxeetan ere gaiari buruz hitz egiteko balio dezakeela nabarmendu du idazleak.



John Andueza idazlea argitaratu berri duen liburuarekin. MARIAN PORCEL

"Taldearen nortasuna zehatz erakusten du"

RUPER ORDORIKA MUSIKARIA

Hirugarren zuzeneko lana kaleratu du abeslari oñatiarrak, 'Gaur hamar t'erdietan Kafe Antzokian' izeneko. Azken lanetako abestiekin eta zaharrekin osatu du bilduma

Beñat Alberdi OÑATI

Bakarlari gisa aurretik hogeiko zeuzkan bizkarrean Ruper Ordorikak. Azken zuzeneko lan honekin, 21 izango ditu, Hiru Truku taldearenak kontuan hartu gabe. Baina *Gaur hamar t'erdietan Kafe Antzokian* albumak beste errekor bat apurtzen du; izan ere, ez da ohikoa artista batek leku berean, hau da, Bilboko Kafe Antzokian, grabatuta, hiru zuzeneko disko izatea.

Antzokia, toki "kuttuna"

Ez dago ziur musikari oñatiarra toki sinboliko izena jarriko liokeen Bizkaiko hiriburuko aretoari; bai, ordea, *berezi* etiketa, behintzat: "Orain dela 24 urte inauguratu zenetik, urtero-urtero jo izan dugu bertan, aldi batez, gutxienez, eta urteak joan ahala abenduko kontzertuak gero eta oihartzun handiagoa bildu du". Zuzenekoaren antolatzaileen "babesa" hasieratik jaso dutela gaineratu du Ordo-



Ruper Ordorika, argitaratu berri duen zuzeneko lanarekin. ELKAR

rikak, eta, askotan, babes hori izaten dela hasieratik behar izaten dutena. Izan ere, 35-40 kontzertu eskaini dituztela bertan esan zuen musikariak *Gaur hamar t'erdietan Kafe Antzokian*-en aurkezpenean. Ia tradizio

bihurtu dute Gabonetako ekitaldi hori, eta bertan grabatutako soinuekin osatu dute azkeneko bilduma.

Taldeak musikari oñatiarraren izena daukan arren, hamaika urte daramatzate elkarrekin

laukotea osatzen Arkaitz Miner gitarristak, Lutxo Neira baxu-jotzaileak, Hasier Oleaga bateria-jotzaileak eta Ordorikak. Oraingoan, David Soler gitarristaren laguntza ere izan dute. Elkarrekin egindako ibilbidearen uzta jasotzen saiatu dira; beraz, kantu sorta ez zuten falta. Zuzenean 25 kantu jo zituzten, eta hamalau aukeratu dituzte diskoan sartzeko. "Lehenengo aukeraketa eginga geneukan, ez genuen aurreko zuzenekoetan agertutako kanturik errepikatu gura", azaldu du Ordorikak. Kurioski, grabazioa egin eta gero, taldekide bakoitzak osatu zuen bere kantu hautaketa, ondoan zeukanak ezer jakin gabe. Horrela aukeratu zituzten albuma osatzen duten hamalau abestiak.

Hirugarren zuzeneko

Emaitzarekin gustura gelditu direla nabarmendu du oñatiarrak: "Taldea honen nortasuna zehatz erakusten du disko honek, hala uste dut, eta, gainera, soinu onarekin. Zuzeneko indarra, bai, baina ondo jasota". Azken lanetako kantuak eta zaharra-goak nahastu dituzte: *Egia da, Bizitza eder denean, Zure etxera noa, Esan gabeko arrazoia, Zerutik gertu ez da egoten, Haraginenean, Lera zakurren balada, Hemen nago, Ahots urrunak, Belauniko, Nirekin geratu, Beltzarana* eta *Ez da posible*. Garai ezberdinetakoak dira, eta guz-

tiak aurrez argitaratutako zuzeneko lanetan argitaratu bakoak.

Hiru Truku taldeari ere egin diote tokia, azken emanaldietan sartu izan duten *Zazpi nobio* kantuarekin. "Ez nuen uste kantutegi zaharreko alerik ganoraz jotzeko moduko taldea ginenik, gure tresna elektriko horiekin, baina hasieratik sentitu genuen kantua xamur sartzen zela", argitu du Ordorikak. Era berean, zehaztu du, kantuak berak "grazia" daukala.

Aurreko zuzenekoak

2000. urtean kaleratu zuen lehenengo zuzeneko lana, *Elkar* izeneko, eta 2008an bigarrena, *Hamar t'erdietan* izenburuarekin. Aurreko diskoetako esperientziak balio izan die azken lan honetarako. Dena den, lan batetik bestera taldeak ere izan ditu bere aldaketak; hots, taldekideak aldatu egiten dira, eta aldaketa horiek musikan daukaten eragina nabarmendu zuen bakarlariak aurkezpenean. "Taldea bakoitzak bere nortasuna dauka eta kantuak aldatzen ibiltzen dira, bere ñabardurekin edo osoki".

"GUSTURA GAUDE; ZUZENKO INDARRA DU, BAINA SOINU ALDETIK ERE ONDO JASOTA DAGO"

"Familia biltzeko modua aurkitu dugu liburua elkarrekin eginda"

ERRASTI-DE LA MAZA FAMILIA IDAZLEAK

Talde-lanean sortu dute gazteentzako bigarren liburua

Beñat Alberdi BERGARA

Jon eta Maite seme-alabek orain dela lau urte proposatu zioten Ander Errasti euren aitari elkarrekin liburu bat idazteko. Aitak kaleratuta zituen hainbat liburu, eta gaztetxoek ere sormenaren plazara hurbildu nahi zutela adierazi zioten.

Iaz argitaratu zuten lehen liburua eta kalean dute bigarren atala ere: *Herensugeen tzulera V Sataripeko Guda*. Autoekoizleen gunean izango da eskuragarri eta domekan Saguganbaran egingo dute aurkezpenean.

Liburua hasieratik bukaerara sortu du familiak. Elkartu eta mapa bat prestatu zuten hasteko, pertsonaiak deskribatu eta bozetoak egin zituzten gero, historia idatzi ondoren, eta gertaeren irudiak marraztu zituzten segidan. Dinamika ondo ikasi zuten lehenengoarekin, eta parekoa izan da bigarrenean ere. Sormena lantzeko bide ona dela nabarmendu du Ander Errastik, eta baita haurrak hobeto ezagutzeko ere: "Pertsonaiei eurek gehitu dizkiete ezaugarriak; eurek nahi zuten modukoak dira".



Errasti-De la Maza familia liburua elkarrekin sortzen. ANDER ERRASTI

Hiru hizkuntzatan

Alabak hala eskatuta, oraingoan emakume bat da protagonista: Etiam. Eraso egingo diote Etiamen Aragreb herriari. Neskati-lak, ordea, itsasontzi bat atonduko du herritarrekin batera

eta aurre egingo die piratei. Euren izenei buelta erdi eman da sortu dituzte pertsonaien izenak, eta toki ezagunei buelta erdi emanez gertakariak.

Hiru hizkuntzatan –euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez– ira-

kurri daiteke istorioa. "Hiru hizkuntzak nahastu ditugu. Berrez, 8 eta 9 urte bitartekoei bideratuta dago, baina ingelesa ikasteko baliagarria da 11 urteko gaztetxoendako ere".

Proiektuaren pedagogia

Hurrengo atalerako ideiak prestatzen ari da Belgikan bizi den familia. "Denbora elkarrekin pasatzeko modu bat aurkitu nahi genuen eta proiektu hau proposa izan da", azaldu du Errastik, eta zera gaineratu: "Bozetoak seme-alabek marraztu arren, nik neuk atondu ditut; lau urtean asko hobetu dugu marrazten. Gordeta dauzkagu bozetoak eta erakusketa bat egitea ere pentsatzen gabilta".

Durangoan aurkeztuko dute, baina badute Bergaran eta Arrasaten ere aurkezteko asmoa.

Euskal kulturgintzaren kontsumoa sustatzeko bide berriak arakatzeko

- 1 Durangoko Azoka sormen lanak kontsumitzeko era berrietara moldatuta dago?
- 2 Aro digitalean gaude; zein da euskal ekoizpenak sustatzeko eta saltzeko bidea?
- 3 Zuzeneko eskaintza handia, baina publiko gutxi batzuetan. Zein da irtenbidea?

Beñat Alberdi ARRASATE

Aurtengoa azokaren edizioa 54. da. Badauka jada esperientzia motxila bizkar gainean, baina horrek ez dio erronka berriei aurre egitea saihesten. Azken hamar urteetan nabarmen aldatu da mundua, zer esanik ez komunikatzeko moduak. Izan ere, sarera zein dispositiboetara lotura handiagoa daukagu egun, beste errealitate bat sortuz. Egoera horren aurrean tradizional gelditu al da azoka? Eta, egoki erantzun die bestela ere badauzkan erronkei?

Kultur sormen munduko hiru pertsonen iritzia jaso du Goienak galdera horiei erantzuteko asmoz. Azken finean, nola ikusten dute arloko langileek euskal kulturaren plaza nagusia?

OLATZ OSA ELKAR ARGITALETXEA

"Kulturaren balioaz ohartuz erdigunera ekartzea da gakoa"

1 "Azken urteetan, ahalegin handia egin du Azokak lauzpabost egun irauten duen plaza horretan urtean zehar kulturaren unibertso horrek eman duena jendearen eskura era duinean eta erakargarrian jartzeko eta emari eta errealitate horren bueltan egiten ditugun gogoeta eta eztabaidak jendaurrean azaltzeko. Azokaren funtzio nagusienetako bat euskal kulturari ikusgarritasuna ematea da, sortutakoa han bertan kontsumitzeko edo sortutakoaren bozgorailu lanak egin ondoren jendeak gaur egun aukeran dauden era berrietan jasotzeko eta kontsumitzeko".

2 "Uste dut ezagutzen ditugun bide guztiak direla beharrez-

koak eta estrategikoak, elkar osagarriak direla ulertuz. Kulturaz ari gara, emozioak, sentimenduak, pentsamendua, gogoeta sortu, eman eta jasotzeaz, eta praktika horrek aurrez-aurreko, mundu analogikoa deitzen den horren lengoia eta praktikak eskatzen ditu, nire ustez, ezinbestean. Behar ditugu zuzenekoak, herri guztietan liburutegia, dena txiki edo handiak, behar dugu liburutegi sare sendo bat... Eta, nola ez, baliatu behar ditugu aro digitalak eskaintzen dizkigun baliabideak praktika horien berri zabaltzeko, edota edukiak zuzenean euskarri digitaletan kontsumitzeko".

3 "Ez dut uste zuzenekoaren arazoa bakarrik denik, irakurzaletasunean ere badugu hutsune handi bat, irudien munduak sekulako indarra duen garaioan hauek irakurtzeko dugun ezagutza eta gaitasun mugatua, gogoeta eta eztabaidari eskaintzen diogun denbora eta espazio urria... Beraz, irtenbidea kulturaren balioaz eta garrantziaz ohartzea eta kultura erdigunera ekartzea da gakoa. Erraz esaten da, baina iraultza handia eskatzen du horrek; kulturaren unibertsoa bere osotasunean hartu eta ertz guztietan eta eragile guztion artean, modu bateratuan, artikulatua eta epe luzerako estrategia adostu batekin, herri proiektu batekin jardutea eskatzen du horrek. Honen gaineko kezka badago, eta hainbat eragile norabide horretan urratsak egiten saiatzen ari gara. Ahalegin horietan asmatu beharra dugu, jendarte aske, kritiko, aberats, ireki eta demokratikoagoa kulturaren bidez etorriko dela ulertzen dugulako".

ARKAITZ VILLAR MUSIKA BULEGOA

"Euskal sortzaileak oso ondo aurreratu dira, nire ustez, aldagetara"

1 "Uste dut baietz. Azkenengo urteetan espazio berriak sortu dira: Ahotsenea, Irudienea, Kabia, etab. Eta uste dut gune hauetan ondo islatzen direla kontsumitzeko era berri horiek. Sortzaileak kontsumitzailearengandik oso gertu dago eta hurbiltasun horrek asko lagundu du. Musika Bulegoaren eta Durangoko Azokaren elkarlanaren ondorioz aurrean DA Pro! egingo dugu lehenengoz. Profesionalentzako topaketa bat izango da, non disko berriak aurrez aurre programatzaileei aurkezteko aukera izango duten".

2 "Aro digitalarekin batera kultura kontsumitzeko moduak etengabe aldatzen doaz. Euskal sortzaileak eta profesionalak oso ondo aurreratu dira aldagetara honetara eta ekoizpenak sustatzeko modu ugari daude: sarea, *streaming*-a, digitalizazioa, formatu eta ekoizpen bereziak, eta abar". Eskaintza asko zaintzen da azken urteetan eta gero eta ekoizpen landuagoak aurkituko ditugu. Baita deigarriak ere. Baina ohiko euskarriak ere hor daude eta hor egongo dira beti. Erakusle garbia da edizio mugatuko biniloek izan duten erantzun ona".

3 "Ez dut uste publiko gutxi dagoenik. Publiko asko mugitzen duten estilo edo talde/artistak ditugu/daude. Musika aretoek lan handia egiten dute urte osoan zehar programazio sendoa eskainiaz. Hori balioan jarri behar dela uste dut. Zuzeneko musika eskaintzen duten guneak babestu egin behar dira.

Gero, joerak daude: gaur egun, erritmo urbanoek jende gazte asko mugitzen dute. Baina ikusi duzu zer gertatu den Berri Txarrak-ekin: zenbat jende mugitu den. Jaialdiak ere hor daude: handiak eta txikiak, guztiak beharrezkoak. Eta guztiek laguntzen dute publiko berriak sortu eta betikoak fidelizatzen. Publiko berriak ez dira bakarrik normalean kontzertuetara ez doazenak, jaialdietara bakarrik doazenak ere badira. Horiek guztiak urte osoan zehar aretoetara gerturatzeko programak sendotu egin behar dira. Zuzeneko musika aretoek hirietako eta herrietako giza, ekonomia eta kultur balioak bultzatzen dituzte".

AINHOA VITORIA EUSKADI GAZTEA I

"Sortzaileek eta eragileek hausnarketa egitea beharrezkoa da"

1 "Beti dago zer hobetu, baina nik uste dut poliki-poliki ari direla garai berrietara egokitzen. Aurrean ere Azokan aurkituko ditugun disko nobedade guztien zerrenda Spotify plataforma digitalean zintzilikatu dute. Gazteengana iristeko erremintak dira sare sozialak eta horiek guztiak aprobetxatzeko ahalegina egiten ari dira. Hala ere, Durangoko Azokak duen balio erantsia ez da galdu, eta ez dut uste galduko denik".

2 "Askotan esaten da kultura kontsumitzen duten gehiengoaren adina nahiko altua dela. Egia izango da, bai, baina nik uste dut gazteen artean ere kontsumitzen dela, eta garrantzitsua: beraien kontsumitzeko modua eraldatu egin da. Garai honetan, sare sozialak ezinbestekoak direla iruditzen zait. Artistak jendea dagoen tokira joan behar du. Inor ez da ibiliko artista horren lana bilatzen. Eta hori bakarrik ez. Garai hauetan, kontsumitzaileek musika edo edozein kultur diziplina era azkarrean –azkarregian– eta errazenean jaso nahi dugula sentitzen dut. Nazioartean, dagoeneko, artista eta talde asko singleak ateratzen ari dira, LP bat kaleratu beharrean. Ez dakit proposena den, baina gizartearen abiadura berean goaz kulturaren kontsumoan".

3 "Irtenbidea ez dakit, baina arrazoietakoa bat hezkuntza



Olatz Osa. ELKAR



Arkaitz Villar. MUSIKA BULEGOA



Ainhoa Vitoria. EUSKADI GAZTEA

izan liteke. Baina ez bakarrik eskolan jasotzen dugun hezkuntza, etxean jasotakoa ere oso garrantzitsua da. Disko bat ateratzea artista bati kostatzen zaiona jakingo bagenu, eta kantu baten atzean dagoen lan guztia balioztatuko bagenu, beste modu batean kontsumituko genuke musika. Hala ere, kasu honetan, iritzi kontrajarriak ditut. Ez dut uste ardura osoa publikoarena denik. Badira euskal talde eta artista asko BEC, Euskalduna edota Kursaal modukoak betetzen dituztenak. Jendeak kulturaz gozatzeko nahia ere erakusten du; beraz, euskal sortzaile eta eragileen partetik hausnarketa txiki bat egitea ere beharrezkoa iruditzen zait. Disko bat kaleratuta, dena eginda dagoela ematen du, eta beste hamaika faktore daude kontuan hartu beharrekoak".

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Alde zaharrean, Maalako errebalean, 60 metro koadroko etxebizitzaz salgai. Igogailuarekin. Gurgil-aulkientzat egokitu. Berogailu indibiduala. Trastelekua barne. Telefonoa: 655 82 47 29

Bergara. Zubiaurre kalean 80 metro koadroko etxebizitzaz salgai. 15 urteko eraikina da. Igogailua, berokuntza sistema, hiru logela, bi komun eta bi balkoi. Erdi jantzita. Garaje ibia aukeran. Telefonoa: 635 25 54 44

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitzaz behar dut errentan, igogailuarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 612 48 13 36

Arrasate. Igogailua daukan etxebizitzaz behar dut errentan hartzeko. Telefonoa: 688 85 44 78

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Nagusiak zaintzen etxean bertan bizi izateko pertsona atsegina eta arduratsua behar da. Esperientzia eta legezko agiri guztiak beharko lituzke. 667 01 89 13 edo 607 89 08 40

402. ESKAERAK

Bergara eta Antzuola. Nagusiak zainduko nituzke. Soziosanitario titulua daukat. 696 84 19 51

Bergara. Neska arduratsua goiz edo arratsaldean umeak zaintzeko gertu. 660 64 32 79

Debagoiena. 30 urteko neska etxean bertan bizi izaten edo bestela lan

egiteko gertu. Urtebeteko esperientzia eta erreferentziak. Berehala hasteko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 84 45 28

Debagoiena. Astelehenetik ostiralera arratsaldean nagusiak zaintzeko prest nago. 688 74 00 14

Debagoiena. Baserriko lanak, margolari lanak eta pertsona nagusien zaintzarako prest nago. Telefonoa: 682 91 33 96

Debagoiena. Eraikuntza, margo, garbiketa, nagusien zaintza eta sukaldari lanetan laguntzeko prest. 695 40 56 65

Debagoiena. Esperientzia duen neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edo ebeko lanak egiteko, etxean bertan bizi izaten. Berehala hasteko moduan. 688 74 02 01

Debagoiena. Esperientzia eta erreferentzia onak daukan mutila nagusiak zaintzeko gertu. Baita baserrietan ere. Autoa daukat. 662 43 08 54

Debagoiena. Esperientziadun mutila gertu nagusiak zaintzeko, tabernak garbitzeko zein zerbitzari lanetan aritzeko. 638 85 43 36

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko, tabernak garbitzeko edota zerbitzari lanetan aritzeko. 654 11 15 14

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka, zaintza lanak egingo nituzke. 602 60 66 52

Debagoiena. Garbiketaren eta ume zein nagusien zaintzan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten

edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 662 02 45 80

Debagoiena. Goizetan pertsona nagusiak zaintzeko edota zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbiketa lanak egiteko prest. 688 72 57 61

Debagoiena. Harreragile moduan, nagusiak zaintzen edo garbiketaren lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635 55 38 18

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Orduka, gauak egiten edota etxean bertan bizi izaten. Eraikuntza laguntzaile moduan ere lan egingo nuke. Telefonoa: 642 90 41 05

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Eguneko edozein momentutan libre. Garbiketa lanetan aritzeko prest. 631 93 11 90

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edo ebeko lanak egiten jarduteko prest nago, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Erreferentziak daukat. 632 44 55 52

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketaren lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Telefonoa: 639 74 03 22

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago. Etxean bertan bizi izateko eta asteburu batzuetan lan egiteko prest nago. Esperientzia handia eta geriatria agiria. Ordezkapenak egiteko gertu. Telefonoak: 632 83 43 16 edo 602 32 06 59

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia handia daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 07 62 14

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketaren egiteko. Orduka, etxean bertan bizi izaten edo asteburuetan. Deitu 632 04 13 49 telefono zenbakira.

Debagoiena. Neska gertu umeak eta nagusiak zaintzeko edota garbiketaren egiteko. Telefonoa: 632 21 60 37

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke nagusiak zaindu eta kalera laguntzen, taberna eta abarrak garbitzen. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 03 99 04

Debagoiena. Pertsona nagusi edo umeen zaintzarako edo garbiketaren egiteko gertu nago. Gauean ere bai. 632 87 91 90

Debagoiena. Pertsona nagusi edo umeen zaintzarako prest nago. Gauean ere bai. Garbiketa lanetan aritzeko prest. 632 37 65 40

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko, sukaldari laguntzaile lanearako edota joskintza eta arropa konponketak egiteko prest. 602 65 07 72

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen edota zerbitzari, sukaldari la-

guntzaile zein garbiketa lanak egiteko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 76 69 33

Debagoiena. Prest nago margolari moduan, pertsona nagusien zaintzan edota baserri lanetan aritzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 88 89 83

Debagoiena. Soziosanitario titulazioa daukan emakumea lanearako gertu. Esperientzia handia daukat nagusiak zaintzen. Deitu 688 73 10 25 telefono zenbakira.

Debagoiena. Sukaldean, garbiketaren, emakumeak zaintzen zein baserriko lanetan esperientzia daukan emakumea, lan bila. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 77 45 39

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke umeekin, nagusiekin eta baita ospitalean ere. Garbiketa lanetarako prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 64 98 53

6. MOTORRA

602. EROSI

Land Rover bila nabil. Land Rover Defenderra behar dut baserriko. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, maburata, kolpearekin. Telefonoa: 623 17 95 37

7. ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK

Txakurra agertu da Torreaun. Txakur bat agertu da Torreaun, Munasategi baserrian. Beltza eta marroia da eta pintxodun lepoko beltza darama. Inorena bada, idatzi mesedez zenbaki honetara: 616 67 08 82

8. DENETARIK

801. SALDU

Botoidun akordeoia salgai. Pigin markako botoidun akordeoia salgai. Oso egoera onean dagoen akordeoia da. 605 76 07 59 edo 652 76 04 15

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



DURANGOKO AZOKAREN NONDIK NORAKOAK

'Azokan gaur' Abenduaren 5etik 8ra, 21:30 eta 22:45



MUSIKA TALDEEN AZKEN LANAK EZAGUTZEN

'Hautsi bolumena' Abenduaren 6tik 8ra, 19:00 eta 23:30

EGUBAKOITZA, 6	ZAPATUA, 7	DOMEKA, 8
09:00 123 Hemen da Miru	09:00 123 Hemen da Miru	09:30 Kantari Gasteiz 2
09:30 Kantari Gasteiz 2	09:30 Kantari Gasteiz 2	10:00 Kantari Donostia 4
10:00 Kantari Donostia 4	10:00 Kantari Donostia 4	10:30 123 Hemen da Miru
10:30 Rikardo Arregi	10:30 Hautsi Bolumena	11:00 Kantari Gasteiz 2
Komunikazio Saria	11:30 Hemen Debagoiena	11:30 Kantari Donostia 4
11:30 Hemen Debagoiena	12:00 Harira eztabaida	12:00 Hilabetekaria: azaroa
12:00 Harira eztabaida	13:00 Bertso saioa: Tolosa	13:00 Osoko bilkura: Oñati
13:00 Bertso saioa: Tolosa	14:00 Osoko bilkura: Oñati	14:00 Elkarrizketa: Abel Barriola
14:00 Osoko bilkura: Arrasate	15:00 Hala bazan 5	14:30 Hautsi Bolumena
15:00 Hala bazan 5	15:30 Hemen Debagoiena	15:00 Hemen Debagoiena
15:30 Hemen Debagoiena	16:30 Kantari Gasteiz 2	16:00 Hala bazan 4
16:30 Kantari Gasteiz 2	17:00 Kantari Donostia 4	16:30 Hala bazan 5
17:00 Kantari Donostia 4	17:30 123 Hemen da Miru	17:00 Kantari Gasteiz 2
17:30 123 Hemen da Miru	18:00 Osoko bilkura: Arrasate	17:30 Kantari Donostia 4
18:00 Osoko bilkura: Oñati	19:00 Rikardo Arregi	18:00 Bertso saioa: Tolosa
19:00 Rikardo Arregi	Komunikazio Saria	19:00 Hilabetekaria: azaroa
20:00 Hemen Debagoiena	21:00 Hala bazan 5	20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Hala bazan 5	21:30 Azokan Gaur	21:00 Elkarrizketa: Abel Barriola
21:30 Azokan Gaur	22:15 Elkarrizketa: Oskar Alegria	21:30 Azokan Gaur
22:15 Elkarrizketa: Abel Barriola	22:45 Azokan Gaur	22:00 Hala bazan 5
22:45 Azokan Gaur		22:30 Azokan Gaur
		23:30 Hautsi Bolumena

EGUBAKOITZA, 6

ABEL BARRIOLARI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa'

22:15

ASTEBURUAN

ARRASATEKO OSOKO BILKURA

Egubakoitza 14:00, eta zapatua 18:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: **goiena.eus/telebista**
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

ASTEBURUAN



OSOKO BILKURA OÑATIN

Egubakoitza 18:00, Zapatua 14:00 eta domeka 13:00

MARTITZENA, 10

GARBIÑE ARANBURURI ELKARRIZKETA

'Harira'

21:30/23:30

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagor argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Fax: 943 76 97 97
www.inmokokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Arrosale, 179 m², duplex, 4 logela, kate D. Biltzera sartzea. 195.000 €.
- Arrosale, 180 m², duplex, 4 logela, igogailu. Biltzera sartzea. 373.500 €.
- Bala, 45 m², trastelekua, igogailu, biltzera sartzea. 145.000 €. Gorape aukeran.
- San Antonio, 76 m², berizitua, igogailu jabearen katean. 99.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Iker Penabazketa, 93 m², igogailu, berizitua, biltzera sartzea. 140.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Zubizarra, 50 m², 1 gela, potio txakurak. 90.000 €.
- Zubizarra, 60 m², 2 logela, berizitua, biltzera sartzea. 75.000 €.
- Zubizarra, 80 m², 2 logela, igogailu, berizitua, biltzera sartzea. 140.000 €.
- Martorena, 75 m², 2 logela, biltzera sartzea. 149.000 €.
- Martorena, 60 m², 2 logela, igogailu, biltzera sartzea. 130.000 €.
- Martorena, 57 m², 2 logela, berizitua, biltzera sartzea. 120.000 €.
- Ibargarai, 54 m², 2 logela, igogailu, biltzera sartzea. Gorape 2 aukeran. 214.000 €.
- Askasua, 60 m², 2 logela, trastelekua, biltzera sartzea. 100.000 €.
- Zubizarra, 70 m², 3 logela, biltzera sartzea, ogartzitua. 114.192 €.
- Zubizarra, 45 m², 3 logela, berizitua. Biltzera sartzea. 88.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Zubizarra, 45 m², 3 logela, trastelekua, biltzera sartzea. 115.000 €.
- Zubizarra, 54 m², 3 logela, biltzera sartzea. 90.000 €.
- Simon Arrieta, 82 m², 3 logela, igogailu, berizitua. 140.000 €.
- Simon Arrieta, 78 m², 3 logela, igogailu. 142.000 €.
- Oñate, 79 m², 3 logela, igogailuarekin. Aukera ona. 70.000 €.
- Oñate, 75 m², 3 logela, trastelekua, biltzera sartzea. 63.000 €. Aukera ona.
- Martorena, 86 m², 3 logela, altzariak berri. Berizitua, biltzera sartzea. 150.000 €.
- Martorena, 100 m², 3 logela, igogailu. Biltzera sartzea. 178.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Kalle Bazarra, 87 m², 3 logela, trastelekua, parking, ogartzitua. 160.000 €.
- Fraskoari, 100 m², 3 logela, igogailu. 198.000 €.
- Martorena, 96 m², 4 logela, berizitua, igogailu. 149.500 €. PREZIO JEITSIERA.
- Martorena, 102 m², 4 logela, 2 baloi, igogailu. 180.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Fraskoari, 100 m², 4 logela, trastelekua, igogailu. 180.000 €.
- Beldarrieta, 130 m², 4 logela, igogailu, trastelekua. 270.000 €. PREZIO JEITSIERA.

ANTZUOLA:

- Erribalde, 94 m², 3 logela, igogailu. Egokitu. 99.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Erribalde, 90 m², 3 logela, igogailu, biltzera sartzea. 135.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Beldarrieta, 60 m², 2 logela, berizitua. Biltzera sartzea. 120.000 €.
- Erribalde, 70 m², 3-3 logela, igogailu, biltzera sartzea. 125.000 €.
- Kalebidea, 79 m² - 77m². Berizitua. 61.000 €. - 51.000 €.
- Beldarrieta, 44 m², trastelekua. Berizitua. 40.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Kalea, 89 m², 1go pisua 40.000 €. - 2. pisua + garajea 70.000 €. Berizitua.

ELGETA:

- Salbidea, 75 m², 3 logela, igogailu, berizitua, trastelekua. 75.000 €.
- San Rikio, Duplex, 83 m², berizitua, biltzera sartzea. 190.000 €.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo *eskelak@goiena.eus*

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
 - Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €
- Goiena: irakurriena Debagoienean.**

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:
ARRASATE Goiena: Otarola Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
BERGARA Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.
OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
ELGETA Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

URTEURRENA

Pako
Gabilondo Gisasola



2018ko abenduaren 22an hil zen, 85 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 8an, 12:00etan, Bergarako San Pedro parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2019ko abenduaren 5ean.

URTEURRENA



Juanito
Altuna Errasti



'Atxorrozpe'
2018ko abenduaren 5ean hil zen, 91 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 8an, 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Eskoriatzan, 2019ko abenduaren 5ean.

ESKER ONA



Felisa
Ansola Andoaga



Silvestre Bolibarren alarguna
2019ko azaroaren 28an hil zen, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoiei eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2019ko abenduaren 5ean.

ESKER ONA



Casilda
Remiro Alvarez



Juan Zabalaren alarguna
2019ko azaroaren 28an hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, seme-alaben izenean.
—
Ama maitia, beti izango zaitugu gure bihotzean. Eskerrik asko! Goian Bego.

Arrasaten, 2019ko abenduaren 5ean.

HILDAKOAK

Jose Luis Iñurritegi Galdos. Oñatin, azaroaren 27an. 67 urte.
Casilda Remiro Alvarez. Arrasaten, azaroaren 28an. 93 urte.
Felisa Ansola Andoaga. Bergaran, azaroaren 28an. 91 urte.
Joseba Zubia Murua. Bergaran, azaroaren 29an. 68 urte.
Julia Mendizabal Villar. Oñatin, azaroaren 29an. 96 urte.
Tomasa Espejo Espejo. Arrasaten, azaroaren 30ean. 89 urte.
Angel Urzelai Lonbide. Aretxabaletan, azaroaren 30ean. 74 urte.
Maria Jesus Zabaleta Mendikute. Arrasaten, azaroaren 30an. 93 urte.
Miren Zabaleta Ortubai. Arrasaten, azaroaren 30ean. 99 urte.
Eugenio Jaso Castelo. Bergaran, abenduaren 2an. 61 urte.
Bittor Kortabarria Guridi. Antzuolan, abenduaren 3an. 63 urte.
Daniel Iturbe Guridi. Antzuolan, abenduaren 3an. 95 urte.
Juan Granados Alferez. Bergaran, abenduaren 3an. 69 urte.
Karmen Lazkano Etxaniz. Oñatin, abenduaren 3an. 90 urte.
Roberto Onandia Sagasta. Arrasaten, abenduaren 3an. 79 urte.

OROIOLORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

GUARDIAKO FARMAZIAK


ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 6	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Zapatua, 7	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Domeka, 8	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Astelehena, 9	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Martitzena, 10	ETXEBERRIA: Zarragalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Eguaztena, 11	ALBERTO AZKOAGA: Ferrenias kalea 1 / 943 79 15 15
Eguena, 12	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 6	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Zapatua, 7	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Domeka, 8	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Astelehena, 9	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Martitzena, 10	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguaztena, 11	URRITIKOETXEA: Orizondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguena, 12	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 6	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 7	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 8	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 9	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Martitzena, 10	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztena, 11	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 12	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2019ko abenduaren 31ra arte:
RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

BERGARA GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2019 osoan:
OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

TXUTXU-MUTXUAK



1. Mondravemberkoen biboteak
Jai giroan bukatu zuten azaroa arrasatearrek: trikiti doinuak, bertsolariak, bazkaria, kontzertua eta talde argazkia. 50 bibotedun elkartu ziren ospakizunetan.

2. Ezkondu egingo dira
Xabi Gorostidi arrasatearra eta Garazi Madariaga gernikarra abenduaren 7an ezkonduko dira. "Zorionak, bikote, eta mila musu, etxekoan eta lankideen partetik!".

3. Biboteak moztu zituzten
Jon eta Sesiñena ile-apaindegietako kideek moztu zizkieten biboteak hala nahi izan zuten guztiei. Elkarrekin afaldu zuten guztiek, eta talde argazkia ere egin zuten.

4. 57 urte ezkondua
Ignazio Benito eta Santi Fraile arrasatearrek familiarekin ospatu zuten urteurrena. "Zorionak eta urte askotarako, bereziki, Ainararen, Ireneren eta Lauraren partetik!".

5. 150 bat bibotedun elkartu ziren
MovemBergarak egindako deialdia jendetsua izan zen. Askotariko ekintzak egin zituzten, baina bereziki deigarria izan zen biboteen enkantea. Diru bilketa egin zuten.

6. Beitiatarren urteroko bazkaria
Domekan elkartu ziren familia horretako kideak eta bazkari ederra egin zuten Arrasateko Udalpe elkartearen. Hurrengoa, agian, mendi buelta eta guzti...



ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa


Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.




OÑATI
Aiur Etxezarreta Castillo
Abenduaren 11n, 2 urte. Zorionak, Aiur! Egund polita pasatu eta patxo potolo bat, etxeko danon partetik!



OÑATI
Maier Urteaga Zubia
Abenduaren 9an, 4 urte. Zorionak, maitte, zure laugarren urtebetetzian. Patxo handi pila bat, danon partetik.




BERGARA
Alaitz Garai Zenitagoia
Abenduaren 8an, 8 urte. Zorionak, pitxin! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Muxu erraldoi bat, familia osoaren partetik.



ARETXABALETIA
Ane Lopez Maskaritano
Abenduaren 8an, urtebete. Zorionak, Ane! Jadanik zure lehenengo kandelatxo putz egiteko eguna heldu da. Orain bezain alai eta sorgintxo izaten jarrai dezazun: Naroa, Uxue, Izaro, Aner eta Miren.




OÑATI
Izaro Markuleta Kortajarena
Abenduaren 7an, 2 urte. Bi urtetxo dagoeneko, sagutxo. Zorionak etxeko danon partetik. Asko maite zaitugu.



ESKORIATZA
Mikel Aramendi Kortazar
Abenduaren 6an, 36 urte. Zorionak beroenak eta urte askotarako. Oso ondo pasatu zure eguna, familia osoaren partetik.



OÑATI
Olaia Urzelai Fernandez
Abenduaren 4an, 11 urte. Olaia, guapisima! Zorionak eta urte askotarako. Ondo-ondo pasatu eguna eta asko disfrutatu. Familia danaren partetik! Patxo asko eta 11 belarri tirakada.




BERGARA
Maddi Elexpuru
Abenduaren 4an, 3 urte. Zorionak, maittea! Hiru urte! Ondo pasatu zure eguna! Maite zaitugu!



BERGARA
Jone Brunet Moreno
Abenduaren 4an, 10 urte. Zorionak, Jone! Egund ederra pasatu eta muxu asko, etxekoaren partetik.



ARRASATE
June Iriarte Balerdi
Abenduaren 3an, 12 urte. Zorionak! Ondo pasatu, lagunak eta familiaren partetik.



ARRASATE
Joxe Gardoki
Abenduaren 3an, 67 urte. Etxeko danon partetik... zorionak, aita!



BERGARA
Peru Larrañaga Barrenetxea
Abenduaren 2an, 6 urte. Peru! Zorionak! Txokolatexko patxo potolo bat, maitxia!



ARRASATE
Benja Ramos
Abenduaren 2an, 37 urte. Zorionak, aita! Oso ondo pasatu zure egunean! Ilargiraino maite zaitugu! Muxu potolo bat, familia osoaren partetik.



ARRASATE
Maialen Vaquero Bassecourt
Azaroaren 29an, 13 urte. Zorionak eta muxu asko, etxekoaren partetik. Ondo ospatu zure eguna.



ARRASATE
Alaitz Zaitegi Manzanos
Azaroaren 28an, 10 urte. Zorionak, Alaitz! Oso ondo pasatu eguna. Musu handi bat, etxekoaren partetik.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUENA 5

OÑATI Ohitura osasuntsuak: sentsibilizazio kanpaina

Markel Irizarrekin eta Amaia Diaz de Monasteriogurenekin: 09:30ean, DBH-1ekoak; 11:00etan, DBH-2koak; eta 15:00etan, LH-6koak. *Kultura etxean.*

ARRASATE Sasoibide ibilaldia

Exezarretarainoko joan-etorria egingo dute.

Biteri plazan, 10:00etan.

OÑATI Garbigune ibiltaria

14:00ak arte.

Azokan, 10:30ean.

ESKORIATZA Gabonetako argien piztuera

16:45ean, umeendako eskulanak; 18:00etan, txokolate-jana; eta 18:30ean, musika saioa.

Fernando Eskoriatza plazan, 16:45ean.

OÑATI Bingo jokoa

Erretiratuendako.

Pake Lekun, 17:00etan.

OÑATI 'Etxola ibiltaria'

Kuboko erabiltzaileendako.

Kuboa, 17:00etan.

ESKORIATZA Literatura eta psikologia solasaldia

Stefan Zweig idazlearen *Carta a una desconocida* liburuaren gaineko saioa, Silvina Fondrarekin.

Kultura etxean, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Atxabalta anitza' erakusketa

Auzokok eta Loramendi elkarteak egindako bilduma ikusgai, hilaren 27ra arte.

Zubikoan, 19:00etan.

OÑATI Bera Bera-Zuazo eskubaloit partida

Sarrerak: nagusiak, 5 euro; eta 15 urtetik beherakoak, 2,5 euro.

Zubikoan, 19:00etan.

ARETXABALETA Samuel Telari akordeoilaria

Italiarrak iazko Arrasate Hiria txapelketa irabazi zuen.

Zaraia aretoan, 19:30ean.

EGUBAKOITZA 6

OÑATI Arrikutzen bisitak

Jaieguna izanik, ordutegi berezia izango dute gaur: 09:30etik 18:00etara arte. Izena, aurrez: 943- 08 20 00.

Arrikutzen.

OÑATI Bisita gidatuak**Arantzazun**

10:30ean eta 12:30ean, gaztelaraz, eta 11:30ean, euskaraz. Izena, aurrez: 943- 79 64 63.

Arantzazuko turismo bulegoan.

LEINTZ GATZAGA Gatz museora bisita gidatuak

Bi egingo dituzte: 11:30ean euskaraz eta 13:00etan gaztelaraz. Izena, aurrez: 943-76 90 03.

Gatz Museoa.

OÑATI 'Txokolatearen bilakaera Oñatin' bisita gidatua

Izena, aurrez: 605 76 35 95. *Txokolateixan, 12:00etan eta 17:30ean.*

ARRASATE San Nikolas bolao

Umeek goxokiak eta litxarrerriak batuko dituzte, kantuan eginez.

Herriko plazan, 12:30ean.

OÑATI 'Giltzapeko altxorrak'**bisita gidatua**

Sancti Spiritus Unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko aukera. Izena, aurrez: 943-78 34 53.

Turismo Bulegoan, 13:00etan.

OÑATI 'Oñatiko xarma' bisita**gidatua**

Txoko esanguratsuenak ezagutzeko. Izena, aurrez: 943-78 34 53.

Turismo Bulegoan, 16:30ean.

BERGARA Ohe elastikoak

Urtarrilaren 6ra arte. Astegunetan, 17:00-20:00; eta asteburuetan eta jaiegunetan, 11:30-14:30 eta 16:30-20:30.

Munibe plazan.

ARRASATE Gabonetako proposamen zaparrada

Ekintzak antolatzen jarraituko dute gaztetxoek.

Erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.

OÑATI 'Ignaziotar lurraldean, ilunabarrean' bisita gidatua

Izena, aurrez: 943-78 34 53.

Turismo Bulegoan, 18:00etan.

ZAPATUA 7

BERGARA 'Bergara monumental' bisita gidatua

Bergarako alde zaharra ezagutzeko: 11:00etan eta 12:30ean. Izena, aurrez: 943-76 90 03

Laboratorium museoa.

OÑATI Bisita gidatuak**Arantzazun**

10:30ean eta 12:30ean, gaztelaraz, eta 11:30ean, euskaraz. Izena, aurrez: 943- 79 64 63.

Arantzazuko turismo bulegoan.

LEINTZ GATZAGA Gatz Museora bisita gidatuak

Bi egingo dituzte: 11:30ean euskaraz eta 13:00etan gaztelaraz. Izena, aurrez: 943-76 90 03.

Gatz Museoa.

ELGETA 'Escamot català'

12:00etan, harrera udaletxean; 13:00etan, *L'estaca* abestuko dute Mendizaleen plazan; 18:00etan, Kataluniako dantzen tailerra; eta 20:00etan, talo dantza.

Elgetan.

OÑATI Santa Lutzia jaiak**Berezaon**

12:00etan, haurrendako txokolate-jana; eta 21:00etan, mus txapelketa.

Auzoko elkarte.

ANTZUOLA 'Antzuola urteetan zehar' bisita gidatua

Alde zaharra ezagutzeko. Izena, aurrez: 943-79 64 63.

Herriko plazan, 12:00etan.

OÑATI 'Giltzapeko altxorrak' bisita gidatua

Unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko. Izena, aurrez: 943-78 34 53.

Turismo Bulegoan, 13:00etan.

OÑATI 'Oñatiko xarma' bisita gidatua

Izena, aurrez: 943-78 34 53.

Turismo Bulegoan, 16:30ean.



IMANOL SORIANO

ARAMAIO Ruper Ordorikaren kontzertua

Gorbeialdeko Kuadrillak antolatutako emanaldia izango da, Aramaioko Udalarekin batera, eta musikari oñatiarrak bakarka jardungo du kultura etxeko aretoan.

Domekan, kultura etxean, 19:00etan.

ARRASATE Tailerrak gaztetxoendako

Sukaldaritza, alanbre eta fimo tailerrak.

Erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.

OÑATI Unibertsitate zaharra kandeaz argituta

Ekitaldi irekia.

Sancti Spiritus unibertsitatean, 18:00etan.

DOMEKA 8

BERGARA Bergara Hiria eskubaloit txapelketa

Gipuzkoako, Debagoieneko eta Errioxako kadete mailako selekzioek jokatu dute.

Labegaraletan.

ESKORIATZA Patinaje pista

Asteburutan; 11:00-13:00 eta 17:00-19:00; eta astegunetan: 17:00-19:00, hilaren 15era arte.

Pilotalekuan.

LEINTZ GATZAGA Gatz Museora bisita gidatuak

Bi egingo dituzte: 11:30ean euskaraz eta 13:00etan gaztelaraz. Izena, aurrez: 943-76 90 03.

Gatz Museoa.

OÑATI 'Giltzapeko altxorrak' bisita gidatua

Unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko. Izena, aurrez: 943-78 34 53.

Turismo Bulegoan, 13:00etan.

OÑATI 'Oñatiko xarma' bisita gidatua

Txoko esanguratsuenak ezagutzeko. Izena, aurrez: 943-78 34 53.

Turismo Bulegoan, 16:30ean.

OÑATI Organo kontzertua

Aitor Olearen emanaldia. Debalde.

Beneditarren elizan, 17:00etan.

ARRASATE Tailerrak gaztetxoendako

Sukaldaritza eta alanbre tailerrak.

Erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.

LEINTZ GATZAGA 'Buah Txabal!' antzezlan

Unai Iturriagak idatzitako lana Jon Zubiaga arrasatearrak ipiniko du oholza gainean, bakarrikzeta eran.

Kultura etxean, 18:00etan.

ASTELEHENA 9

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

Foruen plaza, 12:00etan.

ARRASATE Margo taldekoen erakusketa

Hilaren 20ra arte ikusgai: akrilikoak, olioak, akuarelak...

Kulturaten, 17:00etan.

ARRASATE 'Es Navidad... y en casa hay una silla vacía' hitzaldia

Maite Urzainek egingo du berba.

Kulturaten, 18:30ean.



UNIDAD ALAVESA

ESKORIATZA Unidad Alavesa taldea

Ataunen sortutako boskoteak debaldeko kontzertua egingo du. Country, folk eta rock doinuak jorratzen dituzte. Euren azken diskoa aurkeztuko dute, eta kantu esanguratsuenen errepasoa egingo dute. *Zapatuan, Inkernu tabernan, 22:30ean.*

MARTITZENA 10

ELGETA 'Algo habrán hecho' antzezlan

Oroimenak Antzerki Taldeko kideekin. Debalde. *Espaloian, 17:30ean.*

OÑATI Idazketa lantegia

Jose Mari Iturralde gidatuta. *Liburutegian, 18:00etan.*

BERGARA Taila Elkartekoen erakusketa

Bergarako elkarteko kideek egindako lanak ikusgai egongo dira hilaren 15era arte, martitzenetik domekara arte. *Aroztegin, 18:00etan.*

ARRASATE 'Lanaren balioa da ezberdin egiten gaituena' hitzaldia

Mari Luz Tomek, Oihana Arietaleanizbeaskoak eta Andoni Uribeetxeberriak egingo dute berba. Ostean, Txorbela Otxotea. *Kulturaten, 18:30ean.*

ARRASATE Literatura eta psikologia solasaldia

Mario Benedettiren *La tregua liburu*a izango da hizpide, Silvina Fondra psikologoak gidatuta. *Kulturaten, 18:30ean.*

OÑATI 'Faxismoa, gaur eta hemen' hitzaldia

Hedoi Etxartek egingo du berba, gaztetxeko jardunaldien baitan. *Kultura etxean, 19:00etan.*

EGUAZTENA 11

BERGARA 'Jazz-aren hastapenak' hitzaldia

Arrasate Musikaleko Zigor Martinezek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta. *Seminarixoan, 10:00etan.*

ESKORIATZA Gabonetako postal lehiaketak egiteko tailerra

Ludotekako erabiltzaileendako. *Tortolisen, 17:00etan.*

OÑATI 'Herrialde eta kultura askotako emakumeen topalekua' tailerra

Azken saioa egingo dute Jabetze Eskolaren baitan. *Euskaldun berria gelan, 17:30ean.*

ELGETA Alai taldea eta Unai Cantabrana, Espaloian

Xalbadorpe elkartearen kultura astearen baitan. Debalde. *Espaloian, 18:00etan.*

OÑATI 'El regalo oculto de un saboteador' hitzaldia

Imanol Ibarrondok egingo du berba, Poz programaren baitan. *Kultura etxean, 18:30ean.*

EGUENA 12

ARRASATE Sasoibide irteera Albalara

Pasaiako Itsas Kultur faktoria ezagutuko dute. *Garibaiko geltokia, 09:30ean.*

BERGARA 'Haurrak eta hiperaktibitatea' hitzaldia

ADAHIGI elkarteko kideek egingo dute berba. Berbaldia irekia eta debalde izango da. *Zabalotegin, 17:00etan.*

ELGETA Bingo jokoa

Erretiratuendako ekintza, opariekin. *Ozkarbi elkartean, 17:00etan.*

OÑATI Bingo jokoa

Erretiratuendako. *Pake Lekun, 17:00etan.*

OÑATI Autoformakuntza tailerra

Zer da estatua? gaiaren gaineko saioa egingo dute, gaztetxearen jardunaldietan. *Gaztetxean, 18:30ean.*

ARRASATE Literatura solasaldia

Irati Elorrieta idazlearen *Burbuilak* liburuari buruzko solasaldia egingo dute Alex Gurrutxagak gidatuta. *Kulturate, Arrasate 18:30etan*

ELGETA Elgetako kontsumo taldea: sorrera

Interesatuendako batzar irekia egingo dute. Herritar guztiendako bilera izango da. *Udaletxean, 18:30ean.*

ARRASATE The Capaces taldea

Kataluniako taldeak kontzertua egingo du Kooltur Ostegunen barruan. Punk, hardcore eta rock doinuak bateratzen dituen boskoteak bere azken lana aurkeztuko du. Sarrerak, bost euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

ZINEMA

BERGARA

SEMINARIXOA

Si yo fuera rico
Egubakoitza: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
La familia Addamsa
Domeka: 17:30.

OÑATI

KULTURA ETXEA

El hoyo
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Animales en apuros
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

La trinchera infinita
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.
Mision Katmandu
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

Legado en los huesos
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 17:00.
Los miserables
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.
Last Christmas
Egubakoitza: 17:00, 20:00.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

BOULEVARD

Midway
Egunero, martitzena izan ezik: 12:15, 16:35, 19:25, 22:15.
Martitzena: 16:35, 22:15.
Los angeles de Charlie
Egunero, martitzena izan ezik: 12:10, 16:15, 18:45, 21:15.
Martitzena: 16:15, 18:45.
Legado en los huesos
Hilaren 5etik 11ra: 13:20, 17:00, 19:30, 22:00.
Hilaren 12an: 17:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:20.
Egunero: 15:45, 18:15, 20:45.
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
El silencio de la ciudad blanca
Egunero, martitzena izan ezik: 17:35, 19:50.
Martitzena: 17:10.
Si yo fuera rico
Zapatua eta domeka: 12:35.
Egunero: 15:00, 15:45, 17:05, 18:00, 19:10, 20:15.
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Frozen
Egubakoitzetik domekara: 12:30, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 12:30, 15:45, 18:00, 20:15.
Egunero, martitzena izan ezik: 16:50, 19:10, 21:30.
Martitzena: 16:50, 21:30.

Puñales por la espalda
Egunero, martitzena izan ezik: 16:20, 19:00, 21:45.
Martitzena: 16:20, 21:45.

Last Christmas
Egubakoitzetik domekara: 17:55.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 15:45, 17:55.
Martitzena: 15:45.

Adios
Egubakoitza eta zapatua: 21:20.

La familia Addams
Egubakoitzetik domekara: 12:10, 15:45.

El tiempo contigo
Zapatua eta domeka: 12:45.

Joker
Egunero: 20:05.
Egubakoitza eta zapatua: 22:35.

GORBEIA

Joker
Eguenetik zapatua: 22:10.
Domeka: 19:35.
Astelehenetik eguenera: 19:30.
Abominable
Egubakoitzetik domekara: 12:00.

Malefica
Egubakoitzetik domekara: 12:00.
El silencio de la ciudad blanca
Hilaren 5a: 17:20.
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 17:20, 19:45, 22:30.
Domeka: 12:00, 17:00, 19:45.
Astelehena eta eguaztena: 17:30.

La familia Addams
Egubakoitzetik domekara: 12:15.

La oveja Shaun
Egubakoitzetik domekara: 12:15.

La trinchera infinita
Hilaren 5etik domekara: 19:30.
Astelehenetik eguenera: 19:40.

Si yo fuera rico
Hilaren 5a: 16:10, 19:35, 21:40.
Egubakoitza eta zapatua: 12:00, 16:10, 19:35, 21:40.
Domeka: 12:00, 16:10, 17:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Frozen II
Hilak 5: 16:15, 17:30, 18:20, 20:25, 22:30.
Egubakoitza: 11:45, 16:15, 17:30, 18:20, 20:25, 22:30.
Domeka: 11:45, 16:15, 18:20, 20:25.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Parasitos
Hilaren 5etik domekara: 19:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Bobby, el erizo
Egubakoitzetik domekara: 11:45.

Puñales por la espalda
Hilaren 5etik zapatua: 17:15, 19:50, 22:25.
Domeka: 17:15, 19:50.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Midway
Hilak 5: 17:00, 19:45, 22:30.
Egubakoitza eta zapatua: 12:00, 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 12:00, 17:00, 19:45.
Astelehena eta eguaztena: 17:30, 19:40.
Martitzena eta eguena: 17:30.



Los angeles de Charlie. FOTOGRAMAS



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Euskararen Eguna

Oraingoan, egun borobilean tokatu zait zutabea idaztea: abenduaren 3an, Euskararen Eguna. Zutabea idatzi aurretik egunkarietan gaurko egunari buruz idatzi dena begiratzen aritu naiz eta gure Ikastolan ere behaketa lanetan aritu naiz.

Egun handia izaten da gurean Euskararen Eguna. Kontua da argitaratu diren argazkietan belaunaldi oso bat bota dudala faltan: gure seme-alabak. Nagusiagoak ageri dira, gure belaunaldikoak dezente eta hurrengo saltoa haurregana doa. Gazteak, gutxi. Ikastolan ere horrela sumatu dut giroa: irakasleak eta gainerako langileak dena eman beharrean, haurrak zorutzen eta DBHko bigarren zikloko ikasleak eta batxilergokoak ez hotz eta ez bero. Zenbaitzuek erabili erabiltzen dute. Hala ere, euskarak dagokion tokia har dezan eta biziraun dezan kezka gutxitxo sumatzen diet. Agian, ez dute arriskurik ikusten.

Horrek kezkatzen nau ni. Euskarak urrats handiak egin baditu euskaltzale sutsuei esker izan da eta gehiago emango baditu horrelakoen beharra izango du gerora ere. Gazteak behar dute izan testigua hartzen dutenak, eta horretarako prestatu beharko ditugu.



Bideoa grabatzen, Aretxabaletako lantegi batean. AZ VISUAL MEDIA

Merkatu handiari "bella ciao", inteligentziaz

Aretxarte merkatarien elkarteko kideek, Udalaren laguntzarekin, urtero zoriontzen dituzte Gabonak iragarki bidez. Oraingoan ere AZ Visual Mediaren eta Kepa Errastiren eskutik, herrian kontsumitzera gonbidatu dituzte herritarrak

Naroa Urien ARETXABALETA

Gabon garaia heldu da, eta, honekin, janariz jositako mahaiak eta opariz betetako zuhaitzak. Hainbat izaten dira egun hauean egiten diren erosketak. Baina kontsumitzeko orduan sarri merkatu handira jotzen da, edozein arrazoiengatik. Arazoa ikusita, Aretxarte merkatarien elkarteak, AZ Visual Media

ekoizlearekin eta Kepa Errasti aktore aretxabaletarrarekin batera, *Erresistentzia gara* deituriko iragarkia argitaratu du aste honetan.

Denda txikien alde

Azken bi urteetan musikalak izan dira nagusi Aretxarte elkartearen Gabon iragarkietan, baina 2019an urrunago joan nahi



Kepa Errasti. AZ VISUAL MEDIA

izan dute, eta, *La casa de papel* telesailaren estetika erabiliz, merkatu handien kontrako erresistentzia direla aldarrikatu dute. Telesail honetako pertsonaiek inteligentzia eta indarra erabiltzen dute arazoei aurre egiteko.

Beraz, modu batera edo bestera, fikzioaren eta errealtatearen nahasketa eginez, irudikapen metaforiko bat lortu dute iragarkian. "Interneten munduko enpresek min handia egiten diete herri txikietako komertzioei. Honi aurre egiteko, iragarki original hauek egitea erabaki genuen. Aurten, Aretxabaletako dendariak erresistentziaren parte direla adierazi nahi izan dugu", dio Ibai Zangitu AZ Visual Mediako langileak.

Hausnarketa-lana

Ikus-entzunezkoan *Bella ciao* abestia entzun daiteke dendariak agertzen direnean. Abesti italiarrak *agur* esan nahi du. Kasu honetan, zentzu berezia hartzen du doinu honek; esaterako, agur esan behar zaiela komertzio handiei. Bestalde, bideoaren hasieran, polizia bat agertzen da herriko dendariei galderak egiten; merkatu handiek duten indarra alde batera utzi eta aurrera jarraitzea nola lortzen duten jakin nahian.

Horren bitartez, eta protagonistak Aretxabaletako bertako dendariak izanik, herritarren hautuen garrantziaren inguruan hausnartzera daramate, komertzio txikien goraipamenaren bitartez.

Beraz, Aretxarte merkatarien elkarteak kontzientzia-lan berezia dakar, umorez eta herriko hainbat aurpegi ezagunekin batera.

AZOKAN GAUR

DURANGOKO AZOKA TELEBISTAK EKOIZTUTAKO SAIOA
ABENDUAREN 5ETIK 8RA, 21:30EAN ETA 22:45EAN
EGUNEZ-EGUN DURANGOKO AZOKAREN BERRI

HAUTSI BOLUMENA

DURANGOKO AZOKA TELEBISTAK EKOIZTUTAKO SAIOA
ABENDUAREN 6TIK 8RA, 23:30EAN
BIDEOKLIPEN SAIOA PLATERUENATIK

goiena
Zu hemen zaude.

